

BIDEA

JOSEMARÍA ESCRIVÁ DE BALAGUER

JOSEMARÍA ESCRIVÁ DE BALAGUER

BIDEA



**JOSEMARÍA ESCRIVÁ
DE BALAGUER**

B I D E A

**BILBAO
1996**

EUSKERATZAILLEA

Kerexeta Gallaiztegi 'tar Jaime, abadea.

Elizburu, 24.

48230 ELORRIO (Bizkaia).

Tel.: 94 - 682 00 12.

©1996 by Gaztelueta Fundazioa.

B° Artatza, 87.

48940 LEJONA (Bizkaia).

©1996 by Jaime de Kerexeta Gallaiztegi.

©1994 by SCRIPTOR, S. A. (Madrid).

WILSEN Editorial.

C/ Mayor, s/n.

31241 OLLOBARREN (Nabarra).



ISBN: 84-85918-96-7

Depósito Legal: NA-95-1996

AURKIBIDEA

IZAKEREA	9
ZUZENDARITZA	17
OTOITZA	21
GARBITASUN SANTUA	27
BIOTZA	31
ILDURA TA LAZTASUNA	35
NEKEBIDEA	39
AZTERKETA	43
ERABAGIAK	45
KEZKAK	47
JAUNGOIKOAREN AURREAN	49
IZADIZ GAIÑETIKO BIZIKEREA	53
BARRU-BIZIKEREAZ GEIAGO	57
EPELKERIA	61
IKASKETA	63
EZIERA	67
ZURE SANTUTASUN-MAILLA	71
JAINKO-MAITASUNA	75
ALKAR-MAITASUNA	81
BIDEAK	83
ANDRA MARI	87
ELIZEA	91
MEZA SANTUA	93
SANTUEN ALKARTASUNA	95
ONERASPENAK	97
SINISMENA	101
APALTASUNA	103
MENPETASUNA	107
TXIROTASUNA	109
BERBA-NEGURRITASUNA	111
POZA	113
BESTE ONBIDE BATZUK	115
SAMIÑALDIAK	119
BARRU-BURRUEA	123
AZKENAK	127
JAUNGOIKOAREN NAIA	131
JAUNGOIKOAREN AINTZA	135
LAGUN-BILLAKETA	137
GAUZA TXIKIAK	141
EGIKERA	143
GOGOZKO UMEZARO-BIDEA	147
UMEZARO-BIZITZA	151
DEIA	157
APOSTOLUA	161
APOSTOLUTZA	165
IRAUPENA	169
ALFABETOZKO AURKIBIDEA	173
IZTEGITXOA	177

Irakurri egizuz astiro burubide oneik.
Ausnartu geldiro gogapen oneik.
Aita baten, anai baten, lagun baten ixil-jardunez
belarrira dirautsudazan gaiak dira.
Eta ixil-jardun oneik Jaungoikoak entzun egiten dauz.
Ez dautsut ezer barririk agertuko.
Zeure gomutapenetan astinduko dautsut ori,
zauritu zagizan gogapenen bat sortu dakizun:
eta orrela zure bizikerea obetu dagizun
eta otoitz-bideari
eta Maitasun-bideari ekin dagiezun.
Eta azkenez, zentzundun izan zaitez.



I Z A K E R E A

- 1 Zure bizitza ez daitela bizitza agorra izan.
–Izan zaitetz onurakor. –Itzi egizu ondakiña.
–Argi egizu zure sinismen eta maitasun–argiontziaz.
Garbitu egizu, zure apostolutzaren bidez,
gorrotoaren ereille zantarrak itzitako ezaugarri likin eta zikiña.
–Eta biztu lurreko bide guztiak biotzean daroazun Kristo´ren suaz.
- 2 Zure eratasuna ikusten eta berbakerea entzuten daben guztiak esan dagiela:
«Onek Jesukristo´ren bizitza irakurten dau».
- 3 Zentzuntasuna.
–Itzi egizuz alde batera emakume buruariñen eta umekondoan kiñu ta zurikeriak.
–Zure gorputzaren irudi osoa zeure espirituaren era on eta bakearen dirdira izan daitela.
- 4 Ez egizu esan: «Onelakoxea nozu ni..., neure izakerearen gauzak dira».
Gizontasun–ezaren gauzak, obeto:
«Gizon izan zaitetz!» (Er 1ª, 2, 2).
- 5 Ezetz esaten oitu zaitetz.
- 6 Atzealdea emon egiozu maltzurrari, zure belarrietara txutxumutxuka urreratzen yatzunean,
«¿zetako naastu zure bizitza?», dirautsula.
- 7 Ez izan errikeri–espiriturik.
–Aunditu egizu zure biotza, orokor izateragiño, edo bardin dana, “katoliku”.
Ez egizu oilloen antzera egaz egin, arranoen antzera igo zaitেকেz–ta.
- 8 Baretasuna.
–¿Zegaitik asarratu, asarrez Jaungoikoa iraintzen ba´dozu, lagun–urkoari gogait eragiten ba´dautsazu, zure buruari une txarra emoten ba´dautsazu... eta, edozela be, zure buruaz adiskidetu–bearrean geratzen ba´zara?

9 Esan dozun orixe berori,
esan egizu beste era batera, asarre bagarik,
eta zure errazoiak indarra irabaziko dau,
eta, batez be, ez dozu Jaungoikoa irainduko.

10 Ez egin agiraka, errudunaren aurka asarratuta zagozanean.
—Itzi ori biaramonerako, edo egun geiagorako be bai.
—Eta gero, nasai—nasai eta asmoa garbituta,
orduante egin agiraka.
—Iru orduko eztabaideaz baiño berba ezti bat az geiago irabaziko dozu.
—Ezi zure jenioa.

11 Naimena. —Adoretasuna. —Eredua.
—Egin bear dana, egin... Ezbai bagarik...
Nok zer esangoaren ardura bagarik...
Bestela, Cisneros ez zan Cisneros izango;
ezta Ahumada ʔko Teresa be, Teresa Deuna...
ezta Loiola ʔko Iñigo be, Iñaki Deuna...
Jaungoikoa ta azartasuna! —«Kristo nai dogu Errege!»

12 Aundi egin zaitez eragozpenen aurrean.
—Jaunaren grazia zeugaz izango dozu:
“Mendietan zear igaroko zara!” (cfr. Sal 104, 10).
¿Zer ardura dautso, zure egikizun-bidean une bateko gelditze orrek,
gero, indarrak sakatutako muellearen antzera,
ames guztiak baiño urrunago elduko ba ʔzara?

13 Urrundu egizuz zugandik ezetako balio ez daben gogapen orreik:
gutxienez be, astia jaten dautsue.

14 Ez alperrik galdu Jaungoikoak emon dautsuzan adore ta egunak,
bidean zuri zaunka egiten diarduen txakurrai arrika egiten. Iguindu egizuz.

15 Ez itzi zure lana biarko.

16 ¿Arrunt biurtu zu? ¿Zu moltzo-artean?
Buruzagi izateko jai zara-ta!
Epelak ez dauke egitekorik gure artean.
Apala izan zaitez, eta Kristo ʔk Maitasun—sugarrez biztuko zaitu barriro.

17 Aldakorkeria, buruarinkeria, ezbaia...
berba baten, txoriburukeria darion izakereak ez zagizala geisotu.
Eta —ez aaztu— adionez iratzartzen ez ba ʔzara
—biar ez: oraintxe!—,
egunoroko asmo azalutsok (“utsez beterikook”) sortzen dautsuzan
txoriburukeri orrek,
tentel—zati eta utsaren urrengo biurtuko dau zure bizitza.

18 Munduzale, buruarin eta barru-estu izaten aalegintzen zara,
koldarra zarealako.
¿Zer da, izan be, koldarkeria baiño,
zure buruari aurpegi emoteko bildur ori?

19 Borondatea. —Garrantzi aundiko berezitasuna da.
Ez egizuz baztatu gauza txikiak,
uskeria ta utsaren urrengo ez dira-ta.
Orreitan zure burua ukatuz,
zure naimena sendotu ta indartu egingo dozu Jaungoikoaren graziaz,
eta zeure buruaren jaun eta jabe izango zara leenen.
Eta gero, zure ikasbide ta berbaz, zure jakintza ta agintez...
zeu izango zara enparaduak beartu, bultzatu
eta eroanerazoko dozuzan zuzendari, nagusi ta buruzagi.

20 Aren edo onen izakereaz bat ez zatozala...
Naitaez, alantxe izan bear:
ez zara guztiak begiko yaken bost ogerlekoko txanpona.
Gaiñera, lagun-urkoaren artuemonetatik sortzen diran alkar-jote orreik
bagarik,
¿zelan galduko zeukez zure jenioaren koska, ertz eta muturrak
—akatsak, obenak—
maitasunaren eta santutasunaren itxura gozo, landu ta lerdena lortu aal
izateko?
Zure ta zure ingurukoen izakerak
bigunak eta ezti baizen gozoak ba ʔlitzaz,
ez zintzakez santutuko.

21 Atxakiak. —Eurrez izango dozuz atxakiak,
zure eginbearrak bertan-beera izteko.
Aterik aiña maratilla!
Ez zaitez orrei begira gelditu.
—Baztatu egizuz eta bete zure eginbearrak.

22 Izan adoretu. —Izan sendo. —Izan gizon.
—Eta gero... izan aingeru.

23 ¿Ezin egin daikezula geiago!?
—¿Ez ete-da... ezin egin daikezula gutxiago?

24 Jakin-miñak..., aginte-gríñak..., ausarta izan-naiak darabizuz.
Ederto. Ederto.
—Baiña... Kristo ʔgaitik, Maitasunagaitik izan daitezala.

25 Ez jardun eztabaidan. —Eztabaidatik ez da argirik sortzen,
berokeriak atzamatu egiten dau-ta.

26 Ezkontza, sakramentu deuna da.

—Aldi egokian, ori egin bear dagizunean,
zure gogo-zuzendariak naiz autor-entzuleak liburu onuragarriren bat itzi
dagitzula.

—Orrela, etxeko arazoak beteteko, obeto gertatuko zara.

27 ¿Barre egiten dozu “ezkontzarako Jaungoikoaren deia” jaso dozula
dirautsudalako?

—Jaso dozu, ba: “deia”, bai, Jaungoikoaren “deia”.

Eskatu egiozu Errapael Deunari,
Tobias´en antzera garbi gorde zagizala bide-azkeneragiño (cfr. Tb 5-12).

28 Ezkontza, gizaki lauarentzat jarrita dago,
eta ez Kristo´ren agintaritzaz nagusiarentzat.

—Janbearra baxotxaren premiñea da,
baiña seiñak sortzea gizadiaren eginbearra,
ez persona baxotxarena.

¿Seme-alabak ekarteko egarria?...

Seme-alabak, seme-alaba ugari
eta gure ostean argi-lorraz etengatza itziko dogu,
aragiaren berekoikeria urkatzen ba´dogu.

29 Berekoikerizko bere torretxuan,
bere oskolean bizi danaren ala-olako zorion motel ori lortzea,
ez da beste munduko gauzea.

—Baiña berekoiazen zoriona ez da iraunkorra.

¿Zeru-itxura orregaitik salduko ete-do zu
zeruko zorion azkenbagea?

30 Pentsazaleegi zara. —Ez egidazu esan gazte zaneanik.
Gaztediak aal dauan guztia emoten dau:
bere burua be bai, eta negurri bagarik emon be.

31 Zeurekoi zara. —Zuk, beti “zeureari” ekin.
—Ez zara Kristo´ren anaitasuna sentitzeko gai, dirudizunez;
lagun-urkoagan ez do zu anairik ikusten;
maillak ikusten dozuz.

Aurrez ikusten dot zure ondapan biribilla.
—Eta, porrot egin dagizunean,
orain zeuk bizi nai ez dozun alkarmaitasuna
eskatuko dautsezu enparaduai.

32 Ez zara buruzagi izango,
laguntaldeagan zeu igoteko oiñazpia baiño ikusten ez ba´do zu.

Ezin zaitekez laguntaldeari bizkar emonda bizi:
laguntaldea zoriotsu biurtzeko egarria izan bear do zu.

33 Ez do zu iñoiz be “egia agortu” nai.

—Batzuetan, giza-legez.

Beste batzuetan —geienetan—, zure buruari ordu txarrik ez emotearren.

Eta batzuetan, besteri ordu txarrik ez emotearren.

Eta, beti be, koldarkeriz.

Orrela, sakontzeko bildurrez,
iñoiz be ez zara eritxi zuzeneko gizon izango.

34 Ez izan egiaren bildurrik,
egiak eriotza ekarri ba´dagitzu be.

35 Ez dot atsegin orrenbesteko leunkeri-berbarik:
koldarkeriari “zuurtasuna” esaten dautsazue.

—Eta zuen “zuurtasuna” dala-ta,

Jaungoikoaren arerioak buru-kutxan argi aundirik euki ezarren,
jakintsu-itxurak egiñaz,
iñoiz be igo bear ez eben aginte-mailla ta tokietara igoten dira.

36 Ez da konpongatza geiegikeria ori.

—Zuzendu ezin daiteken okerra ba´litz lez,
bertan-beera iztea, “gizon” ez izatea da.

Ez egizu alderatu zure betebearra.

—Bete zuk zeatz-meatz,
beste batzuek ori bertan-beera itziarren.

37 «Zuk berbea ugari», gaur esaten dabenez.

—Baiña, Jaungoikoaren naia aitatzen dozunarren,
zure berbaontzikeri osoak ez dau zurutuko ezin zuritu daitekenik.

38 ¿Egia ete-da —ez dot uste, ez dot uste—
lurrean ez dagoala gizonik, sabelak baiño?

39 «Eskatu egiozu Jaunari, errazenari iñoiz be ez dagiodala eldu».

—Eskatu dautsat.

Orain, erabagi eder ori beteten aalegintzea dagokizu.

40 Sinismena, poza, baikortasuna.

—Baiña ez, “danaren” aurrean begiak zoro-zoro isterik.

41 Era bikaiña orixe, uskeri zoroak bizi izateko!,
eta bizitzan zerbait izatera eltzeke, igoaz-igoaz,
arin-ariña izanaz eta buru-biotzetan utsa baiño ez eukiaz!

42 ¿Zegaitik diarduzu beti izakerea aldatzen?

¿Noiz sendotuko do zu zerbaitetan zure naimena?

—Itzi egizu leenengo arriai dautsezun zalekeria
eta ezarri azkenengoa asmo bakar baten.

43 Ez zaitetz orren sentikor izan.

—Edozegaitik mintzen zara.

—Edozein uskeriaz jarduteko be
berbak negurtu egin bear zugaz!

Ez zaitetz arritu, asarregarria zareala ba' dirautsut.

—Aldatzen ez ba' zara, ez zara ifioiz be ezetako gai izango.

44 Eskiñi maitekiro, kristau-maitasunak eta gizarte-artuemonak eskatzen dabenez, oker egifñaren atxakia.

—Eta gero, bidean gora!, lotsabagekeri santuz,
gelditu bagarik,

zure eginbearraren aldapea guztiz menperatu arte.

45 ¿Zegaitik mintzen zaitue,

zuri buruz diñoezan eritxi okerrak?

—Urrunago be elduko zintzakez,

Jaungoikoak itziko ba' zenduz.

—Iraun egizu onbidean beste ezeren ardura bagarik.

46 ¿Ez deritxazu, askok aitatzen daben "bardintasun" ori,
benetako bidebagekeria dana?

47 Ez dautsu ondo emoten berba-arrotze ta arropuzkeri orrek:
argi ikusten da guzurrezkoak dirana.

—Aalegindu zaitetz beintzat, Jaungoikoagaz, Zuzendariagaz eta lagun-urkoagaz
orrelakorik ez erabilten:

esi bat gutxiago izango dozue alkarren artean.

48 Izakera bigunegia dozu:

zurea bai gai guztietan muturra sartzeko zalekeria!

—Janari guztien gatz izan nai dozu...

Eta —ez asarratu argi ta garbi berba egiten ba' dautsut—

gatz izateko gatz gutxitxo daukazu:

ez zara gauza, gatza lez urtzeko eta begien aurrean atzamatzeko.

Ez zara zure burua ukatu-zale.

Bai, ostera, jakin-zale ta arroputz.

49 Zagoz isilik.

—Ez zaitetz "umekondo", kontakatillu, lapiku edegi ta barritsu izan.

—Zure barritsukeri ta esamesez,

moteldu egin dozu alkar-maitasuna;

lanik txarrena egin dozu,

eta urrean... —miin gaizto!—

besteai aurrera jarraitzeko gogoa galduerazo ba' dautsezu,

ez uzte izan zure iraupena Jaungoikozkoa danik,

arerioaren laguntzaille gaiztoa baiño.

50 Begizulo ta itaunzulo, sudurluze ta leiozale zara:

¿ez dautsu lotsarik emoten,

obenetan be "gizon"-lorratzik ez eukiteak?

—Izan zaitetz gizon, eta enparaduen albistak jakiteko dozun gogo ori,
zeureak ondo ezagutzeko gogo biurtu egizu.

51 Zure biotz gizontsu, zuzen eta laua azur-ikaratan geratzen da,

nondik ez dakiala eta berak ezela be nai bagarik,

bere burua korapillo, naaste-borraste ta esamesez inguratuta ikustean.

—Ifioren agotan orrela ibili-bearrak apala egin zagizala,

eta jazo yatzunak zuertasun geiago emon dagitzula.

52 Enparaduak epaitzean, ¿zegaitik ezarri zure kritikari,

zure "porrot" ugarien mingostasuna?

53 Kritika-zaletasun ori

—emon dagigun zuzu-muzua ez dala—,

ez dozu zure apostoluzagaz eta zure anaiakaz erabili bear.

—Kritika-zaletasun ori

—¿parkatzen daustazu esatea?—

eragozpen aundia dozu zuen egikizun zerutarrerako.

Izan be, besteen jokabidea ezeren bearrik бага aztertzen dozun bitartean

—asmo zuzenez, emon dagigun—,

ez dozu zeuk tutik egiten,

eta zure jarraibide epelaz guztien lana be galerazo egiten dozu.

«Beraz, nire izakerearen gun lez dan kritika-zaletasun au...?»

—itauntzen dozu artega—.

Begira —nasaituko zaitut—:

artu egizu idazkortza ta paper-orri bat;

idatzi, lau-lau eta uste onez —a!, eta labur—

oiñazetzen zaituen errazoiok;

eroan gero papera nagusiari, eta kito!

—Bera dozu buru

—Jainko-ordezkoztaren argia dauko—

eta jasoko dau zure paper-orria...

edo paper zaarren otzarara jaurtiko dau.

—Zure kritika-zaletasun ori,

zuzu-muzua ez dan ezkeri,

eta asmo zuzenez diarduzun ezkeri,

bardin izan bear dautsu zuri.


54 ¿Amor emon? —Amor emoten jakin egin bear da!

Burrugarako gogorik ez daukenen izkuntza da ori:

burukoi, koldar eta maltzurrena.

Ondo dakie orrelakoak, asi baiño leen menperatuta dagozana.

55 Gizon: ez zaitez orren ume izan
(Jaungoikoaren aurrean beti ume zareanarren,
eta ume zarealako, izan be),
eta ez egizuz zure anaiak iñoren aurrean barregarri itzi.



ZUZENDARITZA

56 Santu-egurra. –Orrela diñoie batzui buruz:
Santu-egurra daukela.

–Baiña santuak ez dira egurrezkoak,
eta egurra eukitea be ez da naikoa.

Oso bearrezkoa da Zuzendariaren esanetara
eta graziaren gogotara osoro jartea.

–Izan be, Jaungoikoaren graziari eta Zuzendariari
euren lana burutzen izten ez ba'yake,
ez da iñoiz be irudi ederrik agertuko,
Kristo'ren irudi bizi biurtuko dan gizon santurik.

Eta leen aitatu dogun «santu-egur» a,
egurki itxurabage ta landubagea,
sutarako izango da... su eder batetarako,
egur ona ba'zan!

57 Ugaritu egizuz, Ezezagun Nagusia dan Espiritu Santuari buruzko
artuemonak,
Berak santutuko zaitu-ta.

Ez aaztu Jaungoikoaren etxe zarea.
–Espiritu Santua zeure arima-erdian dago:
entzun egizu Berak dirautsuna,
jaso ardura biziz Aren goiargiak (cfr. Ko 1^a, 3, 16 eta 6, 19; Jn 14, 17).

58 Ez galerazo Pozkillearen [Espiritu Santuaren] lana:
alkartu zaitez Kristo'gaz, zure arimea garbitu daiten,
eta ondo eroan, Beragaz batera,
irain, txistu ta ukabilkadak...
eta arantzak, eta Gurutzearen astuntasuna...
eta zure aragia urratzen daben burdiñiak,
eta eriotza garratz baten gurari biziak...

Sartu zaitez Jesus gure Jaunaren saiets edegian,
Aren Biotz santuaren babesleku gozoa aurkitzeragiño.

59 Bearrezkoa da egia ziur au jakitea:
“Norberaren Zuzendari ta Ontziburu makala da norbera,
grazi-bizitzaren zurrumbillo, ekaitz, eraso ta eragozpenen artean arimea
zuzentzeko”.

Orregaitik, Jaunaren Naia da gure ontziaren zuzendaritza
irakasle baten eskuetan jartea,
onek bere argi ta jakituriaz kai [portu] baketsura eroan gagizan.

60 Arkitekto bagarik, ez zenduke zu bizi izateko etxerik egingo lur onetan.
¿Zelan egin nai dozu, ba, Zuzendari bagarik, zure santutasun-jauregia
zeruan betikotasun osoan bizi izateko?

61 Sarritan uts egiten dau erri-gizonak,
bere burua Moral-irakasle egiten ba'dau:
erri-gizonak, orretan, ikasle bakarrik izan daitezke.

62 Zuzendaria. —Bear dozu bat.
—Aren esana egiñaz, zeure burua eskintzeko, emoteko...
—Gaiñera, zeure apostolutza ezagutzen dauan Zuzendaria,
Jaungoikoak nai dauana dakian Zuzendaria:
onela, zure bidetik atara bagarik...,
Espiritu Santuak zure ariman egin dagianaren indargarri izango da,
zure biotza bakez beteaz,
eta zuri zure lana joria izateko erea irakatsiaz.

63 Zuk —pentsatzen dozunez— nortasun aundia daukazu:
eginda dozuz zure ikasketak
—zure azterketa-lanak, zure liburuak—
ba-dozu zure gizarte-mailla —zure abizena—,
politika-jardunak —daukazuzan aginbideak—,
zure ondasunak..., zure urteak...;
ez zara, ez, umekondo bat!...

Ain zuzen be, orrexegaitik dauko zure arimeak
beste iñok baiño Zuzendari baten premiña geiago.

64 Ez ezkutatu arerioaren zirikalidok zure Zuzendariari.
—Zure garaipenak, zeure ixil-mandatua egitean,
Jaungoikoaren grazi geiago damotsu.
—Eta gaiñera, zure gogo-zuzendariaren burubide-doaia ta otoitzak daukazuz,
aurrerantzean be irabazle urteteko.

65 ¿Zegaitik, zure burua dan lez ikusteko
eta gogo-zuzendariari agertzeko bildur ori?
Zure biotzeko ateak zabaltzeko bildurra galtzen ba'dozu,
burruka nagusi bat irabaziko dozu.

66 Abadea —edonor dala— “Kristo barri” bat da beti.

67 Gauza jakiña izanarren,
ez dautsut barriro gogorazo bagarik itzi nai:
Abadea beste Kristo bat dala.
—Eta Espiritu Santuak auxe esan dauala:
—«Ez ikutu gero nire “Kristo oneik”!» (Sal 105, 15).

68 “Presbíteros” berbeak, *zaarra* esan nai dau.
—Zaartzaroari begirunea zor ba'yako,
ekarri gogora zenbateraiñokoa zor izango dautsazun Abadeari!

69 Espiritu zabartsu ta begirune gutxikoaren ezaugarri da, benetan,
Abadeari —edonor dala—, aretarako atxakirik izanda be,
izkirimiri ta txantxetak zuzentzea!

70 Barriro diñot: Abadeari egindako txantxeta orreik —isekak—,
zabarkeri ta tentelkeriak dira gutxienez,
errua zuzitzeko errazoi asko dagozala ba'deritxazu be.

71 Abade-garbitasuna bai aundietsi bear geukela!
—Aren aberastasuna da.
—Ez dago Elizeari koroe ori kenduko dautsan jauntxo ankerrik.

72 Ez egizu jarri Abadea bere zentzuntasuna galtzeko zorian!
—Gogorkeri bagarik, oso bearrezkoa dau onoimen ori.
Arek bai, gure lagun eta Elizgizon gazte arek eskatzen ebalat!:
«Jauna, emon egidazu larogei urteen zentzuntasuna!»
Eskatu egizu zeuk be ori Abade guztientzat,
eta egitada on bat egingo dozu.

73 Biotzean sartutako sastakada batek aiña min emon dautsu,
Abade arei buruz mormoxetan jardun izan dozula norbaitek zutzaz esateak.
—Poz aundia emoten daust zure min orrek;
orain ba-dakit —ziur jakin be— zuzen jokatu dozuna.

74 Jaungoikoa maite izan eta Abadeari begirunerik izan ez...
ezin izan daiteke.

75 Noe'ren seme zintzoak lez,
estaldu goimaitasun-estalkiaz zure Aita Abadearen utsegiñak.



76 Egite-arau bati lotzen ez ba'zakioz,
ez zara iñoiz be eraz ibiliko.

77 «Egite-arau ta ordu-banaketa bati eltzea
—esan zeustan—,
gogaikarri da benetan!»
«Gogaikarri, Maitasunik ez dagoalako», erantzun neutsun nik.

78 Ordu jakiñean jagiten ez ba'zara,
ez dozu beteko iñoiz be zure egite-araua.

79 ¿Era bagariko onoimena? —Arritzekoa!

80 Eraz ba'zabiz, zure astia ugaritu egingo dozu.
Beraz, aintza geiago emon aal izango dautsazu Jaungoikoari,
bere zerbitzuan lan geiago egiñaz.



OTOITZA

81 Egintzak, otoitz bagarik, ez dabe ezer balio:
otoitzari, buru-ukapenak ezarten dautso balioa.

82 Leenen, otoitza; gero, oben-ordaiña;
azkenez, "oso azkenez", ekintza.

83 Grazi-etxegintzaren oiñarria, otoitza da.
-Otoitza guztiaalduna da!

84 «Jauná, irakatsi egiguzu otoitz egiten!» (Lk 11, 1).
-Eta Jaunak olantxe erantzun eban:
«Otoitz egin dagizuenean, auxe esango dozue:
'Gure Aita, zeruan zareana...» (Mt 6, 9-13).
¿Zegaitik ez dogu aintzat artu bear agozko otoitza?

85 Astiro. -Begira zer diñozun, nok diñoan eta nori dirautsan.
-Izan be, ausnartzeko asti bagarik arin-aringa berba egite ori,
zaratea da, zaratots utsa.
Gaiñera, ezpanak asko erabiliarren,
ori otoitza ez dala, esango dautsut Teresa Deunagaz.

86 Liturjikorra izan bear leuke zure otoitzak.
-Bakarkako otoitzen ordez,
salmuak eta meza-liburuko otoitzak esango al-dozuz!

87 «Gizona ez da ogi utsez bizi»
—esan eban Jaunak—,
Jaungoikoaren agotik urtendako edozein berbaz baiño» (Mt 4, 4)..
-Ogia ta berbea!: Ostia deuna ta otoitza.
Bestela, ez dozu grazi-bizikerarik bizi izango.

88 Lagunartearen billa zabiz,
aren berba, maitasun eta artuemonez
mundu onetako erbestea eroangarriago biurtu dakizun...
adiskideak batzuetan saltzailleak izanarren.
-Ez deritxat txarto.
Baiña..., ¿zegaitik ez dozu, iñoiz be saltzen ez dauan
Adiskide Aundiaren alkarte ta alkarrizketea
egunean-egunean baiño sakonago billatzen?

89 «Mari k arlorik onena aukeratu dau» (Lk 10, 42),
irakurten da Ebanjelio Santuan.
-An dago Mari, Irakaslearen berbak edaten.
Itxuraz geldo dago, baiña otoitzean diardu maitekiro!

—Gero, Barri Ona [Ebanjelioa] zabaltzen lagun egingo dautso Jesus´i, uri, erri ta auzoetan.

Bai gatxa, otoitz bagarik Jesus´i lagun egitea!

90 ¿Ez dakizula otoitz egiten?

—Jarri zaitez Jaunaren aurrean, eta «Jauná, ez dakit otoitz egiten!...» esaten asi orduko —ziur egon—, asi zara otoitzean.

91 «Otoitza Jaungoikoagaz berba egitea da —idatzi daustazu—. Baiña zertzaz?»

—¿Zertzaz? Jaungoikoaz, zeutzaz:

zure pozak, itunaldiak [tristuraldiak], garaipeak eta lurjoteak, asmo zuzenak, egunoroko arazoak... makaltasunak! Jaunari agerturik: baita esker-emotea ta eskariak: eta Maitasuna ta damua be.

Berba gutxitan: Jauna ezagutu ta zeure burua ezagutu: “Alkarregaz jardun!”

92 «Ori ausnartzean, kiskaldu egiten nintzan» (Sal 39, 4).

—Orretarakoxe zoaz otoitzera:

beroa ta argia darion sugar eta argizuzi bizi biurtzera.

Orregaitik, aurrera jotzen ez dakizunean, atzamatzen zoazala ikusten dozunean, suari zugatzondo usaintsurik ezin emon ba´daikeozu, emon egiozuz eutsi daikeoen orbel eta abarrak: agozko otoitz eta maite-biozkada laburtxoak. —Onela, ez dozu astia alperrik galduko.

93 Errukarri ikusten dozu zure burua, eta ez dozu uste Jaungoikoak entzuteko duin zareanik...

Baiña, ¿eta Maria´ren irabaziak?,

¿eta zure Jaunaren zauriak?

Eta... ¿ez al-zara Jaungoikoaren seme?

Gaiñera, adi-adi daukazu Jaungoikoa:

«ona dalako eta bere errukiak azkenik ez daualako» (Kro 2ª, 7, 3; Sal 118, 1).

94 Uste onez urreratu zakiozan egin da ain txiki, Ume egiteragiño, egin be!

95 «Zeugan, Jauná, jarri dot nire itxaropena.» (Sal 31, 2.)

—Nire aalegiñari otoitza ta gurutzea ezarri dautsadaz.

—Eta nire itxaropena ez da alperrekoa izan, ezta izango be:

«Ez nadilla betiko zapalduta geratu.» (Sal 71, 1.)

96 Jesus´ek diño:

«Neuk dirautsuet: Eskatu egizue, eta emon egingo dautsue; billatu egizue, eta aurkitu egingo dozue; dei egizue, eta Jaungoikoak zabaldu egingo dautsue atea» (Lk 11, 9).

Otoitz egizu. —¿Nongo giza-arazotan aurkitu daikezu irabaziaren ziurtasun geiago?

97 Ez dakizu zer esan Jaunari otoitzean.

Ez yatzu ezer bururatzan, eta, alan be, gai asko itandu nai zeuskioz.

—Begira: idatzi egizuz egunez, laburkiro, Jaunaren aurrean ausnartu nai dozuzan arazoak. Eta zoaz gero paper orregaz otoitz egitera.

98 Abadeen eta birjiña eskiñien otoitzaren ostean, ume ta geisoen otoitza yako begikoen Jaungoikoari.

99 Otoitz egitera joan zaitezanean, auxe izan daitela erabagi sendoa: ez otoitza luzeago, gozoa dalako; ezta laburrago be, legor zagozalako.

100 Ez esan Jesus´i, otoitzean poza nai dozunik. —Poza emoten ba´dautsu, eskerrak emon egiozuz. —Iraupena nai dozula, esan egiozu beti.

101 Iraun egizu otoitzean. —Iraun, zure aalegiñak alperrekoak irudiarren be. —Otoitza beti da emonkor.

102 Zure adimena astunduta eta geldituta dago: aalegiñak aalegin egifarren, ezin dozu gogapenik eratu Jaunaren aurrean: zorabiatuta zagoz!

Ez jardun indarka, ez egon arduratsu. —Entzun egidazu ondo: biotzaren ordua dozu.

103 Josi egizuz zure gomutamenean otoitzaldian ikutu zaituen berba orreik, eta egun-barruan sarritan esan, astiro-astiro.

104 «Gau guztia Jaungoikoari otoiz egiten emon eban» (Lk 4, 14). —Orixe dirausku Lukas Deunak Jaunari buruz. ¿Zenbat aldiz iraun dozu zuk orrela? —Beraz...

105 Otoitzean eta Eukaristian Kristo´ren artuemonik ez ba´dozu,
¿zelan ezaguerazo izango dautsezu enparaduai?

106 Ulertzen dot idatzi daustazuna:
«Unetxo bat eskintzen dautsat egunoro otoitzari:
orregaitik ez ba´litz!»

107 ¿Otoitz bagarik santu?...
—Ez dot santutasun ori sinisten.

108 «Zure apostolutzak, zeure otoitzak aifña balio izango dau»,
esango dautsut,
atzerritar idazle baten berbak erabilirik.

109 Otoitz-zale ez ba´zara,
ez dot sinisten zure asmoak zuzenak diranik,
Kristo´gaitik diarduzula diñozunean.

110 Gogoak emoten dautsanean joten dauan erloju naastu bat
dirudizula esan daustazu noizbait:
legor, otz eta élkor zagoz otoitzaldian;
eta, gutxien uste dozunean
—kalean, egunoroko arazoen erdian, erriko zarata eta zarraparra-artean,
edo zure lantoki baketsuan lanean diarduzunean—,
otoizlari aurkitzen dozu zure biotza...
¿Ordu txarrean? Dana dala!;
baiña ez egin entzungor zure biotzaren dejari.
—«Nai dauan tokian joten dau aizeak» (Jn 3, 8)..

111 Barrea aterazo daust zure otoitz... artegatsuak.
—«Jesús, ez dot zaartu nai... —esaten zeutsan—.
Zu ikusteko larregi itxarotea izango litzake!
Bearbada, zaartzean ez da aragi bizitan egongo nire biotza, orain lez.
Zaarra!... berandu deritxat.
Orain lerdénago izango litzake gure batasuna,
gazte garbiaren Maitasunez maite zaitut-eta».

112 Ondo deritxat pekatuen ordaiñak emoteko daukazun gurari bizi orri:
«Mundu guztia!», esan daustazu.
—Ederto. Baiña zeure etxeakoak leenen —graziz edo odolez—, eta Aberrikoak.


113 «Ez jarri nigan zure usterik... —esaten zeutsan—.
Nik, Jesús, Zeugan jarten dot nire uste osoa.
Zeure besoetan geratzen naz:
ortxe izten dot daukadan guztia, nire makaltasuna!»
—Otoitz ederra deritxat.


114 Kristauaren otoitza ez da iñoiz be bakarriketa.

115 “Txil-uneak”. —Itzi egizuz biotza legortuta daukenentzat.
Katolikuok, Jaungoikoaren seme gareanez,
zeruan dagoan geure Aitagaz egiten dogu berba.

116 Ez itzi alde batera irakurte ona.
—Irakurraldiak santu asko egin dauz.

117 «Irakurgaietan batzen dot sugeia
—idazten daustazu—.
—Meta ustela dirudi, baiña ortixek artzen dau sarritan
nire gomutamenak ustebagean
nire otoitza bizi izateko eta Jaunartze-osteko nire eskerrona iziotzeko gaia».





GARBITASUN SANTUA

118 Apaltasunez eskatzen danean emoten dau Jaungoikoak garbitasun santua.

119 Ederra, bai, garbitasun santua!
Baiña, garbitasun ori goimaitasunetik aldentzen ba'dogu,
ez da santu, ezta Jaungoikoaren begiko be.

Goimaitasuna azi bat da:
garbitasun-iruntzez bustita aziko dana,
eta frutu gozoak ekarriko dauzana.

Goimaitasun bagarik, agorra da garbitasuna;
eta aren ur alperrekoak
arrokeri-lurruna darion lokatzarte ta loizulo zikin biurtzen dabe arimea.

120 «¿Garbitasuna?» —itauntzen dabe—. Eta irribarre egiten dabe.
—Ezkontzara gorputzez igartuta
eta arimaz lurjota doazan berberak dira.

Liburu bat agintzen dautsuet, Jauna lagun.
Idazpuru au eroan daike:
«Ezkongetasuna, Ezkontza, Garbitasuna».

121 Garbitasunaren eta adorearen aldeko burruka baten premiñarik
gorrienean gagoz,
gizona abere utsa dala uste dabenen aalegin basatiak ito dagiguzan.
—Eta burruka ori zeuen egikizuna da.

122 Aingeru lez bizi dira asko mundu onetan.
—Zu... ¿zegaitik ez?

123 Bizitza garbia eroatea benetan erabagi dagizunean,
kastitatea ez da zuretzat zama astun izango:
koroee goragarria izango da.

124 Zuk, osagille apostolu orrek, auxe idatzi zeustan:
«Guztiok dakigu —bizi-ikasiak irakatsita—
garbi bizi gaitekezala, zoli bizi izanik,
sakramentuak sarritan arturik,
grina okerren leenengo txinpartak
su-meta biurtu baiño leen atzamaturik.
Eta, ain zuzen be, garbien artean dagoz gizonik osoenak,
alde guztietatik egon be.
Lizunen artean, barriz, koldarrak, berekoiak,
guzurtiak eta biotz gogorak...
Gizontasun gutxiaren ezaugarriak!»

- 125 «Berbetaldi ixil bat euki nai neuke
—esan daustazu—
San Joan gazteagaz,
bere burubideak emon daistazan,
eta biotz-garbitasuna jaristeko adoretu nagian».
Benetan nai ba' dozu, esan egiozu:
adoretu egingo zaitu eta burubidea emongo dautsu.
- 126 Jan-edankeria lizunkeriaren babesu dozu.
- 127 Ez zaituz lizunkeriagaz alkarrizketan asi;
iguindu egizu.
- 128 Lotsea ta eratasuna garbitasunaren anai txikiak dira.
- 129 Garbitasun santu bagarik ez dago apostolutzan irauterik.
- 130 Kendu egidazu, Jauná, nire biotza estaltzen dauan
lizunkeri ustelezko azal ugartsu au:
nire biotzean Espiritu Santuaren deia entzunaz,
dei orri erraz jarraitu dagiodan.
- 131 Ez egizu jazoera edo gauza lizunai buruz inoiz be jardun,
ezta arei buruzko zeure tamala agertzeko be.
—Pikea baiño itsaskorragea da gero gai ori!
—Aldatu egizu berbeta-bidea, eta, ezin ba' daiteke,
jarraitu doai eder orren premiña ta edertasuna goratzen,
euren arimearen balioa dakienaren doia da-ta.
- 132 Ez zaituz koldarra izan, "ausartarena" egiñik:
iges egizu!
- 133 Santuak ez dira erdi-gizon izan;
gaurreguneko osagille "barrizaleak" aztertu bear leukezan geiso-abar...
Egiatzko gizon ziran eta dira: zeu lez aragizkoak.
—Eta irabazi egin eben..
- 134 Aragia sedaz jantziarren...
—Esango dautsut, arte, jakituri... edo errukiaren estalkiz
bere zikiña estaltzen dauan tentaldiaren aurrean
ezbaian ikusi zagidazanean.
Españar-esakun zaar baten bidez esango dautsut:
«Sedaz jantziarren, aragia beti aragi».


- 135 Zuk balio dozuna ba' zeki!...
Paulo Apostolu Deuna da zeuri dirautsuna:
«Ordain aberatsaz izan zaree erosiak» (Ko 1ª, 6, 20).
Eta gero auxe dirautsu:
«Goratu ta eroan egizue Jaungoikoa zuen gorputzaz» (Ko 1ª, 6, 20)..
- 136 Aragizko atsegin-billa ibili ostean...
gero bai bakartasuna!
- 137 Beztuna ta mingostasuna baiño itzi ez dautsun une bateko
atsegiñagaitik,
"bidea" galdu daustazula pentsatzea be!
- 138 «Nire zoritxarra! ¿Nok askatuko nau gorputz ilkor onetatik?»,
diño deadarka San Paulo Apostoluak (Erm 7, 24).
—Adoretu zaituz: a be burrukan ziarduan.
- 139 Ekarki egizu burura tentaldian
zeruan itxaroten dozun Maitasuna:
aundiagotu egizu zure Itxaropena;
Itxaropena ez da berekoikeria.
- 140 Ez izan ardurarik edozer jazoarren,
zure naimenak lekuri emoten ez ba' dautso.
—Izan be, nai-izateak bakarrik zabaldu daitez biotzeko ateak,
gaiztakeria an sartzeko.
- 141 Zure ariman "Eliztarren ustekeriak..." entzuten dozuzala dirudi
—Eta gero, gure aragi gaisoaren ergelkeri guztien estalgarri lez,
beste au: "bere eskubideak!"
Au jazo dakizunean, esan egiozu arerioari
jatorrizko legea eta Jaungoikoaren legea eta Jaungoikoa dagozala!
—Eta inpernua be bai!
- 142 «Jauná!, nai ba' dozu, garbitu naikezu nire geisotik» (Mt 8, 2).
—Otoitz ederra, Jaungoikoak, zuk eta nik dakiguna jazoten yatzunean,
legenardunaren itxaropenaz sarritan esan dagizun.
—Berealaxe entzungo dozu Irakaslearen erantzuna:
«Nai dot. Garbi geratu zaituz» (Mt 8, 3).
- 143 Garbitasuna gordetearren,
edurretan lorrindu zan Asis ko Prantzisko Deuna;
Benito Deuna ota-artean etzan zan;
Bernardo Deuna ur-osin izoztuan murgildu zan...
—Zuk, ¿zer egin dozu?

144 Bizitza osoko garbitasun zeatzak
adorea damotso San Joan í Gurutzondoan.
—Enparadu ikasleak Golgota ´tik iges egin eben;
bera antxe geratu zan Kristo ´ren Amagaz (cfr. Jn 19, 25-27).
—Ez aztu, garbitasunak izakerea sendotu ta indartu egiten dauana.

145 Madrid ´eko gudadokia.
Ogei bat guda-agintari, lagunarte alai ta jatorrean.
Abesti bat entzuten da, gero bestea, eta bestea...
Bigote baltzdun teniente koskor arek leenengoa bakarrik entzun eban:

«Biotz erdibiturik
ez dot nai nik;
neurea emoten ba ´dautsat,
osorik emoten dot».

«Onenbeste mukerkeri, nire biotza osorik emoteko!»
—Eta otoitza, ibai zabal eta oparoa lez joan zan...



B I O T Z A

146 Salgai lez, biotza eskuan daroazula dirudi: «¿Nok nai dau?»
—Mundukoai begiko ez ba ´yake, Jaungoikoari eskifiko dautsazu.
¿Santuak orrela jokatu ebela uste dozu zuk?

147 ¿Munduko izakiak zuretzat?
—Izakiak Jaungoikoarentzat!
Edo-ta, nai ba ´dozu, zeuretzat, baiña Jaungoikoaren bidez.

148 ¿Zegaitik makurtu, mundutar atsegiñen lokatzarte orretan edatera,
zure egarria betiko bizitaragiño doazan ur biziz ase daikezula? (cfr. Jn 4,
14.)

149 Aldendu zaitez munduko izakiakandik,
billoiz-billoizik gelditzeragiño.
Aita Santu Gregorio Deunak diñoanez,
deabruak ez dauko gauza bererik mundu onetan,
eta billoizik joaten da burrukara.
Deabruaren aurka burrukan egitera,
mundu-zalekeriz jantzita ba ´zoaz,
laster jausiko zara lurrera:
izango dau zuri nondik eldu-ta.

150 «Giza-zalekeriz bete-betea daukazu zure biotza!»...
—dirautsula dirudi zure Aingeruak—.
—Eta gero: «¿Ori zaintzea nai dozu zure Zaintzaille onek?»

151 Askatzea. —Gogor egiten yaku!...
Bai ederto, iru giltz baiño beste lokarririk ez ba ´neuko
eta nire aragian Gurutzea baiño beste ikuturik ez!

152 ¿Ez dozu ikusten, bake ta batasun geiagoren jabe izango zareana,
izakiakandik guztiz askatzeko agintzen dautsun dei berezi orri erantzuten
ba ´dautsazu?

Ekin burrukeari, Berari [Jaunari] atsegin emotearren;
baiña sendotu egizu zure itxaropena!

153 Tira!, esan egiozu, ume batek lez eta esku-zabalik:
¿Zer emongo daustazu “ori” eskatzen daustazunean?

154 Guztiontzat otz eta gogor biurtuko zarean bildur zara.
Orrenbeste askatu nai dozu zure burua izakiakandik!

—Itzi alde batera ardura ori:

Kristo'rena ba'zara —zearo Kristo'rena—,
su, argi ta berorik naikoa izango dozu guztiontzat
—baita Kristo'gandik be—.

155 Jesus'ek ez dau “erdizkakorik” nai: osoa nai dau.

156 Ez dozu Jaungoikoaren Naira jarri nai...
eta, alan be, edozein izaki utsen esanera jarten zara.

157 Ez egizuz gauzak euron ardatzetik atara;
Jaungoikoa berbera eskintzen ba'yatzu,
¿zetako dozu izakiakanako zaletasun ori?

158 Orain negar-malkoak. —Min, ¿ezta?
—Jakiña, ba, gizona!: orretarakoxe jo zaitue or.

159 Makal dabil zure biotza
eta euskarri bat billatu nai dozu lurrean.
—Ondo dago; baiña, ez jausteko,
artu dozun euskarri ori ez daitela biurtu
amildegira bultza egingo dautsun zama astun,
edo katigu egingo zaituan kate.

160 Esan egidazu, esan egidazu:
ori... ¿adiskidetasuna ete-da, ala katea?

161 Samurtasun-jario zara.
—Lagun-urkoai buruzko goimaitasuna, bai: eta beti.
—Baiña, entzun ondo, apostolu-biotz:
Jaunak berak zure bularrean erein dauan beste sentipen ori Kristo'rena da,
eta Arexentzat bakarrik.
—Gaiñera... ¿ez al—da egia, zure biotzeko maratillen bat zabaltzean
—zazpi maratilla bear zeukez—,
zure barruko zeru urdiñean ez baitxo bat geratu zana?
Eta asmo garbiz ibili zintzazanarren, kezkatu itauntzen dozu:
¿ez ete-dot geiegikeriz jokatu,
nire barruko maite-sentipenok azaltzean?

162 Biotza, alde batera! Leenen, eginbearra.
—Baiña, eginbearra betetean,
jarri egizu betete orretan leuntasuna, jarri egizu biotza.

163 «Eskumako zure begiak galbidera ba'zaroaz...,
atara eta jaurti egizu zugandik urrun!» (Mt 5, 29).

—Galbidera zaroazan biotzaren errukarria!

Estutu egizu zure eskuen artean:

zuk ez egiozu atsegiñik eskiñi.

—Eta, berak eskatzen ba'dautsu,

esan egiozu astiro ta ixilpean lez eta erruki gizontsuz beterik:
“Biotz: Gurutzean biotza!, Gurutzean biotza!”

164 ¿Zelan dabil biotz ori?

—Ez zaitez larritu:

santuak be —zu ta ni lez gizon eta zentzundun izanik—
somatu ebezan “berezko” zaletasun orreik.

Somatu ez ba'lebez, euren biotzak —gorputz eta arima—
izaki bati eskiñi bearrean,

Jaungoikoarentzat gordeteko egin ebezan aalegin gartsu orreitatik
irabazpide gutxi atarako eben.

Orregaitik, bidea jakin ezkeru,

biotzaren makaltasuna ez da eragozpen izan bear
arima trebe ta “maiteminduarentzat”.

165 Zuk... lurreko maitasun kaskar bategaitik
orrenbeste makurtu izan zarean orrek...
ez dozu Kristo'gaitik burua makurtu nai!
¿Eta Kristo benetan maite dozulakotan zagoz?

166 «Aitá —idazten daustazu—, agiñetako miña daukat biotzean».
—Ez diardut txantxetan; izan be, zuztar batzuk atara dagituzan aginlari on
baten premiñarik gorrianean zagoz.

Atzeratzen itziko ba'zeutso...!

167 «Oi, asieratik ausi ba'neu!», esan daustazu.
—Beranduko deadar ori barrero esan-bearrik ez al-dagizula izan!

168 «Barregura gozoa emon zeustan,
gure Jaunak eskatuko dautsun “kontua” aitatu zenduanean.
Ez, zuentzat ez da “Epaille” izango —berba onen esanai estuan—,
Jesus baiño».
—Gotzain santu batek idatzitako berba orreik,
amaika biotz-larri nasaitu dabe!,
eta zeurea be poztu daikee.

169 Lurjota izten zaitu miñak,
koldarkiro onartzen dozulako.
—Onartu egizu adoretu ta kristaukiro;
eta aberastasun lez ederretsiko dozu.

170 Argia benetan bidea!... Bai argiak eragozpenak!...
Bai iskillo [arma] egokiak, irabazle urteteko!...


—Eta, alan be, orreik bai bide-galtze ta oztopo ugari! ¿Ezta?

—Zuk eta nik ezagutzen dogun ari mea da,
zuk ebagi nai ez dozun ari mea

—katea, burdiña landuzko katea—,
bidea galduerazoten eta oztopo eragiten dautsuna,
baita jausierazoten zaituana be.

—¿Zeri zagoz itxaroten, ari ori ebagi... eta aurrera joteko?

171 Maitasun bat... pozik itzi daiteke Maitasunagaitik!



ILDURA TA LAZTASUNA

172 Zure buruari gogor egiten ez ba'dautsazu,
ez zara iñoiz be otoitz-zale izango.

173 Zure berba egoki ori;
zure ezpanai urten ez yaken izkirimiria;
aspergarri yatzun bati eskiñitako irribarre gozoa;
bidebagezko salaketaren aurrean isilik egotea;
astun eta erabagak diranentzako berba samurra;
zeugaz bizi diranen ainbat uskeri ezegokiak egunoro isilik eroatea...
Eta ori bein eta beti... orixe bai dala benetan zure buruari gogor egitea!

174 Ez egizu esan: «persona orrek gogait eragiten daust».
—Pentsatu egizu: «persona orrek santu egiten nau».

175 Laztasun bagarik, ez da iñongo asmorik egia biurtzen.
—Uko egiozu zure buruari.
—Jaungoikoarentzako opari izatea, orixe bai gauza ederra!

176 Sarri be sarri erabagiten dozu Jaungoikoaren omenez zerbait egitea...
baiña, orren makala zarean ezkerro,
asmo erraz a ez beteteak emoten dautsuzan kezka ta amorrua
Jaunari eskintzea naikotzat artu bear izaten dozu!

177 Ez egizu alperrik galdu zure erizpidea eziteko aukerarik.
—Nekeza da, baiña... Jaunaren begi-begikoa!

178 Kristo'rik ez daukan egurrezko gurutze soil eta latz bat ikustean,
ez egizu aaztu, Gurutze ori dala zure gurutzea:
egunorokoa, ixillekoa, dirdira ta pozaldirik bagea...
palta dauan "Kristo"-ri itxaroten dagoana;
eta "Kristo gurutzeratu" ori zeuk izan bear dozu.

179 Billatu egizuz lagun-urkoa ilduratzan ez daben laztasunak.

180 Ildurarik ez dan tokian, onbiderik be ez.

181 Ildura barrukoia.
—Ez dot zure ildura barrukoian sinisterik jarten,
zentzunen ildurea ezetsi ta izten dozula ikusten ez dodan artean.

182 Bizitza errukarri onetan,
edan dagigun nekearen edontzitik,
azkenengo tanta garratza iruntsi arte.

–¿Zer ardura dautso, amar, ogei, berrogei urte nekepean bizi izateak...
gero zerua beti-betiko ba´daukagu?

Eta batez be, “sariagaitik” baiño geiago,
¿zer ardura dautso nekeak eroateak,
Jesukristo gure Jauna poztearren eta bere naia betetearren,
Beragaz antxe josita, pekatu-ordaingarriztat eroaten ba´doguz?,
berba baten: ¿Mitasunez eroaten ba´doguz?...

183 Begiak! Gaiztakeria asko sartzen dira biotzean begietatik.
–Dabid´enaren antzeko oar-ikaspen bai ugari!... (cfr. S 2ª, 11, 2-3).
–Begiak gordeten ba´dozuez,
ondo zainduta egongo dira zuen biotzak.

184 ¿Zegaitik ibili edonora begira,
“zure mundutxoa” zeure barruan ba´daroazu?

185 Munduak ildura itxurati ta ots aundikoak soillik txalotzen dauz,
ixilleko ta ezkutuko ilduraren baliorik ez dau ezagutzen-eta.

186 Osoro eskifñi bear dogu gure burua,
osoro ukatu bear dogu gure burua;
bearrezkoa da oparia erre-opari izatea.

187 Ulergatxa: Bizi izateko, il egin bear.

188 Begira gero!: biotza saltzaille utsa da.
–Zazpi giltzez itxi egizu

189 Jaungoikoagana ez zaroazan guztia,
eragozpen utsa da. Atara ta jaurti egizu urrunera.

190 Olantxe berba egiñerazoten eutsan Jaungoikoak,
nagusi saskar eta asarrekoiaaren menpean bizi zan arima bati:
«Eskerrak, ene Jainkoa, aberastasun zerutar onegaitik!
Izan be, ¿noiz aurkituko dot nire maite-agiriai ostikoaz erantzungo dautsen
beste bat?»

191 Leenengo unetik uko egiozu egunoro zure buruari,
erabagitako orduan bertan jagirik,
alperkeriari miñutu bat be emon bagarik.
Asko irabaziko dozu egun guztirako,
Jaungoikoaren laguntzaz zure burua orretan azpiratzen ba´dozu.
Adore aundia galtzen da, benetan,
leenengo ekiñalditik txepel asiaz!

192 Zu beti azpiratuta.
–Erabagi egizu aldi bakotxean,
izentatutako norbaitentzat zerua, edo santutasuna,
edo apostolutzarako deia jaristea...
Onela, beti irabazle izango zara.

193 Ez zaitez izan motel, bigun.
–Ba-da zure buruaganako erruki merke ori saltzeko ordua.

194 Neuk irakatsiko dautsudaz
gizonaren mundu onetako aberastasunak,
alperrik eralgi ez dagizuzan:
gosea, egarria, beroa, otza, nekea, izen-ona galtzea, txirotasuna,
bakartadea, saldukeria, iraiña, espetxea...

195 «Arimea ta gorputza, bata besteagandik aldendu ezin diran arerio bi,
eta alkar ezin ikusi daben adiskide bi dirala» esan ebanak, ondo asmatu eban.

196 Bidezkoa baiño zerbait gutxiago emon bear yako gorputzari.
Bestela, saldukeriaz ordaintzen dau.

197 Zure makalaldi ta zabarkerien testigu izan ba´dira,
¿zer ardura dautso zure nekebiderearen testigu be izateak?

198 Oneixek dira bere buruari uko egiten dautsanaren ondoren
eta frutu mardulak:
«Besteen utsegiteai buruzko biozperatasuna;
norberari buruzko esku gogorra».

199 Galgarauak, ilten ez ba´da, ez dau garaurik ekarriko (cfr. Jn 12, 24)..
–¿Ez dozu galgarau izan nai?
¿Ez dozuz galburu beteak emon nai, ilduraren bidez ilda gero?
–Jesus´ek bedeinkatu dagiala zure garitza!

200 Arro utsa zarean ezkerro, ez zara ildura-zale,
ez dautsazu zure buruari uko egiten.
–¿Nekebidetik zoazala?
Ez egizu aaztu, arrokeria nekebiderean be aurkitzen dala...
–Geiago: esku-legorkeri ta jausialdi osteko biotzerre ori,
¿egiazko damua ete-da?,
¿ala zure burua orren kaskar eta makal ikusteak damotsun asarrea?
Apala ez ba´zara, oso urrun zagoz Jesus´egandik,
egunoro zure gorputza zigorrez astinduarren be.

201 Ori bai beaztunaren eta ozpiñaren garratza!,
autsaren legor eta latza!

Ori bai agosapai legor, oretsu ta arrakalatua!
—Baiña utsa dirudi sentipen gorpuzkoi orrek,
biotzeko neke-samiñen aldean.

Izan be, “geiago eskatzen dautsue”,
eta zuk ez dakizu emoten.

—Apala izan zaitez:

¿zartada garratz orrek zaurituko ete-leukez zure gorputz-arimak,
aal dozun guztia egin ba'zendu?

202 Zeure borondatez, ¿zigorkada bat emon nai dautsazula zure buruari,
zure argalkeri ta eskulegorkeriagaitik?

—Ederto; baiña zigorkada zuurra izan daitela,
geure anai be ba-dan arerio bati emondakoa lez.

203 Gizon gaisoen pozaldiak zeruagaitik egiñak izanarren,
beti izten dabe samintasun-lorratza.

—¿Zer uste zenduan, ba?

—Emen beean, nekea da gure bizitzaren gatza.

204 Askok be askok itziko leukee euren burua untzez gurutzeratzen,
arrituta begira dagozan millaka ta millaka gizonen aurrean...

eta ez dakie egunoroko orratz-ziztadak kristaukiro eroaten.

—Ausnartu egizu, ba, zer ete-dan gatxago ta aundiago.

205 Irakurri genduan —biok— Jaungoikoaren zerbitzari zintzo aren
bizikera arrigarri ta laua.

—Ikusi genduan, gosari-aldian, illabete ta urte osoetan erabillen burrukea:
gaur garaitzaille, biar menpeko...

«Ez dot artu guriñik... artu dot guriña!», idazten eban:

—banako azterketaren “zenbaketa” zeatza!—.

Zeuk eta neuk be, “guriñaren” gure burrukea bizi izango al-dogu!

206 Miñutu indarduna. —Jagiteko ordu-ordua da.

Ezbai bagarik: gogapen santu bat, eta... gora!

Miñutu indarduna: orra or, naimena sendotzen dautsun
eta gorputza makaltzen ez dautsun ildura bat.

207 Eskertu egizu, aparteko mesede bat lez,
zeure buruarentzat dozun gorroto santu ori.

NEKEBIDEA

208 Bedeinkatua izan bedi samiña. —Maitatua samiña.
—Santutua izan bedi samiña... —Goratua samiña!

209 Neke-jakintza erraz ikasteko bide erosoan,
San Paulo Apostoluak irakasten daskuna:
«geroko itxaropenaren pozez; atsekabea ondo eroan;
ekin otoitzari» (Erm 12, 12).

210 Oben-ordaiña: auxe da Bizitzara daroan bidezidorra.

211 Lurperatu egizuz, nekebidearen bidez,
zure utsegin, irain eta pekatuak,
zure apaltasunak egindako zulo sakonean.
—Orrelaxe lurperatzen dauz nekazariak be
frutu ustel, abar igar eta orbelak, zugatzaren ondoan.

—Eta, leen elkor utsa zana,
obeto esan, kaltegarri be ba-zana,
gero ugaritasun barri baten indargarri biurtzen da.

Ikasi egizu, jausialdietatik indarra
eta eriotzatik bizitza ataraten.

212 Zuk ikusten dozun Kristo ori, ez da Jesus.
—Geienez, zure begi lausotuak sortzen dautsuen irudi kaskar bat da...
Garbitu zaitez. Garbitu zure begiak apaltasunaz eta nekebidez.
Gero... ez zara Maitasunaren argi bizi bagarik geratuko.
Argi betean ikusiko dozu.
Jesus'en irudi bizi izango zara: Jesus berbera!

213 Aitaren naia betetearren eltzen dautso Jesus'ek nekeari...
Zeuk be Jaungoikoaren gogo santua bete nai dozu,
Irakaslearen [Jesus'en] bideari jarraiturik.
¿Eta zinkurinka zabiz, zure bidean nekea aurkitu dozulako?

214 Esan egiozu zure gorputzari:
“Naiago dot, ni zeure morroi izan baiño, zu neure morroi izan”.

215 Laguntaldeak dautsan bildurra pekatuen ordainketari!
Munduaren ederragaitik egiten dabena,
asmoak zuzendurik,
Jaungoikoagaitik egingo ba'lebe...
bai izango litzakezala santu aundi amaika gizon eta emakume!

216 ¿Negar egiten dozu? —Ez izan lotsarik.
Ekin negarrari: gizonak be egiten dabe negar, zeuk lez,
bakartadean eta Jaungoikoaren aurrean.
—«Gabez, nire ogea negar-malkoz bustiten dot»,
diño Dabid Erregeak (Sal 6, 7)..

Negar-malko bero ta gizontsu orrekaz garbitu daikezu
oraiñarteko bizikerea, eta santu biurtu oraingoa.

217 Zoriontsu nai zaitut lurrean.
—Baiña ez zara zoriontsu izango,
samiñaren bildur ori galtzen ba' dozu.
Izan be, "bidez goazan" artean,
samiñean dago, ain zuzen be, zoriona.

218 Bai eder, bizitzagaitik bititza galtzea!

219 Samin orreik —naiz gorputzekoak, naiz arimakoak—
arimearen garbigarri ta zerurako irabazpide dirana ba'dakizu,
bedeinkatu egizuz..

220 ¿Ez deritxazu gauza utsa,
ainbat eskekok limosnea eskatzean edo eskertzean
opa dautsun ondasun lurkoi oni:
«Anai, emon dagitzula Jaungoikoak osasuna»?

221 Gure borondatez pekatuak oparo ordaintzean,
graziz beteko gaitu Jesus'ek,
Berak eskatzen dauskun ordainketa maite dagigun.

222 Zure naimenak zentzunai ordain-bidez eskatu dagitsela,
beste aalmenak otoitzaldian ukatzen dautsena.

223 Bai gutxi balio dauala nekebideak,
etenbagako ildura bagarik!

224 ¿Bildurra emoten dautsu nekebideak?...
¿Betiko Bizitza lortzen lagun egingo dautsun nekebideak?
—¿Ez dozu ikusten, zelan jasaten [eroaten] dabezan gizonak
soin-ebakuntza odoltsu baten neke gorriak,
oraingo bititza kaskar oni eustearren?

225 Zure areriorik aundiena zeu zara.

226 Maitasunez erabili egizu zure gorputza,
baiña ez, arerio saltzaille bati zor yakon baiño maitasun aundiagoz.

227 Zure gorputzari, zeure arerio eta zeure santutasunaren arerio danez,
Jainko-aintzaren arerio dana jakiñik,
¿zegaitik egin orrenbeste biguntasun?

228 «Arratsalde on izan dagizuela»
—esan euskuen, oi danez—;
eta, «ori bai gurari motza!», esan eban arima Jainkozale batek.

229 Jesús, Zeugaz bai dala atsegingarri samiña!,
eta argitsu illunpea!


230 Min dozu biotzean!
—Begira ba: "Berak" be ez dauko biotza guk baiño txikiagoa.
—¿Min dozu? Bai bear be!


231 Barau estua, Jaungoikoari oso begiko yakon nekebidea.
—Baiña, alkarren artean, nasaitu egin dogu barau-legea.
Ez dautso ardura, okerretara baiño:
zuk, zeure Zuzendariaren oneritxiaz,
egizu sarritan barau..

232 ¿Nekebidearen errazoiak?
—Pekatuen zorra, eskabidea, eskerrona, aurrerapidea...:
zeugaitik, neugaitik, enparaduakaitik,
zeure etxeoakaitik, zeure errialdeagaitik, Elizeagaitik...
Eta beste errazoi asko ta asko.

233 Ez egizu zeure Zuzendariak izten dautsun baiño
oben-neke geiagorik egin.

234 Maillarik gorenera jasoten dogu samiña,
espirituaren bizitzan bere lekua
—pekatuen ordain izatea—
emoten dautsagunean.





A Z T E R K E T A

235 Azterketa. –Egunoroko eginbearra.
–Eskuarte irabazpideren bat darabilenari
iñoiz be aazten ez yakon zenbaketa.

¿Eta ba ete-da irabazpiderik,
betiko Bizitzak aifia balio dauanik?

236 Aztertzen asi-aurretik, kontuz deabru mutuagaz!

237 Aztertu zeure burua: astiro, gizonkiro.
–¿Nondik datoz zure umore gaizto ta tristura errazoibageak
—azalez, errazoibageak—?

¿Ez ete-datoz gero, zeure ezin erabagi batetik?
Ondo ikusten dozu eten egin bear zeukela
zure grifak ixil eta maltzurkiro eiotu dautsun
arako ari meea, baiña ari berezi a;
ezin erabagi, ostera...

238 Azterketa orokorra, babes lez da.
–Banakoa, barriz, burrukea lez.
–Leenengoa, burdiñazko babes-iskillo da.
Bigarrena, barriz, ezpata zorrotza.

239 Emon begiratu bat joandakoari.
Baiña... ¿intzirika jardun?
Ez. Intziri utsa alperrekoa da.
–Ikasi bai: ikasiak ekarriko dau frutua-ta.

240 Eskatu egizu argia.
–Bein eta barrero, zustrak aurkitu arte;
gero, burruka-iskilloa —banako azterketa—,
zustar-zustarrean ezarri aal izateko.

241 Banako azterketeaz, doai berezi bat lortzera,
edo zukan agintzen dauan obena itotera
jo bear dozu zuzen-zuzenean.


242 “Kristau nazanez Jaungoikoari zor dautsadana!
Zor orri buruzko nire entzungorkeriak
negar eragin daust naibagez:
Maitasunezko negar. «Bai, pekatari naz!»”.
–Ezagutu dagizuzala zure zorrak:
baiña ez aaztu zelan garbitzen diran:
negar-malkoz... eta egitadaz.

243 «Gauza txikietan zintzoa dana,
aundietan be zintzoa izango da» (Lk 16, 10).
—Lukas Deunaren berbak dira,
eta zeure bide-galtze ugarien zustrara irakasten dautsue
—aztertu zure burua—.

244 Iratzartu zaitez.
—Entzun Espiritu Santuak dirautsuna:
«Arerioak iraindu ba'negi, ondo eroango neuskio iraiña...
Baiña zuk, nire lagun, nire apostolu orrek,
nire maian jesarrita neugaz batera janari gozoak
jaten dozuzan orrek»...! (cfr. Sal 55, 13-15).

245 Bakarraldi-egunetan, zure azterketeak
gaberokoa baiño sakonagoa ta zabalagoa izan bear dau.
—Bestela, zure bizikerea zuzentzeko aukera berezi bat galtzen dozu.

246 Maitasun-egintza bat az
—Maitasunezko damuz—
amaitu egizu beti zure azterketea:
zeugaitik, gizonen pekatu guztiakaitik...
Eta begiratu egizu ondo,
zelako arduraz kendu dautsuzan zeruko Aitak eragozpen guztiak,
jausi ez zaitez.



ERABAGIAK

247 Zeaztu egizu.
—Zure erabagiak ez daitezala "bengala-argiak" izan...,
une bateko itxura diztikorra;
eta gero —egia garratza— ezetako ez dan
eta iguñiez baztarrera jaurtiten dan zotz baltz, gauzaeza...

248 Orren gaztea zara!
—Bideari ekiten dautsan itsasontzia dirudizu.
—Oraingo okerrune txiki ori zuzentzen ez ba'dozu,
ez zara kaira [portura] elduko.

249 Erabagi gutxi artu.
—Erabagi zeatzak artu.
—Eta bete egizuz Jaungoikoaren laguntzaz.

250 «Bai: santu izan nai dot», esan zeustan,
eta isilik entzun neutsun,
erabagi laiflotsu ta arrunt orri
geienetan tentelkeri bat deritxadanarren.

251 «Biar!»: noizbait, zuertasuna da;
sarritan, barriz, menperatuen berbea.

252 Erabagi berezi ta sendo au artu egizu:
norbaitek goratu zagizanean,
zuk zeure lotsagarriren bat gogora ekarri.
Orixe da zurea; aintza ta gorapena Jaungoikoarenak.

253 Zuzen jokatu egizu "orain", "atzokoaz" gomutatu bagarik,
atzokoa joan zan-eta;
eta "biarkoaren" ardura bagarik, zuretzat elduko dan ala ez, ez dakizu-ta.

254 Oraintxe! Biurtu zaitez oraintxe zure bizikera ederrera.
—Iñok ez dagitzula iruzur egin:
"orain" ori ez da goizegi... ezta beranduegi be.

255 ¿Nai dozú "zure bidez" bururatzen yatan guztia esan dagitzudan?
—Begira ba: deiari erantzuten ba'dautsazu,
iñok baiño zintzoago jokatuko dozula Kristo'gaitik;
otoitz-zale biurtzen ba'zara,
erantzungo dautsazula Jaungoikoaren deiari,
eta, zure buruari uko egin-miñez,
lanik neketsuenen billa ibiliko zareala...

Eta zoriotsua izango zara emen
eta guztiz zoriotsua gero, Betiko Bizitzan.

256 Min emoten dautsu zauri orrek.
–Baiña osatzen doa: eutsi zure erabagiai.
Eta miña, laster bake gozo biurtuko yatzu.

257 Are-zakua dirudizu. –Ez dozu zeurez ezer egiten.
Eta orrela, ez dira arritzekoak zure epelkeriaren ezaugarri orreik...
–Iratzartu zaitez!



K E Z K A K

258 Uxatu egizuz, bakea kentzen dautsuen kezka orreik.
–Ez dator Jaungoikoagandik, arimeari bakea galerazoten dautsanik.
Jaungoikoa zeugana etorri daitenean ezagutuko dozu
Jesus'en "agur" arein egia:
«Bakea emoten dautsuet»... «bakea izten dautsuet»...
«bakea zuekaz»... (Lk 24, 36; Jn 14, 27),
eta ori, neke-artean.

259 Oraindiño be kezka orreik!
–Berba egiozu zure Zuendariari lau-lau ta argiro.
Esaneko izan zakioz...
eta ez egin txiki Jaunaren Biotz guztiz maitetsua.


260 Tristurea, kikiltasuna.
–Ez nau arritzen: zeure jausialdiak jasotako auts-laiñoa da.
Baiña, naikoa da!: ¿grazi-aizeak ez al-eban, ba, eroan urrun laiño ori?
Zure tristura ori baztarten ez ba' dozu,
zeure arrokeriaren estalki biurtu leiteke.
–¿Utsezin eta santu zintzazala uste al-zenduan?

261 Ez naastu geiago orrelakorik;
neuk agintzen dautsut.
–Bedeinkatu egizu obeto,
zure arimeari bizi barria emon dautsan Jaungoikoa.

262 Ez gogoratu geiago zure jausialdia.
–Gogapen ori, zapaltzen eta itoten zaituan arlosaz gafiñera,
beste tentaldien arrisku be izan leitekizu.
–Kristo'k parkatu egin eutsun:
aazu egizu leen zintzazan "gizon zaarra".

263 Ez zaitez kikildu. –Ikusi zaitut burrukan...:
zure gaurko ondamera, betiko garaipenerako saioaldia dozu.

264 Ondo jokatu dozu... amildegira jausi ba'zara be.
–Ondo jokatu dozu: makurtu egin zintzazan,
zuzendu egin zenduan zure bizikerea,
itxaropenez bete zintzazan,
eta itxaropenak Maitasunagana erakarri zenduzan barriro.
–Ez egizu, arrituta, lelo-aurpegirik jarri:
ondo jokatu dozu!
–Jagi egin zintzazan lurretik:
«jagi», esan eutsun barriro abots zoli batek,
«eta zoaz!»: orain, lanera! (cfr. Mt 9, 5).



JAUNGOIKOAREN AURREAN

265 Umeak...

Bai zuzen ibiltzen dirala gurasoen aurrean dagozanean!

Eta Erregeen umeak, euren aita Erregearen aurrean,
bai ondo aalegintzen dirala erregetzaren aunditasuna gordeten!

Eta zuk... ¿ez dakizu, ba, Erregerik gorenaren aurrean
—zeure Aita Jaungoikoaren aurrean—
zagozana beti?

266 Ez egizu erabagirik artu,
arazoa Jaungoikoaren aurrean ausnartu bagarik.

267 Bearrezkoa da, Jaungoikoa beti geure ondoan dagoala sinistea.

—Jauna urrun be urrun, izarretatik aruntz bai lego bizi gara,
eta ez dogu gogoratzen geure ondoan be ba-dagoala.

Munduko ama guztiak euren umeak baiño geiago maite dau Jaungoikoak
guretariko bakotxa,

eta aita maitekor baten antzera dago gure ondoan,
laguntzen, goiargitzen, bedeinkatzen... eta parkatzen.

Amaikatxo bidar argitu dogu gure gurasoen bekoki illuna
biurrikeri baten ostean «ez dot geiago egingo» esanaz!

—Bearbada, egun aretan bertan jausi gintzazan barriro...

—Eta gure aitak agiraka egin euskun, gogor-antzean,
abots lodiz eta aurpegi illunez...

Baiña, gure makaltasuna ezagaturik,
biotza samurtu eutsan gogapen onek:

«mutil gizagaisoa, aalegindu beintzat aalegintzen da bide zuzenetik ibiltzen!»

Gure zanetako odol eta arnasa biurtu bear geuke egia mardul au:

«Zeruan eta geure ondoan dagoan Jaun ori,
geure Aita dala, eta guztiz Aita gaiñera».

268 Oitu zaitetz, egun-barruan sarritan Jaungoikoagana
biotza jaso ta eskerrak emoten.

—Ori ta bestea emoten dautsulako. —Iguindu zaituelako.

—Bear dozunik ez daukazulako edo ba-daukazulako.

Zeure Ama dan bere Ama ain ederra egin ebalako.

—Eguzkia ta illargia eta pizti a eta beste landara a egin ebazalako.

—Arako gizon a ain berba-ederreko eta zu orren berba-urri egin zaitualako...

Dan guztiagaitik eskerrak emon egiozuz Jaungoikoari,
dan-dana ona da-ta (cfr. Ef 5, 20; Ts 1^a, 5, 18).

269 Jaunaren etxeko orma edo torreak ikusi ordukoxe,
sartu zaitetz Sagrario-barruan;

ez zaitetz orrenbesteko itsu ta zorabiatua izan.

—Jauna itxaroten daukazu.

Kristo iraintzen dan tokietatik igarotean,
Sortzez Garbiari otoitz-biozkada bat beintzat eskiñi egiozu;
ez zaitetz orrenbesteko itsu ta zorabiatua izan.

270 ¿Ez zará pozten, uriko bideetan zear egiten dozun
egunoroko zure bidean,
¡beste Sagrario bat! aurkitzean?

271 Otoiz-zale batek esaten ebana:
«Asmoetan Jesus izan daitela gure elburu;
sentikizunetan gure Maitasun;
berba egitean gure gai;
egitadetan gure eredu».

272 Erabili egizuz, Jaungoikoaren aurrean bizi izateko irakatsi neutsuzan
“giza-trebetasun” santu orreik:
otoitz-biozkadak, damu ta maitasun-egintzak,
gogozko Jaunartzeak, Andra Maria´ren irudiari “begiratuak”...

273 Bakarrik! –Ez zagoz bakarrik.
Urrunetik izanda be, lagun gaituzu.
–Gaiñera... zure biotzean dozun Espiritu Santuak
—Jaungoikoa zugaz—
izadiz gaiñetiko lorratz garbia damotse zure gogapen, asmo ta egintza guztiai.


274 «Aitá —ziraustan Ikastetxe Nagusiko morrosko ta ikasle jator arek
(¿zer izan ete-zan aretzaz?)—:
zuk esan zeustana ausnartzen niarduan...
“Jaungoikoaren seme nazala!”
eta, kalean zear niñoiala,
gorputza lerden eta barrua arro neroala niñoian...
“Jaungoikoaren seme!”»
“Arrokeri” santu ori beti izan egiala esan neutsan, benetan esan be!

275 Ez dot zure zintzotasunaren ezbaierik.
–Ba-dakit Jaungoikoaren begipean jokutzen dozuna.
Baiña, emen untzea!: giza-legez bakarrik negurtzen dakienak be,
ikusten dabez edo ikusi daikeez zure egitadak...
Eta arei be jarraibide zuzena emon bearrean zagoz.

276 Jesus´egana joteko, astean bein gutxienez
Maria´gaz bat egiten oitzen ba´zara,
Jaungoikoa aurrean askozaz geiago dozula konturatuko zara.

277 ¿Zetako egurrezko gurutze ori?
—itauntzen daustazu—.
Eskutitz batetik jasoten dot erantzuna:
«Nire begiak, mikroskopiotik jasotean,
Gurutze baltz eta uts bat ikusten dabe aurrean...
Gurutzeratu bagako Gurutze ori, irudi bat da niretzat.
Enparaduak ikusiko ez daben esanai bat aurkitzen dautsat nik.
Eta, aspertuta, lana bertan-beera izteko egoanak,
barriro be mikroskopioari lotzen dautsaz begiak:
Gurutze bakartiak, bera jasoko daben sorbaldak nai dauz».

278 Bizi zaitetz Jaungoikoaren begipean,
eta grazi-bizikerearen jabe izango zara.



IZADIZ GAIÑETIKO BIZIKEREA

279 Begirapen laua, lurrari josita eta luze-zabalera bakarrik ikusten dauana dauko laguntaldeak.

–Grazi-bizikereari eldu dagiozunean,
Jaungoikoagandik irugarren alderdia lortuko dozu:
goibee, eta, orreaz batera, sartu-urtenak, astuntasuna eta loditasuna.

280 Zure bizitzaren goi-zentzuna galtzen ba' dozu,
zure goimaitasuna filantropi biurtuko da;
zure garbitasuna, itxura uts;
zure laztasuna, ergelkeri;
zure zigorra, zarta;
eta zure egintza guztiak, agorrak.

281 Isiltasuna, barru-bizikerearen atezaiña lez da.

282 Arritzekoa: jakintsu izatea baiño santu izatea jaristea errazago da;
baiña santu izatea baiño jakintsu izatea errazago da.

283 Zentzunak askatu.

–Zentzunak askatu-bearra dozu!...
begiak guztiz zabaldurik,
gauzen irudiak erraz sartu dakizuzan,
edo erdi-itxirik, ikusmen motzekoa ba'zara...


Itxi egizuz begiak zearo!: lotu zakioz barru-bizikereari,
eta mundu barri ta obearen aunditasuna bete-betean,
bere kolore ta sartu-urten arrigarrian ikusiko dozu;
eta Jaungoikoagaz berba egingo dozu...
eta zeure makaltasuna ezagutuko dozu...
eta Jaungoikotu egingo zara...
eta zure Jaungoikotze orrek,
zeure Aitagana urreraturik,
zure senide-gizonen senideago egingo zaitu.

284 Guraria: ni ona izan nadilla,
eta enparaduak ni baiño obeak.

285 Onbideratzea une bateko gauzea da.
–Santukuntza, bizitza osoko lana.

286 Ez dago munduan Jaungoikoaren grazian bizi izatea baiño gauza oberik.

287 Asmo garbia. –Beti izango dozu, beti ta gauza guztietan,
Jaungoikoari atsegin izatea bakarrik billatzen ba' dozu.



288 Sartu zaituz Kristo Gurutzetuaren zaurietan.
 –Antxe ikasiko dozu zure zentzunak gordeten;
 eta barru-bizikerearen jabe egingo zara,
 eta zure ta gizon guztien zorren ordaiñez
 Jesus eta Maria´ren nekeak eskiñiko dautsazuz etenbaga [zeruko] Aitari.

289 Jaunaren zerbitzuan darabizun artegatasun santu orrek
 ez dau Jaungoikoa naibagetzen.
 –Baiña agorra izango da, egunoro obetzen doan bizikereak
 lagun egiten ez ba´dautso.

290 Zuzendu. –Egunoro zerbait.
 –Orixe da egunoroko zure egikizuna,
 benetan santu egin nai ba´dozu.

291 Santutzera beartuta zagoz. –Zeu be bai.
 –¿Nok uste dau, arazo au abadeena ta praille-mojena bakarrik danik?
 Iñor bereiztu bagarik, guztioi esan euskun Jaunak:
 «Zuek bikaiñak izan bear dozue,
 zeruan dagoan zuen Aita bikaiña danez» (Mt 5, 48)..

292 Zure barru-bizikereak, ain zuzen be,
 orixe izan bear dau: asi... eta barrero asi.

293 Barru-bizikeran, ¿ausnartu dozu astiro,
 une bakotxean gogo barriz Jaunaren “zerbitzuari” lotzea dan ederra?

294 Ez ziran agiri, edurrez estaldutako landarak.
 –Eta nekazariak, soloaren jabeak, auxe iñoan pozez beterik:
 «Orain, barrura azten diardue».
 –Zeu ekarri zendudazan burura:
 zure naitaezko geldi-egote orretan...
 –Esan egidazu: ¿zeu be barrura azten diarduzu?

295 Aundiki izanarren, zure buruaren jaun ez ba´zara,
 zure jauntzak kezka ta barregurea damost.

296 Gogorra da Ebanjelio Santuak dakarren Pilato´ren itauna:
 «¿Nor nai dozue askatu dagitzedan,
 Barrabas ala Kristo deritxoen Jesus ori?» (Mt 27, 17).
 –Gogorragoa oraindiño erantzuna: «Barrabas!»
 Eta ikaragarriagoa oraindiño, sarritan!,
 nire bidetik okertzean,
 neuk be «Barrabas!» deadar egin dodala,
 eta, «¿Kristo´ri zer?...»
 «Gurutzeria ori!», esan dodala gaiñera (cfr. Mt 27, 17-23).


297 Oraingo arduratzen zaituan guzti orrek,
 ba-dau gutxi-asko bere garrantzia.
 –Baiña, zure burua zoriontsu egitea, zeruratzea,
 orixe da osoro garrantzitsua zuretzat.


298 Argi barriak! –Ori da poza zurea, Jaunak "Mediterraneo" barri bat
 aurkituerazo dautsulako!

–Baliotsu egizuz une orreik:
 esker-abesti bat kantatzeko aldia da;
 eta gaiñera, zure biotz-txokoetako autsak astintzeko aldia,
 oitukeriren bat urratzeko ordua,
 asmo zerutarragoz jokatzeko aldia,
 lagun-urkoari galbideren bat kentzeko ordua...
 Berba baten: zure eskerrona erabagi zeatz biurtzeko aldia.

299 Kristo zeugaitik il da.
 –Zuk... ¿zer egin bear dozu Kristo´gaitik?

300 Bizitzak irakatsi dautsunak
 —orrenbeste zure lazkeri, eziñegon eta samiñek—
 ondotoxoz bizierazoten dautsu Jesus´en berba arein egia:
 «Ugazaba biren morroi ezin iñor izan daiteke batera!» (Mt 6, 24).





BARRU-BIZIKEREAZ GEIAGO

301 Ixilpeko bat. –Guztiak dakien ixilpeko bat:
munduaren makalaldi oneik, santuai buruzko makalaldiak dirala.
–“Bere” gizon-taldea nai dau Jaungoikoak giza-lanbide bakotxean.
–Gero... «Kristo´ren bakea Kristo´ren erreñuan».

302 Zure Gurutzea. –Kristau zarean ezkerro,
zure Gurutzea beti zeugaz eroan bear zeuke.
Eta zeure lan-maian euki.
Eta mun egin ogeratzean eta iratzartzean;
eta, zure gorputz gaisoak arimeari eraso egin dagionean,
Gurutzeari mun egin barriro be.

303 Ez egizu bildurrik izan
Jaunari bere izenez —«Jesus»— dei egiteko eta maite dozula esateko.

304 Aalegindu zaitetz egunoro lortzen,
barru-bizikerarako ain bearrezkoa dan bakartade bedeinkatu orri
miñutu batzuk eskintzeko.

305 «Lautasuna santutasunaren gatza lez da
—idatzi daustazu—.
Eta orixe da niri palta yatana.
Baiña eskuratu egin nai dot Jaunaren eta zure laguntzaz».
–Ez yatzu Aren eta nire laguntzarik paltako.
–Egin zeuk bitartekoa.

306 Aspaldi danik esan eban Job´ek:
«Gizonaren bizitza lurgaiñean, gudari-bizitza da» (cfr. Job 7, 1)..
–Ba-dira oraindiño orren barri ez dakien lotiak.


307 Zure jokabide zerutar ori, benetako gudu-taktika da.
–Barru-bizikerako egunoroko zure buruketan,
arerioaren erasoari biotzaren torrerañño eldu bagarik,
kanpoko esian gogor egiten dautsazu.
Antxe erasoten dautso arerioak:
zure laztasun txikiari, egunoroko zure otoitzari,
zure lanketa eratsuari, zure bizibideko arauari;
eta naikoa lan izango dau, zure barru-barruko gaztelu argaleragiño eltzen.
–Eta eltzen ba´da be, adore bagarik eltzen da.

- 308** Zeuk idazten daustazunetik artzen dot:
«Neure poza ta neure bakea. Bakerik ez ba´dot,
ez naz iñoiz be egiazko alaitasunaren jabe izango.
¿Eta zer da bakea? Guduaz zerikusi estua daukan zerbait da bakea.
Garaipenaren ondorena da bakea.
Bakeak burruka etenbagera beartzen nau.
Burruka bagarik ezin izan daiket bakerik».
- 309** Jainko-zuzentasunaren errai errukiorrak!
–Munduko epaitegietan, bere gaiztakeria autortzen dauanari,
zigorra emoten yako;
Jaungoikoarenetan, ostera, parkamena.
Bedeinkatua Autortzako Sakramentu santua!
- 310** «Jantzi zaitzeze Jesukristo Jaunaz» (Erm 13, 14),
zirautsen Paulo Apostolu Santuak Erroma´koai.
–Autortzako Sakramentuan jazten gara, zu ta ni,
Jesukristo´z eta beronen irabaziz.
- 311** Guduak! –«Munduak ezagutzen ez dauan egikizun zerutar bat dauko
guduak —diraustazu—: geuretzat izan da guduak...»
–Bide errazaren areriorik aundiena da guduak.
–Orrela be, azkenean, maitatu egin bear izango dogu,
erlejiosoak bere zigor-ugelak maite bear dauzanez.
- 312** Jauná, zure izenak bai daukala indarra!
–«Jesus´ek gorde zagizala», asi neban nire eskutitza, oi dodanez.
–Eta auxe erantzun dauste:
«Zure eskutitzeko “Jesus´ek gorde zagizala!” orrek,
arrisku ederretik atara nau!
Zuek guztiok be Berak gorde zagiezala!»
- 313** «Jaunak, beti lez, esku-zabalez lagun egiten daustan ezkerro,
era “zintzoagoz” erantzuten aaleginduko naz», esan zeustan.
–Eta nik ez neban geiago esan-bearrik.
- 314** Idatzi neutsun, eta auxe nirautsun:
«Zeu zaitut nire euskarri; zeuk ikusi zer egin bear dogun...»
–¿Zer egingo genduan, ba, uste osoa beste Aregan [Jaunagan] jarri baiño?
- 315** Misiñolari. –Misiñolari izateaz egiten dozu amesetan.
Xabier´en antzeko biotz-dardarak daukazuz:
eta erreñu oso bat irabazi nai dozu Kristo´rentzat.
–¿Japon, Txina, India, Errusia... Ipar Europa´ko errialde otzak, edo
Amerika, edo Aprika, edo Australia?
–Bitzu egizu, bizkortu egizu zure biotzeko sugar ori, arima-egarri ori.
Baiña ez aaztu misiñolariago zareala “besteren esaneko izanik”.

- Misiño-lurraldeetatik urrun biziarren,
jo ta ke diarduzu lanean “an” eta “emen”:
¿ez yatzuz iñoiz Xabier´i lez,
ainbat bateatuta gero, besoak nekatuta jausten?
- 316** Baietz diraustazu, nai dozula.
–Ederto! Baiña, ¿diruzale batek bere urrea nai dauanez nai dozu?,
¿ama batek bere semea maite dauanez?,
¿aundizale batek ospea,
edo atsegin-zale batek bere atsegiña nai dauanez?
–¿Ezetz? –Orduan, ez dozu nai.
- 317** Buru-belarri aalegintzen dira gizonak lur onetako arazoetan:
ospe-zalekeri, aberastasun-gose, buruauste lizun!
–Gizonak eta emakumeak, aberatsak eta beartsuak, zaarrak eta gizon elduak,
eta gazteak eta umeak be bai...: guztiak bardin!
–Zuk eta nik gure arimako gaietan aalegin ori jarri dagigunean,
sinismen bizi ta eragille baten jabe izango gara;
eta ez dogu garaitu-eziñezko eragozpenik aurkituko
gure apostolutza-bidean.
- 318** Kirol-zale zarean ezkerro, ba-dau zuretzat mamin ederrik naikoa
Apostoluaren errazoi onek:
«¿Ez dakizue, ba, nor-ariñagoka diarduenak,
guztiak arin egiñarren,
saria batek bakarrik jasoten dauana?
Saria irabazi aal dagizuen,
abiadan joan zaitzeze, ba.» (Ko 1ª, 9, 24).
- 319** Batu zaitetz zure barruan.
–Billatu egizu Jauna zukan, eta entzun egiozu Berak dirautsuna.
- 320** Bizkortu egizuz gogapen jator orreik,
gurari santu ta asi-barri orreik...
–Txinparta batetik gar aundia sortu daiteke.
- 321** Apostolu-biotza: Jesus´ek zuri dautsun kutuntasun orrek
—ainbeste urtetan eta ain Aren ondoan—,
¿ez dautsu ezer esaten?
- 322** Egia da, nik beti gure Sagrarioari “Betania” esaten dautsadana...
–Jesus´en adiskideen adiskide egin zaitetz
—Lazaro, Marta, Mari´ren adiskide—.
–Eta ez daustazu barriro itanduko,
zegaitik esaten dautsadan “Betania” gure Sagrarioari.

- 323 Zuk ba-dakizu "Ebanjelio-burubideak" dagozana.
 -Orreik betetea, maitasun-agiririk gorengoena da.
 -Banaka batzuen bidea dala diño.
 -Askoren bide be biurtu daitekela pentsatzen dot nik batzuetan.

- 324 «Gizon orrek, etxea egiten asita, ezin amaitu izan eban!» (Lk 14, 30).
 Berba illunak! Nai ez ba' dozu, oster, ez dira zuretzat esango;
 zure santutasun-etxegintza burutzeko bide guztiak eskuan dozuz:
 Jaungoikoaren laguntza ta zeure naimena.



I K A S K E T A

- 332 Jakintsu izan daitekenari,
 ez dautsagu jakintsu ez izaterik parkatzen.

- 333 Ikasketa. -Menpetasuna:
 «Non multa, sed múltum»: Gai asko ez, sakonkiro baiño.

- 334 Otoitz egiten dozu;
 zure buruari uko egiten dautsazu;
 apostolutzako milla gaitan sama-samaragiño sartuta zagoz...
 baiña ez dautsazu ikasketeari ekiten.
 -Aldatzen ez ba'zara, ez dozu balio!
 Ikasten jardutea, lanbide-gertakuntzan aalegiñak egitea,
 eginbear nagusia da gure artean.

- 335 Ordubeteko ikastaldia, ordu beteko otoitza da gaurreguneko
 apostoluarentzat.


- 336 Jaungoikoa zeure adimenaz otseindu bear ba' dozu,
 ikastea eginbear nagusi bat da zuretzat.

- 337 Sarritan artzen dozuz Sakramentuak, egiten dozu otoitz, garbia zara...
 eta ez dozu ikasten...
 -Ez esan niri ona zareanik: onbera bakarrik zara.

- 338 Leen, giza-jakintza oso laburra zan,
 eta gizon jakintsu bat bakarrik naikoa zala zirudian
 gure Sinismen Santuaren alde bear zan guztia egiteko.
 Gaurreguneko jakintzak artu dauan zabalera ta indarraz,
 lana apolojista guztien artean banatu-bearra dago,
 jakintza-sail guztietan Elizearen alde egin aal izateko.
 Zuk... ez daukazu eginbear ori bertan-beera izterik!

- 339 Liburuak: ez egizuz erosi,
 kristau on, jakitun eta zentzundun baten eritxirik eskatu bagarik.
 -Alperreko ta kaltegarri dan zerbait erosi zeike.
 -Ainbat doaz or, besapean liburu bat daroelakotan...
 eta zaborreri-sorta bat baiño ez daroe!

- 340 Ekin ikasteari. -Arduratsu ikasi egizu.
 -Gatz eta argi izango ba'zara,
 jakintza ta gaitasuna bear dozuz.
 Ala, alper eta burukoi zarealako,
 ¿jakintza zerutik etorriko yatzula uste dozu?



IKASKETA

332 Jakintsu izan daitekenari,
ez dautsagu jakintsu ez izaterik parkatzen.

333 Ikasketa. –Menpetasuna:
«Non multa, sed múltum»: Gai asko ez, sakonkiro baiño.

334 Otoitz egiten dozu;
zure buruari uko egiten dautsazu;
apostolutzako milla gaitan sama-samaragiño sartuta zagoz...,
baiña ez dautsazu ikasketeari ekiten.
–Aldatzen ez ba´zara, ez dozu balio!

Ikasten jardutea, lanbide-gertakuntzan aalegiñak egitea,
eginbear nagusia da gure artean.

335 Ordubeteko ikastaldia, ordu beteko otoitza da gaurreguneko
apostoluarentzat.

336 Jaungoikoa zeure adimenaz otseindu bear ba´dozu,
ikastea eginbear nagusi bat da zuretzat.

337 Sarritan artzen dozuz Sakramentuak, egiten dozu otoitz, garbia zara...
eta ez dozu ikasten...
–Ez esan niri ona zareanik: onbera bakarrik zara.

338 Leen, giza-jakintza oso laburra zan,
eta gizon jakintsu bat bakarrik naikoa zala zirudian
gure Sinismen Santuaren alde bear zan guztia egiteko.

Gaurreguneko jakintzak artu dauan zabalera ta indarraz,
lana apolojista guztien artean banatu-bearra dago,
jakintza-sail guztietan Elizearen alde egin aal izateko.

Zuk... ez daukazu eginbear ori bertan-beera izterik!

339 Liburuak: ez egizuz erosi,
kristau on, jakitun eta zentzundun baten eritxirik eskatu bagarik.
–Alperreko ta kaltegarri dan zerbait erosi zeike.
–Ainbat doaz or, besapean liburu bat daroelakotan...
eta zaborreri-sorta bat baiño ez daroe!

340 Ekin ikasteari. –Arduratsu ikasi egizu.
–Gatz eta argi izango ba´zara,
jakintza ta gaitasuna bear dozuz.

Ala, alper eta burukoi zarealako,
¿jakintza zerutik etorriko yatzula uste dozu?

341 Ondo dago ikasteko aalegin ori...
 baiña, beti be, aalegin ori berori
 "barru-bizikerea" jaristeko jarten ba' dozu.

342 Ez egizu aaztu, irakasten dana, irakatsi aurretik,
 norberak "egin" egin bear dauala.
 —«Egiten eta irakasten asi zan» (cfr. Ap 1, 1),
 diño Bibliak Jesukristo'ri buruz.
 Leenen, egin. —Ori, zuk eta nik ikasi dagigun.

343 Ekin lanari.
 —Lanbide-arazoren batek arduratu zagizanean,
 zure arimearen bizikerea obetu egingo da;
 eta gizonago izango zara,
 orain menpean zaukezan txikikeriak bertan-beera itziko dozuz-ta.

344 Irakasle: aalegin ikusgarria jarten dozu zure ikasleai irakasteko
 biderik errazena zeuk ikasi ta erabilten;
 aalegin ori berori izan dagizula,
 santutasun-bidea ikasi ta erabilten be:
 izan be, orixe da areik eta zuk kristauagoak izateko dozuen bide bakarra.

345 Kultura, kultura! —Ondo da: ez daitela iñor izan gu baiño geiago
 kultura-zale ta kulturadun.
 —Baiña, kultura ez da jomuga, jobide baiño.

346 Ikasle: ezi zure burua Jainkozaletasun sendo ta bizkorrean;
 nabarmendu zaitez ikasten;
 eta ikutu begi zure biotza zure maillako apostolutza-egarriak.
 —Eta agintzari au egiten dautsut:
 erlejiño ta jakintza-kultura eder orren bidez,
 zabalkunde bizkor eta aundiak izango dozuz.

347 Zeure kulturea osotzeak arduratzen zaitu.
 —Baiña bearrezkoa da arimako etxegintza osotzea be.
 —Orrelaxe jardungo dozu bear dan lez lanean, Kristo'gaitik:
 Kristo munduko Errege izan daiten:
 begiak zeruan josirik, lanbide guztiai eltzen dautseen gizon entzutetsuak
 bear dira;
 ogibide bakotxari dagokion apostolutza ixilla —eta egiazkoa—
 egin daikeenak.

348 Zure alperkeria, zure zabarkeria, zure kankaillukeria,
 koldarkeria ta nasaikeria baiño ez dira
 —zure barruak etenbagarik orixe diño—;
 baiña "ez dira bide".

349 Eritxi zuzena emon ba' dozu, nasai geratu zaitez,
 norbait bere maltzurkeriaz artegatuarren be.
 —Aren artegatasuna parisaitarra da.

350 Ez da naikoa jakintsu ta kristau on izatea.
 —Zure izakerearen baldarkeriak leuntzen ez ba' dozuz,
 zure kristau-leia ta jakintza ezikera on bataz buztartzen ez ba' dozuz,
 ez dot uste santu izan zaitekezanik.
 —Eta, jakitun ba' zara, orrela izanarren,
 mandoa lez aska bati lotuta egon bear zeuke.

351 Aundi-uste itxura orregaz gogaikarri ta lagun gutxidun biurtzen zara,
 barregarri izten dozu zure burua,
 eta, okerrago dana, indarra kentzen dautsazu zure apostolutzari.
 Ez egizu aaztu, "txepelak" be jakintsuegiz uts egin daikeela.

352 Zeure gutxi ikusiak dakartsu arrokeri ori, aundi-uste ori,
 garrantzi-itzalez estaltzen zaituala uste dozun zer ori.
 —Zuzenbideratu zaitez, mesedez.

Txepel izanarren, aginte-maillaren bat lortzera eldu zaitekez
 (bein baiño geiagotan jazo da),
 eta, orduan orretarako naikoa gai zareala uste izaten ba' dozu,
 burubide-jataille doaidunai ez dautsezu entzun nai izango.
 —Bildurrak emoten dau zure aginte ganorabageak orrela egin daiken kaltea
 gogoratzeak.

353 Ez alde, ez aurka. Ez ezker, ez eskuma...
 Beti gatzetu nairik dabizan ipuin zaarrak.
 ¿Gogoratu dozú, zein zoroa dan katoliku izatea alde batera iztea,
 Unibertsitatean edo Lanbide-Alkartean edo Jakintza-Batzarrean edo-ta
 Parlamentuan sartzean,
 ate-ondoan txapela iztea ba' litz lez?

354 Astia ondo erabili egidazu.
 —Gogoan izan Jaunak madarikatutako pikondoa.
 Zerbait egiten eban: orriak ekarri... zeure antzera...
 Ez egidazu esan atxakirik daukazunik.
 —Jauna piku-billa urreratu yakonean, piku-sasoia izan ezarren
 —Ebanjelariak berak diño—,
 pikondoari ez eutsan balio izan...
 —Eta igartuta geratu zan betiko (cfr. Mk 11, 13-14 eta 20-22.)

355 Astia urrea dala diño giza-arazoetan diarduenak.
 —Gutxi deritxat: arima-arazoetan diardugunontzat,
 astia "zerua" da!

356 Ez dakit zelan buztartzen diran zure kristau-izena eta zure bizikera alper eta gauzaez dan ori.
—¿Aaztu egin yatzu Kristo´ren bizikera neketsua?


357 «Pekatu guztiak leenengo alperraldiari itxaroten dagozala dirudi», esan daustazu

—Alperkeria bera da naikoa pekatu...!

—Kristo´gaitik lanean diarduanak, ez leuke geldiunerik izan bear: izan be, atsedena ez da ezer ez-egitea, aalegin gutxiago eskatzen daben arazoetan arnas-barritzea baiño.

358 Ezin sinistu daiteke, egiazko apostolu dan gizona alperkeritan bizi izaterik.

359 Emon egiozu zio zerutar bat egunoroko zure egikizunari, eta lanbidea santutu egingo dozu.



E Z I E R A

360 Barre egiten zenduan jatorkiro zuk, zure urte gordiñak Errapael Deunaren babespean jarteko esan neutsunean!:
«Tobias gaztea lez, andrazko on, eder eta aberats bategaz ezkontzera eroan zagizan» (cfr. Tob 5-8)
—esan neutsun txantxetan lez—.

Baiña gero, bai geratu zintzazala pentsakor!, Jaunak zerbait geiago eskatuko ete-eutsun-edo, zure burua Apostolu gaztearen —San Joan´en— babespean be jarteko esan neutsunean.

361 Mormoxetan diarduzu zure barruan, gogortxo artzen zaituelako, zure etxeakoak artuko ez zendukiezan lez...

Zeuretzat doaz alferez osagille baten eskutitzetik jasotako lerrook:

«Jokabide bi emon daitekez zaurituaren aurrean:

bata, osagille zintzoaren jokabide otz eta burutsua, baiña onurakorra; eta bestea, etxekoen geldokeri negartia...

¿Zer jazoko litzake zauri-etxean

—gudaketa-bitartean—

parrastaka datoza zaurituak, bear baizen arin laguntzerik ez dabela, pillatzen diranean, oge bakotxaren inguruan etxeakoak ba´legoz?

Dana bertan-beera itzita, arerio-artera joatea obe!».

362 Ez daukat mirari-bearrik:

naikoa dodaz Bibliakoak.

—Eginbearrari buruzko zure zintzotasuna eta graziari buruzko zure erantzuna, orixe da bear dodana.

363 Kikilduta. —Ego-moztuta zatoz!

Irakaspén bat emon dautsue gizonak!

—Ez zenduzala bear uste eben areik, eta eskintzak agertzen ebezan.

Baiña, zuri diru-laguntza emon bear izango eutsuelakotan egon diranean

—txanpon lizun batzuk baiño ez—,

adiskidetasuna zearo oztu egin yake.

—Jarri zure ustea Jaungoikoagan bakarrik, eta, Aren bidez, zeugaz alkartuta dagozanakan.

364 Oi!, zure aundi-nai, zure arropuzkeri ta zure atsegiñen alde aalegintzen zarean ardura berberaz...

Jaungoikoaren zerbitzuan aaleginduko ba´zintzaz!

365 Zugan buruzagi izateko griñarik somatzen ba' dozu, auxe izan bedi zure naia:
anaiakaz azkenengo izan zaitez; enparaduakaz, leenen.

366 Ikusi dagigun: ¿iraiñik egiten yatzu zuri, arek edo bestek zugaz baiño artuemon geiago ba' dau, leenagotik ezagutzen ebazanakaz, edo-ta txeraz, lanbidez eta izakeraz antzekoago yakoanakah?
—Alan be, galerazo egizu ardura aundiz zuretarren artean, bakarkako adiskidetasun-itxurea bera be.

367 Janaririk gozoena ta aukeratuena, txarri batek ("parkatu" bagarik, onelaxe deritxo-ta), txarri batek jan ezkeru, geien be txarriki biurtzen da!
Aingeru izan gaitez, gure burutasunak, geure barruan ausnartzean, "duingarri" biurtu daitez.
—Gizon izan gaitez gutxienez, jandakoa giarra bikain eta eder biurtu dakigun; edo bearbada... Jaungoikoa ulertzeko ta gurtzeko gai dan garuntegi indartsu.
—Baiña... ez gaitez abere izan, asko ta askoren antzera.

368 ¿Gogait egiten dozu?
—Izan be, zentzunak iratzarririk daukazuz eta arimea lotan.

369 Kristo' ren maitasunak amor-emote jator-jatorretara beartuko zaitu.
—Eta, sarritan, Jesukristo' ren maitasun berberak ukatze jator-jatorretara be beartuko zaitu.

370 Gaiztoa ez ba' zara —eta orrela emoten dozu—, leloa zara.
—Eta lelokeri ori —gaizpide-arria— gaiztakeria bera baiño okerragoa da.

371 Euren arazoetan izen txarrekoak diranak, beste iñor baiño Jainko-zaleagoen itxurak egiten diarduenean, orrein belarrira auxe esateko gogoia eltzen yatzue, aurki:
«Arren, ez zaitezela izan orren katoliku!»

372 Aginpiderik ba' daukazu, ba-daukazuz aginte orretatik sortzen diran eskubide ta betebarrak be.
—Ez zara apostolu, apostolutzagaitik —edo beronen atxakiz— zure arazoak bete bagarik izten ba' dozuz.
Izan be, "gizon-arrantzarako" amurik onena —zeure arazoko izen ona, aurki— galduko dozu.

373 Atsegin dot zure apostolu-deia:
"Atsedan bagarik lan egin!"

374 ¿Zegaitik larritasun ori?
—Ez egidazu esan lan-egitea danik: itsukeria, obeto.

375 Gogo-nasaikeria.
—Zure zentzun eta aalmenai edozein osiñetik edaten izten dautsezu.
—Orrelaxe zabiz gero:
aldakor, oarmena edonora begira,
naimena lo, eta atsegin-gosea iratzarririk.
—Biurtu zaitez benetan, kristau-bizikerea beterazoko dautsun jokabide batera;
bestela, ez dozu onuragarri danik iñoiz be egingo.

376 «Aundia da inguruak gudan daukan indarra!»
—esan daustazu—.
—«Egia», erantzun bear izan dautsut.
—Orregaitik, ondo ezita egon bear dozue zuen inguru ori jator-jator eroateko, orrela gizarteari zeuen "lorratza" ezarri dagiozuen.
—Eta espiritu-giro orren jabe egiten ba' zara, orduan bai, Apostoluak Kristo' ren izenean egindako leenengo mirariak ikustean lez, zeuk be "arri ta zur" esango daustazu:
«Aundia da guk inguruan daukagun indarra!»

377 Eta, ¿zelan jadetsiko dot "gure eziera" ori?, eta ¿zelan zainduko dot "gure espiritu" ori?
—Zure Zuzendariak emon, azaldu ta maiterazo dautsuzan arauak beteaz: ekin bide orretatik, eta apostolu izango zara.

378 Ez zaitez ezkor izan.
—¿Ez dakizu, ba, jazoten dan guztia, edo jazo daiteken guztia, onerako dana? (cfr. Erm 8, 28).
Zure baikortasuna zeure sinismenaren ondorena izango da.

379 Berezkotasuna. —Zuen kristau-bizikerea —zuen gata ta zuen argia—, zaldun eta emakumeok, geldokeri ta umekeri bagarik, berez dariona izan daitela: eroan egizue beti zuekaz lautasun-espirtua.

380 «Eta nire inguruko bizi-giro jentil-antzeko edo jentillak, nire bizikereaz topo egitean, ¿ez dau eraskin irudiko nire jatortasun orrek?», itandu daustazu.
—Eman nire erantzuna: zure ta arein bizikerea alkar joko dabe, aurki; eta alkar-jote orretan dago, ain zuzen be, sinismena egitez sendotzen daualako,
nik eskatzen dautsudan jatortasuna.

381 Ez egizu ardurarik izan guztiok alkar-artuta gagozala ba' dirautsue.
¿Zer nai dabe? ¿Gure burruka-bitartean zati bi egingo dan iskillu [arma]
urtugarri bat izatea?

382 Jesus'en "Historia" a zuri opariz emotean,
eskintza-antzer auxe jarri neban:
«Kristo billatu dagizula: Kristo aurkitu dagizula: Kristo maite izan dagizula».
—Iru ekiñaldi garbi dira.
¿Aalegindu zara, gutxienez leenengoa bizi izaten?

383 Kili-koloka ikusten ba'zaitue... eta agintari ba'zara,
ez da arritzekoa menpetasuna makaltzea.

384 Naaste-borraste.
—Zure erizpide zuzena, ezbaika ebillela jakin neban.
Eta, ulertu nengizun, auxe idatzi neutsun:
«Deabruak aurpegi guztiz itxusia dau,
eta, ainbeste dakian ezkerro,
ez dau adarrik erakusten. Ez dau aurpegirik emoten.
—Orregaitik, makiña-bat bidar agertzen da jator eta onbide-itxuraz!

385 Auxe diño Jaunak: «Agindu barri bat emoten dautsuet:
alkar maite izan dagizuela.
Onetantxe ezagutuko dabe guztiak neure ikasle zareena» (Jn 13, 34-35).
Eta Paulo Deunak: «Eroan egizue alkarren nekeak,
eta olantxe beteko dozue Kristo'ren legea» (Ga 6, 2)..
—Nik ez dautsut ezer esaten.

386 Ez aaztu, seme, zuretzat gaitz bakar bat dagoala munduan;
bildur izan bear dautsazun eta grazi-laguntzaz baztatu bear dozun gatxa:
pekatua.



ZURE SANTUTASUN-MAILLA

387 Jaunak eskatzen daukun santutasun-maillea,
iru gauza oneik osotzen dabe:
Zorroztasun santuak, gogortasun santuak eta lotsabagetasun santuak.

388 Gauza bat da lotsabagetasun santua,
eta beste bat lotsabagekeria.

389 Lotsabagetasun santu ori, "umezaro-bizitzaren" agiri bat da.
Umeak ez dauko ezeren ardurarik.
—Bere utsuneak, bere utsune jatorrak ardura bagarik agertzen dauz,
mundu guztia begira egonarren be.

Lotsabagetasun orrek, grazi-bizikerara aldatu ezkerro,
auxe dakar ondoren lez:
«Goratzea, beeratzea...; txaloak jotea, gutxiestea...;
ospea, iraiña...; osasuna, geisotasuna...;
aberastasuna, txirotasuna...; edertasuna, itxusitasuna...
Bai; eta ori... ¿zer?

390 Barre egiozu barregarri ibiltearen lotseari.
—Ez egizu "nok-zer-esangoaren" ardurarik izan.
—Ikusi ta somatu egizu Jaungoikoa zukan eta zure inguruan.
—Orrelaxe lortuko dozu —itxurabagea!—
zaldun kristauaren arduraz bizi izateko bear dozun lotsabagetasuna.

391 Lotsabagetasun santuaren jabe ba'zara,
¿zer ardura dautsu zuri "nok-zer-esan dauan" edo "nok-zer-esango dauan"?

392 Sinistu egizu: beti onena egiten dauana
ez da iñoiz be barregarri.

393 Beti guztioi «bai, bai» esaten diarduan gizonak,
eriotzara bialduko leuke barrero Jesus.

394 Beti amor emotea, egiaren jabe ez danaren ezaugarri ziurra da.
—Gizon batek, eredu-gaietan, izen-on-gaietan, edo Sinismen-gaietan amor
emoten ba'dau,
gizon ori... eredurik, izen-onik eta Sinismenik bagako gizona da.

395 Burrukan ezitako gizon Jaungoikozko arek onelako errazoibideak
emoten ebazan:
¿Ez dodala amor emoten?
Jakiña!, neure bidearen egiak narabil-eta.
—Zu, oster, oso amor-emoille zara...;
¿bi ta bi, iru ta erdi dirala deritxazu?

¿Ezetz?... ¿adiskidetasunez be ez dozu uskeri orretan amor emoten?
 -Izan be —leenengo aldiz—, egiaren jabe zareala uste izan dozu...
 eta neure alderdira etorri zara.

396 Zorroztasun santua ez da negurribagekeria.

397 Zorrotza izan zaitez siniskaietan eta jokabidean.

-Baña jokaeran biguna izan zaitez.

-Galtzairuzko maillukote sendoa, artule bigunez estaldua.

-Zorrotza izan zaitez, baña basati ez.

398 Zorroztasun au ez da zorroztasuna bakarrik,

“zorrotzasun santua” baiño.

Ez dagigin aaztu, “indarrezko beartze santu” bat be ba-dagoala.

399 Norbaitek bere burua il nai dauanean,

guztiak txalotzen gaituela,

aren bizitza lurtarra salbatzeagaitik indarra erabilten ba dogu...,

¿ez dogu gogortasun bardiña —gogortasun santua— erabili bear izango,
 euren arimak zorokiro il nai dabezan ainbeste ta ainbesteren zeruko Bizitza
 salbatzeko?

400 Amaikaxo eriotz egiten dira zuzentasunaren izenean!

-Zuk su-iskilloak salduko ba zenduz

eta norbaitek, zure ama ilteko asmotan,

arma orreitariko baten balioa eskiñiko ba leutsu,

¿salduko ete-zeuskio?... ¿Ez eutsún, ba, balio betea eskintzen?

-Irakasle, periodista, politiko, diplomatiko:
 ausnartu egizue ondo!

401 Jaungoikoa ta azartasuna!

-Azartasuna ez da buruarinkeria. -Azartasuna ez da azarkeria.

402 Ez eskatu parkamena Jesus'i zeure pekatuakaitik bakarrik:

ez egizu maite izan Jesus zeure biotzaz bakarrik...

Ordaindu egiozuz egin dautsoezan, egiten dautsoezan eta egingo
 dautsoezan irain guztiak...;

maite egizu, geien maite izan daben gizon guztien biotz guztien indar guztiaz.

Izan zaitez ausarta: esan egiozu, Mari Madalen, Teresa ta Teresatxo
 Deunak baiño zoratuago zagozala Beragaitik...,
 Agustin, Domingo, Prantzisko, Iñazio ta Xabier Deunak baiño zoroago.

403 Izan egizu oraindiño azartasun geiago;

zerbaiten premiñan egon zaitezanean, ez egizu eskatu,
 betiko “Fiat” [‘Egin bedi’] agotan artuaz (cfr. Lk 1, 38).

Esan egizu: «Jesús, au edo bestea nai dot»;
 orrelaxe eskatzen dabe umeak.

404 Porrot egin dozu!

-Guk ez dogu iñoiz be porrotik egiten.

-Jaungoikoagan jarri zenduan zure uste osoa.

-Gero, ez zenduan itzi aalegiñik egin bagarik.

Sinistu egidazu egia au:

zure irabazia —orain eta orretan— porrot egitea zan.

-Emon egiozuz eskerrak Jaunari, eta ekin barrero!

405 ¿Porrot egin dozula?

-Zuk —ondo dakizunez— ezin egin daikezu porrotik.

Ez dozu porrot egin: gai bat geiago ikasi dozu.

-Aurrera, ba!

406 A bai okerra ta ondamedia!:

gure espiritua galdu egin zenduan.

-Ba-dakizu, zerura diardugunean,

azkenean (dana dala; ¿garaitzaille?, ¿azpiratua?, ba!)

beti be gauza bat aurkitzen dogu: irabazia.

407 Ez dagiguzan naastu agintearen eskubideak eta norberarenak.

- Arei eutsi egin bear yake beti.

408 Sasi-santua, benetako santuaren aldean,

"santu-jataille kokoloa" benetako elizkoiaren aldean lez da: txingotea
 [txorimaloa].

409 Ez dagigun uste, gure santu-onbide-itxurea ezer danik,

oiturazko kristau-onbidez osotuta ez ba doa.

-Erdi-billoizik jantzita, bere burua pitxi dirdiratsuz apaintzea izango
 litzake ori.

410 Zure onbidea ez daitela onoiñen soñuduna izan.

411 Sasi-apostolu askok, euren gogoz izan ezarren be,

on egiten dautsee laguntaldeari ta erriari,

eurak iragarten daben Jesus'en irakatsiaren indarrez,

eurak beteten ez ba dabe be.

Baño, enparaduai irakasten dautseena beteten ez dakiñakaz gogait
 eginda,

benetako buruzagi ta apostolu asko galtzen dira betiko;

eta orretatik datozen kalte itzalak eta benetakoak

ez dira "on" aren bidez kitatzen.

Orregaitik, kristau-bizikera osoa egin nai ez ba dabe,
 ez dabe iñoiz be leenengo erreskadan jarri bear talde-buru lez,
 ez gizon eta ez emakume.

412 Zure maitasun-sua ez daitela argi-txakur izan: ikutzen dauana gar bizi biurtzen ez dauan eta berotzen ez dauan guzur-su, ames zoro...

413 Satanas'en «non serviam» ori [«ez naz zerbitzari izango» ori] ugariegi zabaldu da (cfr. Jr 2, 20).

—¿Zuk ez dozu somatzen gogo bizirik zugan, deadar a baiño ugariago izan daiteken “serviam” bat —edo bardin dana, zerbitzari izango nakizu, zerbitzari zintzo!— borondatezko otoitzaz eta egitadez, egunoro esateko?

414 Au bai tamala!, “Jainko-gizon” bat okertuta!
—Baiña, askozaz tamalgarriagoa da “Jainko-gizon” epel eta munduzale bat!



415 Ez zaitetz tutik arduratu, munduak “garaitu” esaten dauan orretzaz.
—Amaikatxo bidar geratu da azpiratuta garaitzaillea!

416 «Nigandik bananduta, ezin ezer egin daikezue!» (Jn 15, 5).
Argi barria, obeto esateko, Betiko Argia dan Ebanjelioaren ditzira barriak dira berba orreik nire begientzat.

—¿Arritu naikee “nire”... tentelkeriak?

—Nire gauza guztietan Jesus sartu dagidala nik.

Eta, orduan, ez da tentelkeriarik izango nire jokabidean; eta, zuzenago berba egiteko, ez dot aurrerantzean “nire gauzak” esango, “gure gauzak” baiño.



JAINKO-MAITASUNA

417 Ez dago Maitasuna baiño beste maitasunik!

418 Gauzarik apalena ta iguingarriena jasoteko bidea, maite izatea da.

419 —Umea. —Geisoa.

—Berkok idaztean, ¿ez dozue letra nagusiz idazteko gogorik somatzen?
Izan be, arima maiteminduarentzat, umeak eta geisoak Jaungoikoa bera dira.

420 Bai dala gutxi bitzta bat, Jaungoikoari eskintzeko!...

421 Adiskide bat urre-kutxa bat da.

—Orra ba... Adiskide bat!...

Zure ondasunegia dagoan tokian, antxe dago zure biotza (cfr. Si 6, 14; Mt 6, 21).

422 Jesus da zure adiskidea. —Adiskidea.

—Zeurea lako aragizko biotza daukana.

—Lazaro'gaitik negar egin eban, begiratu samur-samurreko begiakaz... (cfr. Jn 11, 33-36).

—Eta Lazaro aiña maite zaitu zeu be.

423 Ene Jaungoikoa, maite zaitut; baiña... irakatsi egidazu maitatzen!

424 Maitasunez zigortzea: orixe da merezi dagienai ezarritako zigorra zeruko maillara jaso aal izateko bidea.

Iraintzen dogun Jaungoikoaren Maitasunak, zigorra oben-ordain biurtu dagiala; lagun-urkoaganako maitasunak, barriz, zigorra osakai osasungarri egin dagiala, eta iñoiz be ez asperkunde.

425 Ene Jaungoikoa, orrenbeste maite nozula jakin, eta, alan be... ez naz zoratu!

426 Kristo'gan daukaguz eredu guztiak: Errege da, Maitasuna da, Jaungoikoa da.

427 Jauná: zentzundun eta negurridun izan naitela gauza guztietan... Maitasunean izan ezik.

428 Maitasunak —giza-maitasunak be bai—
emen ainbeste atsegin emoten ba'dau,
¿zer izango ete-da Maitasuna zeruan?

429 Maitasunez egiten dan guztia
eder biurtzen da eta aundi.

430 Jesús, azkenengo izan naitela gauza guztietan...
eta leenengoa Maitasunean.

431 Ez egiozu bildurrik izan Jaungoikoaren Zuzentasunari.
—Zuzentasuna, Errukia bera baiizen arrigarria ta maitagarria da Jaungoikoagan:
Maitasun-agiri dira biak.

432 Gogoratu egizu munduko gauzarik arrigarriena, ederrena...
adimenari ta naimenari begikoen yakena...
aragiaren eta zentzunen poza dana...

Geiago oraindiño: mundua, eta goian dizdiz egiten daben beste mundu
orreik: Izadi osoa.

—Geiago oraindiño: biotzaren gosea ase daikeen atsegin zoragarri guztiak...

Guzti orrek ez dau ezer balio;

utsa da eta utsa baiño be gutxiago,

aberastasun neurribaga ta benetako pitxi diztiratsu dan nire

—zure!— Jaungoiko onen ondoan!...

Jaungoikoa, bai, baiña beeratua, morroi egiña,

morroikume-antzerá estalpe baten jaio nai izan ebana,

Jose'ren lantegian lan egindakoa,

Nekaldi ta Eriotza lotsagarrian illa...

eta Eukaristi Santuko maitasun-zorabiotan ezkutatua!

433 Maitasunez bizi zaitetz, eta beti irabaziko dozu
—menperatua izanarren be—
zure barru-burrukako Navas eta Lepanto'etan.

434 Itzi egiozu zure biotzari esker-jarioz eta Maitasun-garrez gaiñez egiten,
arerioak jarten dautsuzan sareetatik Jaungoikoaren graziak egunoro
zelan askatzen zaituan ikusirik.

435 «Santua da Jaunaganako bildurra» (Sal 19, 10).
—Semearen aitaganako begirune-bildurra, aurki;
iñoiz be ez morroi-legezko bildurra,
zure Aita Jaungoikoa ez da jauntxo gogorra-ta.

436 Maitasun-damua. —Jauna ona dalako.

—Zugaitik Bere bizia emon eban Adiskidea dalako.

—Zuk daukazun on guztia berea dalako.

—Orrenbeste iraindu dozulako...

Parkatu dautsulako... Berak!... Zeuri!!

—Negar egizu, ene seme, Maitasun-damuz.

437 Ni eriotzatik salbatzearren gizon bat il ba'litiz!...
Jaungoikoa berbera il zan. Eta ardurabaga geratzen naz.


438 Zoro ori!

—Bakarrik zengozala uste zenduan Gotzain-elizatxoan,

baiña ikusi zendudazan, kaliza ta patena konsagratu-barriai mun bat egiten:

Arek [Jaunak], ontzi santu orreitara leenengo aldiz "jatsi" daitenean, mun a
antxe aurkitu dagian.

439 Ez egizu aaztu: Samiflean ezagutzen da Maitasuna.





ALKAR-MAITASUNA

440 Zure lana amaitu dagizunean,
egizu zeure anaiarena be, oni Kristo' gaitik lagun egiñik;
baiña legun eta jator,
bidezkoa baiño geiago egiten dozunik anaiak berak be somatu ez dagian.
—Ori bai dala Jaungoikoaren seme baten benetako onbide biguna!

441 Min emoten dautsu lagun-urkoaren zukanako maitasunik-ezak.
—¿Zenbateragiño minduko ete-dau Jaungoikoa,
Beronenganako zure maitasunik-ezak?

442 Ez egizu iñoren aurkako gogapeni lekurik emon,
aren berbak naiz egintzak errazoi-bidez aretara bultza egiñarren be.

443 Ez egizu kritika gaiztorik egin;
goratu ezin egin dagizunean, isilik egon zaitez.

444 Ez egizu zure anaiaren aurka berba egin,
orretarako errazoi geiegi eukiarren be.
—Zoaz leenen Sagrariora eta gero Abadeagana
—zure Aitagana—,
eta ustu berari be zure barruko samiña.
—Baiña beste iñori ez.

445 Esamesa, apostolutza zikintzen eta moteltzen dauan ugarra da.
—Alkar-maitasunaren aurka doa,
indarrak alperrik ondatzen dauz,
bakea kendu, eta Jaungoikoaganako batasuna galduerazo egiten dau.

446 Zu zeu, orren errukarri izanik,
¿zegaitik arritzen zara enparaduen bear gorriaz?

447 Asko ta askoren bizia zetan igaroten dan ikusita gero
(miiña erabili eta miiña erabili, bere ondoren guztiakaz),
bearrezkoago ta maitegarriago deritxat isilik egoteari.
—Eta ondo ulertzen dot, Jauná, zegaitik eskatzen dozun
alperreko berben ain kontu zorrotza.

448 Egitea baiño esatea errazago da.
—Zu... aizkorea baizen miin zorrotza daukazun ori...,
¿jarri zara noizbait, ustebagarik beiñik bein,
zure eritxi "itzalgarriaren" eredura,
besteak ain ondo egiten ez dabena zuk "ondo" egiten?

449 Onelaxe deritxo orri: mormoxeta, marmar, matraka, naasketa, izki-mizki, ipuin, maltzurkeri...
¿guzurbaltz?, ¿doillorkeri?...

—Erraza da, kritikatzera beartuta ez dagoanaren “kritikea”, azkenean “atso barritsuen matraka” biurtzea.

450 Min emoten dautso, benetan, Jaungoikoari, eta kalte egiten dautse arima askori
—baita beste askori santutzeko bidea emon be—
kristau “zintzoen” bidebagekeriak!

451 Ez gaitez an epaile biurtu.
—Bakotzak bere aldetik ikusten dauz gaiak...
eta, ia geienetan adimen motzez,
eta sarritan griña illunez laifotutako edo lausotutako begiz ikusi be.

Gaiñera, norbaitzuen ikuspegia, geisoti ta norberekoi utsa da, gaurreguneko margolari erreina lez.
Edozelako zirriborro batzuk egiñik,
geure irudia eta geure egikerea dirala sinisterazo nai dauskue.

Bai gutxi balio dabela gizonen eritxiak!
—Ez eritxirik emon, zuen eritxia otoitzean baetu bagarik.

452 Aalegindu zaitez, orrela bear ba´da,
iraintzen zaituenai beti leenengo unetik parkatzen.
Izan be, zuri egindako kaltea edo iraiña aundia izanarren,
geiago parkatu dautsu Jaungoikoak zuri.

453 ¿Marmar egiten dozu?
—Espiritu zuzena galtzen dozu orduan;
eta, isilik egoten ikasten ez ba´dozu,
berba bakotxa zure apostolutza alde batera izteko atera zaroazan
oinkada bat baiño ez da.

454 Ez epaitu alderdi biak entzun bagarik.
—Oso erraz aaztu oi dabe,
Jainkozale dirala uste dabenak be,
zuertasunaren leenengo lege au .

455 ¿Ba-dakízu, arri bat urrunera jaurtitean egin daitezun kaltea,
begiak zapiz estalduta ba´daukazuz?
—Bardin, ez dakizu, oso txikiak deritxazuzan marmar-arriak jaurtitean
egin daitezun kaltea
—batzuetan kalte astuna—,
begiak berotasunez edo sumiñez estalduta ba´daukazuz.

456 Kritika egitea, zerbait ondatzea, ez da nekeza:
argin-langille soillak be ba-daki katedral bateko arri landu ta ederrean
bere pikotxa sartzen.

—Eregi: orixe da argin-maisuai dagokien lana.

457 ¿Nor zara zu, nagusiaren jokabidea epaitzeko?
—¿Ez dozú ikusten, arek zuk baiño epaibide geiago daukana?;
¿geiago ikasia dana?;
¿aolkulari zuzen, jakintsu ta negurritsuagoak dauzana?;
¿eta, batez be, zuk baiño grazi geiago, grazi berezi bat,
Jaungoikoaren laguntza indartsu ta argi dan “agintearen grazia” daukana?

458 Munduaren berekoikeria ikustean,
geiago artuko dozu aintzat zuretarren anai-maitasuna.

459 Zure goimaitasuna... itxuratsua da..
—Urrundik, erakarri egiten dozu: argia daukazu.
—Urretik, uxatu egiten dozu: ez daukazu berorik.
—Tamalgarria!

460 «Anaia, anaiak lagunduta, gaztelu bat da» (Es 18, 19).
—Ausnartu une baten, eta erabagi, beti eskatzen dautsudan anaitasunean
bizi izatea.

461 Beti iragarten diardudan anaitasun bedeinkatua gordeten
ikusten ez ba´zaitut,
San Joan´en berba mamintsuok gogorazoko dautsudaz:
«Semetxook: ez dagigun berbaz eta miñez maitatu,
egiñez eta benetan baiño» (Jn 1ª, 3, 18).

462 Alkar-maitasunaren indarra!
—Anaitasun bedeinkatu orretan bizi ezkerro,
bakotxaren argalkeriak eurak eginbearretan zuzen ibilteko
alkarren euskarri biurtzen dira,
jokurako kartak zutik egoteko alkarren euskarri diranez.

463 “Emotean” baiño “alkarren ezagueran” geiago dago goimaitasuna.
—Beraz, eritxia emon-bearrean egon ezkerro,
billatu egizu atxakiren bat zure lagun-urkoaren alde
—ba-dira atxakiak edonon—.

464 ¿Ba-dakízu arako a bere arimea galtzeko zorian dagoana?
—“Santuen alkartasunaz” laguntza eragillea emon daikeozu urrundik.
—Ekin ba!, eta ez zaitez estutu.

465 Zure anaiakaitik kezka orreik eukiteari ondo deritxat: zeuen alkar-maitasunaren ezaugarri dira.
—Baiña aalegindu zaitez zure kezka orreik ez daitezala artegatasun biurtu.

466 Laguntaldea, geienetan, esku-legorra da diru-kontuetan —idazten daustazu—.
—Barriketa, beroaldi zaratatsuak, agintzariak, asmoak...
—Gutxi dira ordu gorrian "eskua eskintzen" dabenak.
Eta emoten ba´dabe, jolasaldi baten truke izango da —dantza, tonbola, zine, gau-jolas baten truke—;
edo-ta emondakoaren eta emoilleen izendegia egunkarian [periodikoan] agertzekotan.
—Baltza da gaia, baiña izaten da bestelakorik be:
eskupekoa emotean, ezkerreko eskuak eskumeak egiten dauana jakiten izten ez dautsen orreitarikoa izan zaitezala zeu be (cfr. Mt 6, 3).

467 Liburuak.
—Kristo´ren eskeko baten antzera luzatu neban nire eskua, eta liburuak eskatu nebazan. Liburuak!
Unibertsitateetako ikasle gazte asko ta askoren apostolutar, erromatar eta katolikuarentzako janari diran liburuak!
—Kristo´ren eskeko baten antzera luzatu neban eskua...
eta "ago bete agiñez" geratu nintzan.
—Jesús, ¿zegaitik ez dabe ikusten limosna orren goimaitasun mardul, kristautsu eta gari onezko ogia emotea baiño onuragarriago dan ori?

468 Gizagaisoegia zara.
—Gutxi dirala goimaitasuna maite dabenak!
—Goimaitasuna ez dala jantzi zaarrak eta kobrezko txanponak emotea...
—Eta zeuri jazotakoa eta zeure etsipena jakiñerazoten daustazu.
—Auxe bakarrik datorkit burura:
zuk eta nik emon dagigun, eskuzabalik,
geuk daukaguna, baita geure burua.be.
Eta zuri jazotakoa ez yake jazoko gugaz dabizana.

469 «Agurtu egizuez orko santu [kristau] guztiak. Emengo santu guztiak agurtzen zaitue. Agur, Efeso´on bizi diran santu guztiai. Filipos´en dagozan Jesukristo´ren santu guztiai.» (Erm 16. 15; Ko 2^a, 13, 12; Ef 1, 1; Flp 1, 1.)
¿Ez al-da biotz-ikutugarria leenengo kristauak alkarri dei egiteko erabilten eben "santu" izen ori?
—Ikasi egizu lagun-urkoa begirunez artzen.

B I D E A K

470 Baiña... ¿eta bideak? —Pedro eta Paulo´renak, eta Domingo, Prantzisko eta Xabier´enak eurak dira:
Gurutzea eta Ebajelioa...
—¿Txikiak dirala deritxazu?

471 Ondo dago —naitaezkoa da— apostolu-arazoetan gizabideak gogora ekarte (2 + 2 = 4).
Baiña ez aaztu —iñoiz be!— beste zenbaki bat be ezarri bear dozula, zorionez: Jaungoikoa + 2 + 2.

472 Ekin zintzo ta zuzen Jaungoikoaren zerbitzuari...
eta ez arduratu ezegaitik:
izan be, «Jaungoikoaren erreifua eta Aren zuzentasuna billatzen ba´dozuz, beste gaiñerakoak —lurrekoak, bideak—
geigarri lez emongo dautsuz» (cfr. Mt 6, 33).

473 Jaurti zugandik urrun zure bear gorriaren ezaugereak sortzen dautsun etsipen baltz ori.
—Egia da: diru-ospez, "utsa" zara..., gizarte-ospez, "utsa"..., zure onoinenez, "utsa"..., eta zure adimenez be "utsa".
Baiña, "uts" orrean ezkerretara, Kristo dago...
Eta, bai kopuru neurribagea orrela urteten dana!

474 Ez zareala... ezer be. —Besteak gauza arrigarriak egiten dabezala, erabide, egunkari ta zabalkunde-sailletan.
—¿Nai aiña bide daukela eskuartean, eta zuk ez daukazula ezertxo be?...
Ederto: gogoratu egizu Loiola´ko Iñigo:
—Ezjakiña, Alkala´ko jakintsuen artean.
—Beartsu, oso beartsu, Paris´ko ikasleen artean.
Aurrean erabilia, guzurrez salatua...
"Bidea" da: maitatu, sinistu eta ondo eroan!
Zeure Maitasuna, zeure Sinismena ta zeure Gurutzea dira biotzean daroazuzan apostolu-amesak betikotzeko eta egia biurtzeko biderik ziurrenak.

475 Errukarri autortzen dozu zure burua. Eta, izan be, orrelaxe da.
—Alan eta guttiz be —geiago oraindiño: orrexegaitik—,
Jaungoikoak aukeratu egin zaitu.
Tresna baldarrak erabilten dauz beti:
"egiña" Arena dala ondo agiri daiten.
—Zuri mentasuna bakarrik eskatzen dautsu.

476 Jaungoikoari "zeure burua eskiñi" dagiozunean, ez da izango zure baikortasuna atzamatuko dauan gaitzasunik.

477 ¿Zegaitik izten dozuz txoko orreik zure biotzean?

—Zure burua osoro eskintzen ez dozun artean,
alperrik zabiz lagun-urkoa erakarri nairik.

—Tresna argala zara.

478 Baiña, oraindiño be!, ¿aundikien txaloa, beroa, berogarria ta poza
bear ete-dozuz gero,

Jaungoikoak nai dauana egiten jarraitzeko?

Aundikiak aldakorrak izaten dira,
eta zuk iraunkor izan bear dozu.

Izan zaitез eskerronekoa, lagun egiten ba'dautsue.

Eta ekin, ikaratu bagarik, baztartzen ba'zaitue.

479 Ez egin jaramonik.

—Jaungoikoaren egintzai zorakeri esan dautsee beti "zuurrak".

—Aurrera zu, izan adorea!

480 ¿Ikusten dózu? Ari bat eta beste asko ondo txortatu ezkeru,
zama ikaragarriak jaso daikezan lokarritzarra osotzen da.

—Zu ta zure anaiak

—zuen gogo guztiak Jaungoikoaren gogoa beteteko, guztiok alkaturik—
eragozpen guztiak austeko gauza izango zaree.

481 Jaungoikoa bakarrik billatzen dogunean,

apostoluzako egintzak aurrera eroateko,
egoki etorriko da gure adiskide on batek esaten ebana:

«Bear dan guztia eralgi, eralgitako guztia gero ordaindu bear izanarren be».

482 ¿Zer ardura dautso, mundua ta bere indar guztiak

zeure aurka jagiten ba'dira be? Zu, aurrera!

—Esan egizuz barriro salmoaren berbak:

«Jauna da nire argi ta osasun, ¿nori nik bildurrik?»...

«Nire burua arerioz inguratuta ikusiarren,

nire biotza ez da ikaratuko» (Sal 27, 1 eta 3).

483 Adoretu zaitез! Zuk... ba-daikezu.

—¿Ikusten dózu, Jaungoikoaren graziak,
Pedro, loti, ukatzaille ta koldar ari buruz egin ebana...?,

¿Paulo jazartzaille, gorrotolari ta temati ari buruz egin ebana?

484 Izan zaitез esku-tresna:

urrezkoa naiz galtzairuzkoa, platinozkoa naiz burdiñazkoa...
aundia naiz txikia, landua naiz baldarra...

—Egokiak dira guztiak: bakotxak bere eginbear berezia dau.

Gauzen saillean lez: ¿nor azartuko da osagillearen pintzak
arotzaren zerrotea baiño egokiagoak dirala esaten?

—Zure eginbearra esku-tresna izatea da.

485 Bai. ¿Eta zer? —Ez dakit zegaitik atzeratu bear zaituan arimakanako
egikizun orretatik

—ezkutuko arrokeriz ez ba'da: bikaiña zaralakotan zagoz—
orretara erakarri zenduzan Jaungoikoaren suak,
lilluratzen zaituan argi ta beroaz gaiñera,
batzuetan esku-tresnaren argalkeri-kea be sortzen dauala-ta.

486 Lanik... ba-dago. —Tresnak ezin egon daitekez urdinduta.

—Ba-dagoz arauak urdiña ta ugarra galerazoteko.

—Arauak betetea naikoa.

487 Ez dagitzula logurarik kendu zure apostoluzta-lanai urreratu dakien
diru-ezak.

—Sendotu egizu Jaungoikoagan daukazun ustea,

egizu giza-negurriz zeuk aal dagizun guztia,

eta berealaxe ikusiko dozu

diru-kontua orrenbeste estutzeko gai ez dana.

488 Esku-tresnarik ez dozula-ta,

ez itzi gauzak egin bagarik: asi, aal danez.

—Gero, ekin eta ekin: berez sortuko da bear dan esku-lana.

—Balio ez ebenen batzuk gai biurtzen dira.

Enparaduai buruz, ebakuntza on bat egin, min emonarren be

—"zirujano" onak izan ziran santuak!—,

eta jo aurrera!

489 Sinismen bizi ta sarkorra. Pedro'rena lakoa.

—Orren jabe egin zaitезanean

—Berak esan dau—,

zure apostoluzta-bidea galerazoten dautsuen mendiak,

eta giza-indarrez garaitu ezifnezko eragozpenak be,

baztartu egingo dozuz.

490 Asmo zuzena eta borondate ona:

langai bi onein bidez eta Jaungoikoak nai dauana beti begien aurrean dozula,

zure Maitasun-amesak egia biurtuko dira,

eta arimakanako zure egarria zearo aseko da.


491 «¿Au ez da, ba, arotzaren semea? ¿Ez da, ba, au arotza,
Maria'ren semea?» (Mt 13, 55; Mk 6, 3).

—Jesus'i buruz esandako au, ba-daiteke laguntaldeak zeutzaz be esatea,
erdi-arritasunez eta erdi-isekaz,

Jaungoikoaren naia osoro bete eta Aren eskuetan tresna izan nai dagizunean:

«Baiña, ¿au ez da, ba, arako a?»...

Zu, zagoz isilik. Eta zeure egintzak sendotu dagiela zure egitekoa.



ANDRA MARI

492 Aizeak txingarra gar bizi biurtzen dauanez,
[zeruko] gure Amaren maitasunak zure epelkeriaren auts berotan ezkutatuta
dagozan birtute-txingarrak
su bizi biurtuko dauz.

493 Maite izan egizu Andra Mari.
Eta Berak jadetsiko dautsu grazia ugari
egunoroko burruka onetan garaitzaille urten zaitez.
—Alperrik ibiliko da arerio madarikatua
gora-goraka irakiten dabizan bere tentaldi gaiztoz zure barruan,
zure asmo ederrak eta Kristo 'k berberak biotzean jarri dautsuzan agindu
arrigarriak ustelkeri usaintsutan ito nairik.
—«Serviam!» [«Zerbitzari izango naz!»]

484 Izan zaitez Maria'rena, eta "geurea" izango zara.

495 Jesus'egana joateko eta "biurtzeko" bidea, Maria da.

496 Bai atsegingarri yakola edonori,
literaturako, politikako, gudaritzako eta Elizako gizon ospatsuakaz daukan
senidetasuna aitatzeara!
—Abestu egiozu Ama Sortzez Garbiari, urrengo au berari gogorazorik:
«Agur, Maria, Aita Jaungoikoaren Alabea;
agur, Maria, Seme Jaungoikoaren Ama;
agur, Maria, Espiritu Santu Jaungoikoaren Emaztea...
Zu baiño gorago, Jaungoikoa bakarrik!»

497 Esan egizu: «Nire Ama
—zeurea, bai, errazoi askotxogaitik berea zaitu-ta—,
zukanako maitasunak zeure Semearen Gurutzean lotu nagiala;
gure Jesus'en borondatea beteteko bear dodazan Sinismena, adorea ta
azartasuna izan dagidazala beti».

498 Zutik jarten dirala dirudi zure bizitzako pekatu guztiak.
—Ez ikaratu. —Dei egiozu zeruko zure Ama Andra Maria'ri,
sinismenez eta ume txiki baten uste osoz.
Berak ekarriko dautsu bakea arimara.

499 Maria guztiz Deuna, Jaungoikoaren Ama,
iñor konturatu bagarik,
bere erriko beste edozein emakume lez bizi izan zan.
—Ikasi egizu Beragandik "lautasunez" bizi izaten.

500 Eroan egizu zure bularrean Karmen'go Gutun santua.
 -Oneraspen gutxi dira kristau-errian
 —Andra Maria'ri buruzko asko ta onak izanarren—
 oneraspen oneik aña zuztar, eta Aita Santuen ainbeste bedeinkapen daukenik.
 -Gaiñera, ain amakoia da larunbatetako [zapatueta] eskubide ori!

501 Anda Maria'ren irudien artean zein irudi yatzun begikoen itandu
 eutsuenean,
 eta zuk —ondo ikasita daukanak lez— «guztiak» erantzutean,
 seme ona zareala ikusi neban.
 Orregaitik, ederrak deritxezu zure Amaren irudi guztiai:
 «lilluratu egiten nabe», esan zenduan.

502 Maria, otoitz-Irakasle.
 -Begira zelan eskatzen dautsan Kana'n bere Semeari.
 Eta zelan jarraitzen dautsan, eskean, adorerik galdu bagarik, iraupenez...
 -Eta zelan lortzen dauan (cfr. Jn 2, 1-11).
 -Ikasi egizu.

503 Maria'ren bakartadea.
 -Bakarrik! -Negarrez, iñor bagarik.
 -Zuk eta nik lagun egin bear dautsagu Andra Maria'ri,
 eta negar egin, Jesus egurrean geure obenak josi eben-eta.

504 Andra Maria'k, Maitasun Ederraren Amak,
 baketuko dau zure biotza, aragizkoa dala sentierazoaz,
 uste osoz Beragana jotzen ba'dozu.

505 Andra Maria'ganako maitasuna espiritu onaren ezaugarri da,
 naiz egintzetan naiz norberagan.
 -Ez izan usterik ezaugarri ori ez daroen ekintzetan.

506 Ama Naibagetua.
 -Bera begiratzen dozunean, ikusi egizu aren biotza:
 seme bi aurrez-aurre daukazan Ama da;
 seme bi: Bera... eta zeu (cfr. Jn 19, 26-27).

507 Bai apaltasuna, nire Ama Andra Maria'rena!
 -Ez dozue Jerusalem'go Abar-egunean ikusiko,
 ezta —Kana'ko leenengo mirari aretan izan ezik—
 bere Semearen mirari arrigarrien egunetan be (cfr. Jn 2, 1-11; Mk 11,1-10).
 -Baiña an egongo da Golgota'ko ezespentan;
 antxe, «Jesus'en Gurutze-ondoan, bere Ama» (Jn 19, 25).

508 Arritu zaitetz Andra Maria'ren biotz-sendoaz:
 Gurutzearen oiñean, giza-samiñik zorrotzenak jota
 —ez dago aren antzeko samiñik—,
 adorez beterik (cf. Jn 19, 25).
 -Eta eskatu egiozu zeuk be adore ori,
 Gurutzearen ondoan egoten ikasi dagizun.

509 Maria, lan ixil eta ezkutuaren Irakasle!
 -Ikusi egizue, geienetan ezkutuan, bere Semeari lagun egiten:
 jakin ba-daki, eta ixilik dago!

510 ¿Ikusten dozue lautasun ori?
 -«Ni Jaungoikoaren mirabea naz» (Lk 1, 38).
 -«Eta Berbea aragi egin zan» (Jn 1, 14).
 -Orrelaxe jokatu eben santuak: otsaundi bagarik.
 Eta iñoiz txalorik ba'zan, eurak nai izanda ez.

511 «Ez izan bildurrik, Maria!» (Lk 1, 30).
 -Ikaratu egin zan Andra Maria Goiaingeruaren aurrean!
 -Nik, nire garbitasunaren zaintzaille diran eratasun-arau orreik
 baztarrera jaurti dagidazan!

512 Oi, Ama, Ama!: «Fíat» [«Egin bedi»] zure berba orren bidez
 Jaungoikoaren senide eta Aren aintzaren jabegi egin gaituzu (cfr. Lk 1, 38;
 cfr. Ga 1, 18).
 -Bedeinkatua Zu!

513 Leen, bakarrik, zuk ezin zenduan...
 -Orain, Andra Maria'gana jo dozu, eta Beragaz bai erraz!

514 Izan ustea. -Zatoz barriro.
 -Dei egiozu Andra Maria'ri, eta zintzoa izango zara.

515 ¿Batzuetan indar gutxi dozula?
 -¿Zegaitik ez dautsazu zure Amari esaten:
 «Atsekabetuen pozkillea, kristauen laguntza,
 geure itxaropena, Aingeruen Erregiña»?

516 Ama! -Dei egiozu errime, errime.
 -Entzuten zaitu zeruko zure Ama guztiz Deunak.
 Arriskuan ikusten zaitu bearbada,
 eta, zure Semearen graziaz,
 bere magalaren beroa ta bere eskuaren gozoa eskintzen dautsuz:
 eta indarbarriztuta geratuko zara burruka barri baterako.



ELIZEA

517 «Sinisten dot Eliza: Bat, Santu, Katoliku ta Apostoluen...»
–Ba-dakit zegaitik orren ago-gozoz eta geldi-unez egiten dozun otoitz ori.

518 Auxe bai nire poza, nire biotzaren indar guztiaz esan aal izatea!
Maite dot nire Ama Eliza deuna!

519 «Serviam» [«zerbitzari izango naz»] deadar ori
Jainko-Elizearen zerbitzari zintzo-zintzoa izateko gogo da,
ondasun, ospe ta bizitzaren truke izanarren be.

520 Katoliku, Apostoliku, Erromatarra!
–Atsegin dot zure "Erromatartasun" ori.
Eta, zure "erromeria" egiteko,
"Pedro ikusteko" daukazun gurari bizia (cfr. Ga 1, 18).

521 Bai esku-zabala Kristo, bere Elizeari Sakramentuak iztean!
–Gure premiña bakotxaren osagarri dira.
Begirunea orrei eta eskerrona Jaunari ta bere Elizeari!

522 Begirunez onartu egizuz Elizearen liturgia santua
eta zeremoni bereziak.
–Bete egizuz zeatz-meatz.
–¿Ez dozú ikusten, gizon gizagaisook gauzarik aundienak
eta arrigarrienak be zentzunen bidez artu bear doguzana?

523 Elizeak bere otoitzak abestu egiten dauz
—esan dabe batzuek—,
bere eskaria egiteko berba egitea ez litzake naikoa izango-ta.
–Zeuk be, kristau aukeratu orrek,
liturji-arauz abesten ikasi bear dozu.

524 «Abestu-bearra dago!», iñoan arima lilluratu batek,
Jaunak bere lanaren bidez egiten ebazan arrigarriak ikusita gero.
–Burubide ori dirautsut nik barriro be: abestu egizu!
Jaungoikoaganako zure berotasun eskertsua
abesti ta soñu samur biurto daitela.

525 "Katoliku" izatea Aberria maitatzea da,
maitasun orretan "nagusitzarik" iñori itzi bagarik.
Eta, bide batez, erri guztien aalegin bidezkoak "neureztat" eukitea.
Prantzia' ren amaikatxo aintza, ba-dira "neure" aintza be!
Eta bardin, alemaniar, italiar, eta ingelanderren...,
amerikar, asiar eta aprikarren poz-zio asko "neure" poz be ba-dira!
Katoliku!: biotz-aundi, espirtu-zabal!

526 Abade ta erlejiosoen bizibideari begirune guztiz aundia ez ba'dautsazu, ez da egia Jaungoikoaren Elizea maite dozuna.

527 Betania'n, Simon legenardunaren etxean,
Irakaslearen [Jesus'en] burua usaingarri oso karuaz igurtziten dauan emakume arek,
Elizako gaietan esku-zabal izatera beartuta gagozala gogorazoten dausku.
—Apaindura, aundikirotasun eta edertasun guztiak, orretarako, gutxi dirala deritxat.

—Eta ontzi santuen, eliz-jantzien eta irudien aberastasunagaitik mormoxetan diarduen orrein aurka,
or dago Jesus'en gorapena:
«Egitada ona da niri egin daustana» (Mk 14, 6).



MEZA SANTUA

528 Gizon apostoluaren ezaugarri oso berezia
Mezea maite izatea da.

529 Mezea luzea da —diñozu—;
eta orri nik auxe ezarten dausat:
zure maitasuna laburra dalako.

530 ¿Ez dá arritzekoa, gizarte-artuemonetarako,
lanbidearen arazo geldietarako, mairako ta atsedenerako
ain astidun eta patxadakoak be ba-diran kristau asko...,
Altarako Opari Santuari buruz moztuzale ta laburtuzaleak izatea,
eta mezea emoten dan artean euren buruak estutu eta Abadea be orretarako
beartu nai izatea?

531 «Ondo erabili egidazue, ondo erabili egidazue!»,
zirautsen negarrez Gotzain zaar batek orduantxe abadetu ebazan abade barriai.
—Jauná!: aginte ta eskubiderik ba'neu nik,
deadar ori kristau askoren be askoren belarrira ta biotzera eroateko!

532 Bai egin ebala negar, altara-ondoan, gero martiri izan zan Abade gazte
ta santu arek,
Jaunartzera pekatu astunez urreratu zan norbaitetzaz gomutatzean!
—¿Orrela ordaintzen dautsazuz zuk iraiñak Jaunari?

533 Jesus'en apaltasuna: Belen'en, Nazaret'en, Kalbario'an!...
—Baiña apaltasun eta ezerezkuntza geiago Ostia guztiz Santuan:
kortan, Nazaret'en eta Gurutzean baiño aundiagoa.
Orregaitik, bai nagoala Mezea ("Gure" Mezea, Jesus...) maitatzera
beartuta!

534 Urteak egunoro Jaunartzen!
—Beste bat, santu izango litzake —esan daustazu—, eta ni beti bardin!
—Seme —erantzun dautsut—, jarraitu egunoro Jaunartzen,
eta ekarri au gogora:
¿Zer izango ete-nintzake ni, Jaunartu ez ba'neu?

535 Jaunartze, batasun, artuemon, ixil-mandatu:
Berba, Ogi, Maitasun.

536 Jaunartu egizu. —Ez da lotsabagekeria.
—Jaunartu gaur berton be, arrisku aretatik urten-barri zareala...
—¿Aaztu egin dozu Jesus'ek esan eban au:
«Osasundunak ez dabe osagillerik bear,
geisorik dagozanak baiño»? (Mt 9, 12; MK 2, 17; Lk 5, 31).

537 Sagraria urreratzean, gogora ekarri egizu ogei mende dirala,
Bera! itxaroten daukazula

538 Ortxe daukazu: «Errgeen Errege eta Jaunen Jauna» da (Tm 1^a, 6, 15;
Ag 19, 16).
—Ogian gordeta dago.
Azken-azkeneragiño beeratu zan zukanako maitasunez.

539 Zeuretzat geratu zan. —Ez da begirunea, ondo gertatuta egon ezkerro,
Jaunartu bagarik geratzea.
—Pekaturan Jaunartzea bakarrik da begirunebagekeria.

540 Bai dala grazi-iturri gogozko Jaunartzea!
—Sarritan egizu ori, eta Jaungoikoaren aurrean zagozala
geiago somatuko dozu,
baita egitadetan Beragaz alkartuago zagozala be.

541 Ba-da eliz-gaietan be egokitasun bat.
—Ikasi egizu egokitasun ori.
—Negargurea emoten dabe
—egunoro Mezatan egonarren—
Mezea entzuten ez dakien gizon “elizkoi” orreik;
ez dakie «Aitaren» egiten
—ziri-borro batzuk egiten dabez lasterka bizitan—,
ezta Sagrario-aurrean belaunikatzen be
—orrein belaunikatze barregarriak iseka dirudie—,
ezta Andra Maria ren irudiaren aurrean burua makurtzen be.

542 Ez egizue ipiñi elizan erreskadaka egindako irudirik;
azukarazkoak dirudien orez margoztutako Gurutze orreik baiño naiago dot
burdiñazko Gurutze Santu latz bat.

543 Maia ta altara-arria baiño ez zan Altara soil baten, erretablo bagarik,
Mezea emoten ikusi nenduzun bein.
Gurutzea aundia zan. Argimutillak sendoak,
eta argizariak lodiak, maillan-maillan; aundienak Gurutzearen ondoan.
Altara-aurrekoa eguneko koloreaz. Kasuillea, nasaia.
Eta kaliza, marra-zeatza, ago-zabala, baliotsua.
Elektrigargi bagarik, eta orren bearrik be ez.
—Eta lanak izan zenduzan otoitz-leku aretatik urteten:
an ondo egoten zan.

¿Ikusten dozu zelan eroaten gaituan,
zelan urreratzen gaituan Jaungoikoagana liturjia uts-utsak?

SANTUEN ALKARTASUNA

544 Santuen alkartasuna.
—¿Zelan esango neuskizu?
—¿Ba-dakizu zer diran gorputzarentzat odol-sartzeak?
Orixe berori da Santuen Alkartasuna arimearentzat.

545 Santuen Alkartasun berezi bat bizi egizue:
eta zuetariko baktokak alkartasunaren indarra ta poza somatuko dauz
barruko burrukaldian,
edo-ta norbere lanbideko orduetan.


546 Seme: bai egoki bizi izan zenduala Santuen Alkartasuna,
onelako au idazten zeustanean:
«Atzo, neure alde eskatzen zenduala “somatu” neban!»

547 Izadiz gaiñetik ondasunen "artuemon" orren barri dakian
beste batek auxe diraust:
«Eskutitzak on aundia egin daust:
ezagun da guztien otoitzez lagunduta datorrena!...
eta ni otoitzen premiña gorrian nago».

548 Santuen Alkartasuna somatzen ba dozu
—bizi izaten ba dozu—,
damu-zale biurtuko zara poz-pozik.
—Eta nekebidea «pozgarria, baiña neketsua» dala ezagutuko dozu.
Eta nekebidetik joan diran, doazan eta joango diran guztiakaz
“alkartuta” zagozala somatuko dozu.

549 Erraztasun geiago eukiko dozu zure eginbearra beteteko,
zure anaiak eskintzen dautsuen laguntza gogoratzean,
eta, zintzoa ez ba zara,
zuk ukatzen dautsezun laguntza gogora ekartean.

550 «Guztia eroaten dot ondo, aukeratutakoen alde,
eurak be Jesukristo gandik datorren salbamena
jadetsi dagien» (Tm 2^a, 2, 10).
—Santuen Alkartasuna bizi izateko bide ederra!
—Eskatu Jaunari, Paulo Deunaren espiritu on ori emon dagitzula.



ONERASPENAK

551 Deabruagandik lez iges egin dagigun "oitukeriatik".

–Egiazko Jainkozaletasunaren illobia dan leza orretara ez jausteko bide nagusia beti Jaunaren aurrean bizi izatea da.

552 Norberaren oneraspen gutxi izan egizuz, baiña iraunkorrak izan daitezala.

553 Ez egizuz aaztu umetako otoitzak, amaren ezpanetatik ikasiak, urrean.
–Egunoro esan egizuz bakun-bakun, orduan lez.

554 Ez itzi Altarako Jesus´i Ikustaldia egitea.
–Oi dozun agozko otoitza eginda gero, esan egiozuz, egiaz eta benetan Sagrarioan dagoan Jesus´i, eguneko zure buruausteak.
–Eta argiak eta indarra izango dozuz zure kristau-bizikerarako.

555 Bai dala maitagarria gure Jaungoikoaren Gizatasun Santua!
–Zure Jaunaren eskumako Zauri guztiz santuan "sartuta" itandu zeustan:
«Kristo´ren zauri batek garbitu, osatu, baketu, indartu ta biztu eta maitemindu egiten ba´dau,
¿zer ez ete-dabe egingo Gurutzean edegitako bost zauriak?»

556 Gurutz-bidea.
–Ori bai dala oneraspen sendo ta mamintsua!
Jaunaren Nekaldi ta Eriotzako amalau egonaldi orreik bariku oro egiten oituko al-zara!
–Bene-benetan dirautsut: aste guztirako sendotasuna lortuko dozu.

557 Gabon-oneraspena.
–Ez dot irribarrerik egiten, "Jaiotzarako" kortxoeko mendiak eratzen eta buztinezko irudi koskorrak Estalpe-inguruan jarten ikusten zaitudanean.
–Ez yat iñoiz be irudi, ume bat dirudizun une orretan baiño gizonago zareanik.

558 Errosario santua iskillu [arma] aaltsua da.
Uste onez erabili egizu, eta arrituta geratuko zara aren indarraz.

559 Jose Deuna, Kristo´ren Aita, zure Aita eta zure Jauna be ba-da.
–Jo egizu Beragana.

560 Jose Deuna, gure Aita ta Jauna,
barru-bizikerearen Irakasle da.
—Jarri zaitetz bere magalpean,
eta bere indar eragillea somatuko dozu.

561 Jose Daunari buruz, auxe diño Teresa Deunak bere bizitzako liburuan:
«Otoitz egiten irakasteko Irakaslerik aurkitzen ez dauanak,
artu begi irakasletzat Santu Doatsu au, eta ez da bidean galduko».
—Arima ikasi bategandik dator burubide ori. Jarraitu egiozu.

562 Izan uste ona zure Aingeru Zaintzailleagan.
—Artu egizu adiskide kutun bat lez
—alantxe da izan be-ta—;
eta makifiatxo bat lagunduko dautsu [zaitu] berak egunoroko arazo guztietan.

563 Irabazi egizu zure apostoluzara erakarri nai dozun orren Aingeru
Zaintzaillea.
—“Lankide” apartekoa da beti.

564 Zure Aingerua ta zure entzuleen Zaintzailleak gogoan ba'zenduz,
berbetaldietan urtetan yatzuzan lelokeri asko moztuko zeukez.

565 Arritu egiten zara Aingeru Zaintzailleak
orren argi ta garbi lagun egin dautsulako.
—Eta ez zintzakez arritu bear:
orretarakoxe jarri eban Jaunak zure ondoan.

566 ¿Bizi-giro orretan okertzeko bide asko dagozala?
—Bai. Baiña... ¿ez ete-dago Zaintzailerik be?

567 Bear-orduan, jo egizu zure Zaintzailleagana,
eta deabruaren aurka babestuko zaitu
eta goiargi santuak ekarriko dautsuz.

568 Pozik beteko leukee euren eginbearra Aingeru Zaintzaille Santuak,
onela berba egiten eutsen arima aregaz:
«Aingeru Deunak, Bibliako “Abestirik Ederrena”-ko Emazteak lez,
dei egiten dautsuet:
‘Esan egiozue..., maitasunez geisorik nagoala’» (Abs 5, 8)..

569 Ba-dakit pozaldi bat emoten dautsudana,
gure Sagrarioetako Aingeru Zaintzaille Santuak egiteko otoitza emen jartean:
«Eukaristi Santu ta gurgarria dagoan Sagrarioak zaintzen dozuezan
Aingeru Goitarrok:
zaindu egizue, ifiok txarto erabili ez dagian,
eta gorde guk maite-maite izan dagigun».


570 Edan egizu “Apostoluen Egiñak” deritxon iturri gardenean:
Amabigarren atalburuak dakarrenez,
Pedro, Aingeruaren bidez espetxetik urtenda,
Markos´en amaren etxera abiatzen da.
—Ez dautsoe sinistu nai, Pedro atartean dagoala diñoan neskametxoari.
«‘Aren Aingerua da!’, ifioen areik» (Ap, 12, 15).
—Begira zein eritxi onez artzen ebezan leenengo kristauak
euren Aingeru Zaintzailleak!
—¿Eta zuk?

571 Garbitokiko arima bedeinkatuak.
—Goimaitasunez, zuzenbidez eta zurekoikeri parkagarriz
—ainbeste egin daikee Jaungoikoaren aurrean!—
gogoan euki egizuz beti zure nekebidetan eta zure otoitzetan.
Aitatu dagizuzan baktotxean, esan aal dagizula:
«Nire lagun onak, Garbitokiko arimak...»

572 «Zegaitik agintzen dautsudan onenbeste aalegiñez eta beti,
ur bedeinkatua egunoro erabili dagizula», diraustazu.
—Errazoi asko emon neikezuz.
Naikoa dozu, aurki, Avila´ko Teresa´ren au:
«Ur bedeinkatuak aifña, ezek ez dauz deabruak uxatzen, barrero ez etorteko».

573 Eskerrak, ene Jaungoikoa!, nire biotzean jarri dozun Aita
Santuaganako maitasunagaitik.

574 ¿Nok esan dautsu, bederatziurrenak egitea ez dala gizonezkoena?
—Oneraspen orreik gizontsuak izango dira,
gizon batek... otoitz eta penitentzi-zaletasunez egiten ba´dauz.



SINISMENA

575 Tunel illunean lez doaz batzuk bizitzan zear,
eta ez dabez ulertzen sinismen-eguzkiaren ditzira, ziurtasuna eta beroa.

576 Satanas´ek bai erasoten dauala maltzurkeri zitalez
gure Sinismen Katolikuaren aurka!
Baiña esan dagiogun beti, eztabaidetan asi bagarik:
«Elizearen seme naz ni».

577 Sinismen aundia be aundia somatzen dozu zugar...
-Sinismen ori emon dautsunak, emongo dautsuz bideak be.

578 San Paulo Apostolu bikaiñiak dirautsu:
«Zintzoa Sinismenez bizi da» (Erm 1, 17).
-¿Zegaitik izten dozu su ori atzamatzen?


579 Sinismena.
-Min emoten dau kristau askoren ezpanetako Sinismen ugaria
eta egintzetan arein Sinismen otza ikusteak.

580 Eskatu egiozu apal-apalik Jaunari,
sendotu dagiala zure Sinismena (cfr. Lk 17, 5).
-Eta gero, argi barrien bidez, ederto ikusiko dozu munduaren bidezidorren
eta zure apostolu-bidearen artean dagoan aldea.

581 Bai apalik eta lau azaltzen dabezala Ebanjelariak,
Apostoluen Sinismen argal eta ezbaitsua agertzen daben egintzak!
-Zuk eta nik ez dagigula galdu,
Apostolu areik geroago izan eben Sinismen adoretzu ta aldagatxa izateko
itxaropena!

582 Gure Sinismen Katolikuaren ederra!
-Sinismen orrek gure kezka ta gurari guztiak zuzendu,
adimena baketu, eta biotza itxaropenez aseten dauz.

583 Ez naz "mirarizale".
-Esan neutsun, mirari larregi daukadazala Ebanjelio Santuan,
nire Sinismena errime sendotzeko.
-Baiña min emoten daust, oi ez lako bide arrigarriai buruz
eta izadiz gaiñetiko jazopenai buruz berba egiten entzutean,
irribarretsu geratzen diran kristau orreik
—orrein artean ba-dira elizkoi ta "apostoluak" be!—.
-Orrelakoai urrengo au esateko guraria somatzen dot:
«Bai, orain be ba-dira mirariak;
geuk egingo geukez Sinismenik ba´gendu!»



584 Biztu egizu zure Sinismena.

–Kristo ez da joandako gizaki bat.

–Ez da edestian [istorian] galtzen dan gomutapen bat.

Bizi da!: «Jesukristo atzo ta gaur eta betiko, Berbera da!»,
diño Paulo Deunak (Ebr 13, 8).

585 «Moztaza-azia aiñako Sinismena ba'zeukee...» (Mt 17, 19).

Orreik bai Irakaslearen deadar orrek gordeten dauzan agintzariak!

586 Jaungoikoa betikoa da.

–Gizon sinismendunak bear dira:

eta Biblian irakurten doguzan mirariak barriztu egingo dira.

–«Jaungoikoaren eskua, bere aalmena, ez da laburtu!» (cfr. Is, 59, 1).

587 Ez dauke Sinismenik. –Baiña bai siniskeriak.

Barregurea ta lotsea emon euskun,

berez zuzen eta egoki utsa zan berba bat entzutean

—baiña berarentzat adur gaiztokoa zana—,

edo jarlekua anka baten gaiñean biraka ikustean,


bere baretasuna galtzen eban aundiki arek.

588 «Sinismena daukanarentzat, guztia da eginkor» (Mk 9, 23).

–Kristo'ren berbak dira.

–¿Zegaitik ez dautsazu Apostoluakaz batera Kristo'ri esaten:

«Geitu egidazu sinismena!»? (cfr. Lk 17, 5).



A P A L T A S U N A

589 Garaipenaren txaloak entzun dagizuzanean,
zure "porrot" ugariz irabazitako barre-algarak be entzun dagiezala
zure belarriak.

590 Ez zaitetz jauregi-gaillurreko aizeorraz urre-antzekoa izan:
dizdiz egiñarren eta goi egonarren,
ez dago aregan etxearen sendotasuna.

–Iñok ikusten ez dauan tokian, oiñarrietan,
lurpean ezkutatutako arlandu zarkotearen antzekoa izango al-zara zu!:
zugaitik ez da etxerik jausiko.

591 Ene Jesús!, zenbat eta geiago goratzen nabela,
zuk beeratu nagizu geiago nire biotzean:
Zuk bertan-beera izten ba'nozu,
izan nazana eta izango nazana jakiñerazo dagidazun.

592 Ez egizu aaztu zabortegi bat zareala.
–Orregaitik, bearbada, Jainko lora-zaiñak aukeratzen, garbitzen
eta txukuntzen ba'zaitu...
eta lora ederrez be apaintzen ba'zaitu...
ez zaitue ezer be arrotu bear zure itxusia apaintzen daben kolore
ta lurrun gozo orreik.

Beeratu zaitetz: ¿ez dakízu zaborreri-ontzia zareana?

593 Zure burua, dan lakoa ikusi dagizunean,
bidezkoa irudiko yatzu baztartzan ba'zaitue.

594 Ez zara apala, zeure burua beeratzen dozunean;
beste batzuek beeratzen zaituenean
eta zuk beeratze ori Kristo'gaitik eroaten dozunean baiño.

595 Zeure burua ezagutuko ba'zendu,
atsegingarri izango litzakizu destaiña,
eta negar egingo leuke zure biotzak, goraldi ta gorapenetan.

596 Ez egizu miñik artu, besteak zeure utsunak ezagutuarren;
Jaungoikoari buruzko iraiñak eta besteri emon daikeozuzan galbideak,
orreik bai emon bear leuskizuela min!

–Ganerakoan, jakin dagiela zelakoa zarean,
eta baztartu zagiezala.
–"Utsa" izateak ez dagitzula biotza mindu.
Orrela, Jesus'ek berak beteko dau guztia zugan.

597 Biotzak agintzen dautsunez eta adimenak dirautsunez
jokatuko ba'zendu,
lurrari agoz josita bizi izango zintzakez beti,
eta ar [koko] zikin, itxusi ta iguingarri baten antzera auspaztuta...
orrenbeste jasaten [iragoten] zaituan Jaungoiko orren aurrean.

598 Bai dala aundia apaltasunaren balioa!
—«Apaltasuna ikusi daualako...»
Sinismenaren, Maitasunaren eta Garbitasunaren gaiñetik entzuten da gure
Amaren abesti samurra, Zakarias'en etxean:
«[Jaungoikoak] Nire apaltasuna ikusi daualako,
aurrerantzean gizaldi guztiak zorioneko esango dauste» (Lk 1, 48).

599 Lurreko auts zikin zara.
—Espiritu Santuaren arnaseak mundu onetako gauza guztien gaiñetik jasoten
zaituanarren,
eta Zuzentasun-Eguzkiaren argi-izpiak,
zure auts ori jotean,
urra lez diztierazoten zaituanarren,
ez egizu aaztu zure izatearen txirotasuna.
Une bateko arrokeriak lurjota itziko zendukez,
eta, argi zareana, lokatza biurtuko zintzakez.

600 ¿Zu..., arrotu? —¿Zegaitik?

601 ¿Arrokeria? —¿Zegaitik?
Gutxi barru —urteak, egunak— aragi-pillo usteldua ta atsituia izango zara:
arrak, usain atsituak, il-jantziaren mantar zikiñak...
eta ez da iñor gomutatuko zutzaz munduan.

602 Jakitun, ospatsu, berbari, aundiki izanarren,
apala ez ba'zara, ez dozu zuk ezer balio.
—Ebagi, kendu egizu zuzaretetik gaiñezka betean daukazun "ni" ori
—Jaungoikoak egingo dautsu lagun—,
eta orduantxe asiko zara Kristo'gaitik lanean,
bere apostolu-gudaroztearen azken-tokian.

603 Guzurrezko apaltasun ori alperkeria dozu;
orrela, apal-apalik, bertan-beera izten dozuz eskubideak...
baiña eginbearrak diran eskubideak.

604 Autortu egizu apal-apalik zure argaltasuna,
[San Paulo] Apostoluagaz esan aal dagizun:
«Makala nazala uste dodanean,
orduantxe naz indartsu» (Ko 2^a, 12, 10).

605 «Aitá: ¿zelan eroaten dozu sats-pillo au?»,
esan zeustan, damu-damuzko autortza bat eginda gero.
Isldu egin nintzan, zure apaltasunak ori somatzera ba'zaroaz
—zaborra, zabor pillo bat zareala somatzera ba'zaroaz—,
oraindiño zure bear gorri orreaz arrigarri dan zerbait egin daikegula
pentsaturik.

606 Begira gure Jesus'en apaltasuna:
astakume bat izan eban bere Errege-aulkia Jerusalem'en! (cfr. Mk 11, 2-7; Jn
12, 14-16).

607 Apaltasuna, barru-bakea jaristeko beste bide eroso bat da.
—“Berak” [Jesus'ek] esan dau:
«Ikasi egizue nigandik, biotzez laua ta apala naz-ta...
eta atsedena aurkituko dozue zuen espirituarentzat» (Mt 11, 29).

608 Ez da arrokeria zure arimako aurrerapenak ezagutzea.
—Orrelaxe eskertu daikezu Jaungoikoa.
Baiña ez egizu aaztu, iñok emondako soifeko bikaiñez jantzita zagozan
beartsu bat zareala.


609 Gure buruaren ezaupenak eskutik lez garoaz apaltasunera.

610 Zure apostoluzaren espiritua ta arauak zaintzeko daukazun adore
orrek
ez dau argaldu bear guzur-apaltasunez.
—Adore ori ez da arrokeria;
onbide nagusi bat baiño: sendotasuna.

611 Arrokeriz.
—Zeu bakarrik, edozetarako gauza zintzalakotan zengozan.
—Une baten itzi zenduzan Berak, eta buruz-beera jausi zintzazan.
—Apala izan zaitez, eta ez zara Aren laguntza aparteko bagarik geratuko.

612 Baztatu daikezuz gogapen arro orreik:
ertilariaren [artistearen] eskuetan dagoan pintzela zara.
—Eta besterik ez.
—Esan egidazu pintzela zetako dan,
margolariari lan egiten izten ez ba'dautso.

613 Orren uts eta goi-arro zanean orrek,
apala izateko naikoa dozu Isaias'en berbok ausnartzea:
«Lurrean jausi eta ikusten be ez dan ur-tanta
edo iruntz-tanta bat zara» (cfr. Is 40, 15).



MENPETASUNA

614 Apostolutza-lanetan ez dago menpetasun-auste txikirik.

615 Eratu egizu zure naimena, sendotu zure naimena:
galtzairuzko golda-mutur baten antzekoa izan daitela, Jaungoikoaren graziaz.
—Naimen indartsu baten jabe izanaz bakarrik jakingo dozu
iñoren esana egiterakoan zure naimenik ez izaten.

616 Iñoren esana beteteko berandukeri, nagikeri ta makurkeri orregaitik,
bai geratzen dala indar bagarik apostolutza!,
bai ondo pozten dala arerioa!

617 Izan zaiteze esaneko, lan-tresna bat ertilariaren eskuetan esaneko dan
antzera
—ez da gelditzen, au edo bestea zegaitik egiten dauan itaunka—;
eta ziur egon: on eta Jaungoikoaren aintza osorako ez dan gauzarik
ez dautsue iñoiz be aginduko.

618 Arerioak: «¿Uskeri “barregarri” orretan be...
esaneko izan bear ete-dozu?»
«Esaneko izango naz, bai, uskeri “ikaragarri” orretan be!»,
esango dozu zuk, Jaungoikoaren laguntzaz.

619 Ekinbideak.
—Izan egizuz ekinbideak zure apostolutzan,
eskintzen dautsuen agintearen negurritz.
—Negurri orreïn gaiñetik urteten ba´dira edo ezbaika ba´zagoz,
itandu egiozu nagusiari, zure gogapenak beste iñori agertu bagarik.
—Ez aaztu iñoiz be, egille baiño ez zareala.

620 Menpetasunak bakerik emoten ez ba´dautsu,
arro utsa zarean antza.

621 Bai tamala, agintari dana, eredu ez izatea!...
—Baiña, ¿bere izakera bereziagaitik egiten al-dautsazu esana?...
Eta Paulo Deunaren «zuen nagusiai esaneko izan zakieze» (cfr. Ebr 13, 17),
zeure eskuz eta zeure nasaitasunerako,
¿zuk onela biurtzen dozu:
“Esaneko izango naz, Nagusiak niri begiko yatazan doaiak daukazan artean”?

622 Bai zuzen ulertu dozula menpetasuna
—«beti esaneko izatea, il bagarik martiri izatea!»— idatzi daustazunean!


623 ¿Agorra ta nekeza deritxazun zerbait agintzen dautsuela?
—Zuk, egizu. —Eta erraza ta emonkorra dala ikusiko dozu.

- 624** Jerarkia. –Gauza bakotxa bere lekuan.
–¿Zer jazoko litzake Velázquez'en margozki baten,
kolore bakotxak bere aldetik joko ba'leu,
oialaren ari bakotxa askatuko ba'litiz,
markoaren zati bakotxa besteetatik aldenduko ba'litiz?
- 625** Agintariak agintzean, zure eskuarteko lanik elduena bertan-beera
izteko gertu ez ba'zagoz,
zure menpetasunak ez dau izen ori merezi.
- 626** ¿Ez al-etsun, Jauná, pozaldi bat emoten arako gizonkote-ume arek,
gauza asper ta gogaikarriren bat iñoren aginduz egitean,
bere iguifien artean,
«Jesús, aurpegi ona jarri dagidala!»,
ixil-mixilka esaten neutsunean?
- 627** Zure menpetasuna ixilla izan bear da.
–Miin ori!
- 628** Esaneko izatea neketsu egiten yatzun une onetan,
gogoratu egizu zure Jauna,
«eriotzaragiño esaneko egiñaz,
gurutzean ilteragiño egin be!» (Flp 2, 8).
- 629** Menpetasunaren indar aundia!
–Jenesaret'eko itsasoak ez eukan arraiñik Pedro'ren sarentzat.
–Gau oso bat alperrik.
–Orain, esaneko, jaurti dauz barriro sareak uretara
eta «ikaragarritzko arrain-pillo aundia artu eben» (Lk 5, 6).
Sinistu egidazu: miraria egunoro barrizten da.



TXIROTASUNA

- 630** Ez egizu aaztu: gutxien bear dauanak dauko geien.
–Ez jardun zuretzat premiñak sortzen.
- 631** Askatu zaitetz munduko ondasunetatik.
–Maite ta bizi egizu gogo-txirotasuna:
pozik izan zaitetz doi-doian eta negurriz bizi izateko naikoa danaz.
–Bestela, ez zara iñoiz be apostolu izango.
- 632** Egiazko txirotasuna ez da "ez eukitea",
askatuta egotea baiño:
gauzen jabetzari norbere gogoz uko egitea baiño.
–Orrexegaitik dira beartsu asko egiazko aberats.
Baita okerretara be: [aberats asko egiazko beartsu].
- 633** Jaungoikozale ba'zara, gizon munduzaleak aberats izateko egiten
dabezan aalegin berberak egizuz zeuk be aberastasunak iguintzen.
- 634** Lurreko gauzai orrenbeste zaletasun!
–Laster urtuko yatzuz eskuetan;
izan be, aberatsaren ondasunak ez dira aregaz batera illobira jatsiten.
- 635** Iñor konturatu bagarik zerbait aukeratzekotan,
zuretzat txarrena aukeratzan ez ba'dozu,
ez dozu gogozko txirotasunik.
- 636** «Zure eskuetara aberastasunik ba'dator,
ez jarri areitan zure biotza» (Sal 51, 11).
–Adoretu zaitetz aberastasunik esku-zabal erabilteko.
Eta, bearrezkoa ba'da, emon egizu gatxen yatzuna.
–Izan zaitetz espiritu-laua.
- 637** Txirotasunik beragaz daroana maite ez ba'dozu,
ez dozu txirotasunik maite.
- 638** Bai daukazala txirotasunik emonbide santuak!
–¿Gogoan dozú? Diru-larrialdi baten, apostolugintza aretarako,
zuk zeukan azken-txanponeragiño emon zeutsan...
–Eta Jaungoikoaren Abade arek auxe esan eutsun:
«Neuk be daukadan guztia emongo dautsu».
–Zu, belauniko. Eta... «Jainko Guztiaaldunaren, Aitaren, Semearen eta
Espiritu Santuaren bedeinkapena,
zeugana jatsirik,
iraun bedi zukan beti», entzun zan.
–Oraindiño be, ondo ordainduta geratu zintzazaneko ustetan zagoz.



BERBA-NEGURRITASUNA

639 Isilik egonaz ez zara iñoiz be damutuko:
berba egiñaz, bai, sarritan.

640 ¿Zelan azartzen zara enparaduai ixilpekoa gordeteko esaten?
Ez zenduan ori esan-bearrik, zeuk gorde ba'zendu.

641 Berba-negurritasuna ez da ezkutu ta isilkerietan ibilten.
-Ain zuzen be, berezkotasuna da.

642 Berba-negurritasuna jardun gozoa da.
—¿Ez dozú kezka ta ondez barrukoi bat somatzen,
zure etxeko arazoak —bikaiñak eta egunorokoak—
etxeko epeletik enparantzako giro otzetara urteten diranean?

643 Ez egiozu edonori agertu zure apostoluzako txoko kutuna:
¿ez dozú ikusten, ba, orrelako gaiak ulertzeko,
mundua berekoikeriz itsututa dagoala?

644 Zagoz isilik: ez egizu aaztu,
zure asmobidea argitxo biztu-barri bat lez dala.
-Puzkada bat naikoa izan daiteke argi ori zure biotzean atzamatzeko.

645 Bai dala emonkorra isiltasuna!
Zure berba-negurritasun-ezaz galtzen dozuzan adore guztiak
zeure lanari kendutako indarrak dira.
-Zuurra izan zaitez.

646 Berba-negurridunagoa ba'zintzaz,
ez zenduke erostarik joko zure barruan,
zure berbetaldi askotxoan ostean eroan-bearra daukazun ago-samiñez.

647 Ez zaitez aalegindu "ulertu" zagiezan.
-Ez-ulertze orreik Jaungoikoagandik datoz:
zure lan neketsuak ezkutuan igaro daitez.

648 Isiltzen ba'zara, zure apostolu-egikizunak indartsuagoak izango dira
—zeinbati galtzen yaken "indarra" agotik!—
eta arrokeri-ate asko itxiko dozuz.

649 Beti geure buruak erakusten!
-Argazkiak, margoirudiak, estadistikak, eskatzen daustazuz.
-Ez dautsudaz bialduko. Oso agurgarria deritxat bestelako eritxiari;
baiña nik, gero munduan aundi izan gura-ta nabillela uste izango neuke...
eta zeruan nai dot nik aundi izan.

650 Zure jokabidea ulertzen ez dauan laguntalde santu asko dago.

—Ez zaitetz ulerterazoten aalegindu:
astia alperrik galduko zeuke,
eta barritsukeriak sortuko zeukez.

651 «Ez daukazu zugatzean zuztar eta buru,
dana batean izaterik, zugatz-izerdia izan ezik
—ezkutuan dabillan izerdia, arnasea, espiritua—».

—Berba orreik idatzi eutsuzan zure adiskideak
ba-ekian aundizale jator zintzazala.
—Eta bidea irakatsi eutsun:
berba-negurritasuna, buru-ukapena, zeure barruan ibiltea!

652 Berba-negurritasuna, gutxiren onbidea.
—¿Nok iraindu eban emakumea, berba-negurritasuna emakumearen onbidea
ez dala esanaz?

—Gizon asko dagoz, benetan —oso bizardunak— orren ikasi-bearra
dabenak!

653 Bai berba-negurritasun-eredu ederra Jaungoikoaren Amak
emoten dauskuna!
Jose Deunari be ez dautso misterioaren barri emoten (cfr. Mt 1, 18-24).
—Eskatu egiozu Andra Maria´ri, bear dozun berba-negurritasuna.

654 Destaiñak zorrotzu dau zure miiña. Isildu zaitetz!

655 Ez dautsut iñoiz be bear aiña goratuko
berba-negurritasunaren garrantzia.
—Zure burruka-iskilloaren ago zorrotza ez ba´da,
iskillo-kirtena dala esango dautsut.

656 Zure barruan asarrearen borborra somatzean,
isilik egon zaitetz beti.
—Baita zure asarrea oso bidezkoa izanarren be!
—Zure berba-negurritasun eta guzti, une orreitan,
nai dozun baiño geiago esaten dozu beti-ta.

P O Z A

657 Egiazko onbidea ez da itun [goibel] eta betilluna,
maitagarria ta alaia baiño.

658 Gauzak ondo jazoten ba´dira, poztu gaitzean,
azi-indarra emoten dauan Jaungoikoa bedeinkaturik.

659 Zure poza ez daitela gorputz-poza izan, abere osasuntsuarena lakoa;
dana ta zeu be, gure Aita Jaungoikoaren eskuetan jarteari darion
beste poz zerutar a baiño.

660 Apostolu ba´zara, ez zaitetz iñoiz be kikildu.
—Ez dago ezin-ausi daikezun eragozpenik.
—¿Zegaitik zagoz itun?

661 Aurpegi luzeak..., gizabide baldarrak...,
itxura barregarria..., bekozko illuna...:
¿Orrela adoretu nai dozuz enparaduak,
Kristo´ri jarraitu dagioen?

662 ¿Ez dagó pozaldirik?
—Gogoratu: “eragozpenen bat dago Jaungoikoaren eta nire artean”.
—Ia beti igarriko dozu.

663 Zure illunaldia garaitzeko,
burubide bat eskatzen daustazu.
—Esku onetik datorren osagai bat eskiñiko dautsut,
Santiago apostoluagandik datorrena:
—«¿Zuetarikoren bat atsekabetuta dago?» (St 5, 13).
—¿Itunak jo zaitu, ene seme?
—«Otoitz egin dagiala!» (id. id.).
—Ekin otoitzari! —Ikusi egizu gero.

664 Ez zaitetz itun bizi.
—Begiratu egizuz gauzak... “geure” erarago —kristau-erarago—.

665 Beti pozik egon zaitetzala nai dot,
poza zure bidearen osakide da-ta.
—Eskatu egizu guztiontzat poz zerutar berberori.

666 «Poztu daitezala Jaunaren billa diarduenak» (Kro 1ª, 16, 10).
—Argia, zure illunaldiaren zioak [errazoiak] aztertu dagizuzan.



BESTE ONBIDE BATZUK

667 Sinismen, Itxaropen eta Maitasun-egintzak,
Jaungoikoagaz alkartuta bizi diran arimen suaren arnas-bideak dira.

668 Guztia Maitasun utsez egizu, ezer irabazteko asmo bagarik,
saririk ez zigorrik ez bai legoan.
–Baiña indarbarriztu egizu zure biotzean zeruaren itxaropen aintzatsua.

669 Ondo dago, seme baten antzera, Jaungoikoari sari bagarik eta oparo
zerbitzea...
–Baiña ez zaitetz arduratu, noizbait saria be gura ba´dozu.

670 Jesus´ek auxe diño:
«Emazte, anai-arrebak, gurasoak, seme-alabak naiz lurrak
neugaitik itzi dagizanak,
irabazitzat bateko eun jasoko dau eta betiko bizitzako oiñordetza» (Mt 19,
29).
–Ea aurkitzen dozun lurbira osoan,
orren esku-zabalkiro ordaintzen dakianik!

671 Jesus... isilik.
–«Baiña Jesus isilik geratu zan» (Mk 14, 61).
–¿Zegaitik egiten dozu berba zuk,
zeure burua poztearren edo zuritzearren?
–¿Itandu ete-daikezu zuk:
«¿Zein da, ba, nire gaiztakeria?» (cfr. Mk 15, 14).

672 Bidebagekeria alaitu ta isilik ba´daroazu,
ziur egon: Jaungoikoaren egiazko zerbitzari zara.

673 Erantzun bikaiña, igarotako bidebagekeriagaitik erosta joten ziarduan
gazteari agura agurgarri arek emondakoa:
«¿Min emoten dautsu? —zirautsan—, ez zaitetz, ba, ona izan nai!...»

674 Ez egizu ifioiz be zure eritxirik emon, eskatzen ez ba´dautsue,
zure eritxi ori egokiena dala uste izanarren be.

675 Egia da pekatari izan zana. –Baiña ez egizu negurtu eritxi aldagatzex.
–Izan zaitetz errukibera, eta ez aaztu, oraindiño persona a Agustin barri
izan daitekela,
zu ala-olakoa zarean bitartean.

676 Mundu onetako gauza guztiak lur baiño ez dira.
–Jarri egizuz zure oinpean pillatuta,
eta zerutik urrago egongo zara.

677 Urrea, zidarra, bitxiak... lurra, sats-pilloak.
 -Eztikeriak, atsegin lizunak, griña-asealdiak...
 abere baten antzera, txarri baten antzera, oillar baten antzera,
 zezen baten antzera.

Aintza, gorapen bereziak, aundigarriak...,
 aizezko gauzak, arropuzkeriak, guzurak, utsa.

678 Ez jarri zure maitasunik bealde onetan.
 -Maitasun berekoiak dira...
 Zuk maite dozuzanak, bildurrez eta iguñez aldenduko dira zugandik,
 Jaunak bere ondora deitzen zaituanekoxe.
 -Bestelakoak dira maitasun iraunkorrak.

679 Jan-edankeria griña itxusia da.
 -¿Ez dautsú barregura apur bat eta beste iguin apur bat emoten,
 jaun gizontsu orreik, mai baten inguruan jesarrita ikusteak,
 aurpegi illun, eztarritik beera koipea ta koipea sartzen,
 jatea "elburu bat" bai litzan?

680 Ez egizu maian janariai buruz berba egin:
 zure duin ez dan trauskilkeri bat da ori.
 -Berba egizu zerbait bikaiñagoari buruz
 —arimeari naiz adimenari buruz—,
 eta orrela janbear ori goratu egingo dozu.

681 Maitik buru-ukapen txikiren bat egin bagarik jagiten zarean egunean,
 sinisbagako baten antzera jan dozu.

682 Geienetan, bear baiño geiago jaten dozu.
 -Eta, sarritan gorputzean be astuntasuna ta nekea sortzen dautsuzan
 asealdi orrek,
 izadiz gaiñetiko ondasunak dastatzeko aalmena kendu
 eta adimena moteldu egiten dautsuz.
 Lurrerako be, bai onbide egokia negurritasuna!

683 Zaldun kristau lez —orrela zareala diñozu—,
 irudi edo gurutzetxo bat laztantzen,
 otoitz bat agopean esaten,
 Jaungoikoaren Elizea erasoten dabenen aurka deadarka...,
 baita Sakramentuetara sarritan joaten be ikusten zaitut.

Baiña, ez zaitut ikusten zeure burua ukatzen,
 ez berbetaldi munduzalé batzuk baztartzen
 (egiaz, berbetaldi onei beste izen bat jarri daikeoegu),
 ez beekoakaz —ezta Kristo´ren Elizeagaz be!— eskuzabal jokatzan,
 ez zure anaiaren makalaldi bat ondo eroaten,
 ez zure arrokeria guztien onagaitik zapaltzen,
 ez zeuri buruzko zorro estutik urtetan,

ezta... zenbat eta zenbat gauza geiago...!

Ikusten zaitut... -Ez zaitut ikusten...

-Eta zuk... ¿zaldun kristaua zareala diñozu?

-Orreik bai negurri kaskarrak, Kristo´ri ezarten dautsazuzanak!


684 Zure adimena, zure begitarte txeratsua, zure gaitasuna...,
 alperrik galtzen dira:


ez dautsue izten orrei onurarik ataraten.

-Ausnartu ondo gogo-idazle baten berbok:

«Jaungoikoari eskiñitako intzentzua ez da galtzen.

-Geiago goratzen dau Jauna, zure doaiak alperrik erabilteak baiño
 doai orreik beeratzeak».





SAMIÑALDIAK

685 Ona da erasoaldia.

—¿Zer galtzen da?... Galduta dagoana ez da galtzen.

—Zugatza zuztarretik ataraten ez danean

—eta ez dago Eliz-zugatza atara daiken aize ta erasorik—,
adar igarrak bakarrik jausten dira...

Eta orreik ondo jausita dagoz.

686 Ondo da, bai: arako a gaiztoa izan da zuri buruz.

—Baiña, ¿zu ez zara gaiztoagoa izan Jaungoikoari buruz?

687 Jesús: Zu ibili zarean bazter guztietan,
ez da geratu biotzik Zuganako ardura bagarik.

—Edo Zu maite edo Zuri gorroto.

Gizon apostolu batek, bere eginbearra beteaz, Zeuri jarraitzen
dautsunean, ¿arritu naiteke —Kristo barri da-ta!—

zuk lez, aldeko edo aurkako zurrumurruak bere inguruan sortzen dauzala-ta?

688 Barriro be...: Esan dabela, idatzi dabela...;

alde, aurka...; borondate onaz, eta onegia ez danaz...;

isilguneak, guzur-baltzak, gorantzak eta gorapenak...;

tentelkeriak eta trebetasunak...

—Tentel baiño tentel ori!: ¿Zer ardura dautsu,
buru-biotzak Jaungoikoaz mozkortuta zuzen-zuzen zeure elburura zoazanean,
aizearen deadarra edo txitxarrearen abestia,
edo orroa, edo kurrizkadea, edo irrintzia?...

Gaiñera... ori naitaezkoa da:

ez zaitez aizeari ateak jarri nairik ibili.

689 Miiñak eraso egin dautsue,

eta, uste ez zenduan agotik datozalako,

geiago zauritu zaituen destaiñak ondo eroan dozuz.

Zure erantzun zerutarra, parkatzea izan bear da

—baita parkamena eskatzea be—

eta, erakuspide orreaz, izakiakandik biotza askatzen ikastea.

690 Samiñaldia, ezespina, Gurutzea... eldu daitenean,

auxe ausnartu egizu:

«¿zer da au nik merezi dodanaren aldean?»

691 ¿Atsekabe aundi baten azpian zagóz?

—¿Eragozpenak inguratu zaitué?

Esan egizu, oso astiro, agogozagarri lez, otoitz sendo ta adoretu au:

«Egin bedi, bete bedi, goretsia ta goratua izan bedi,

gizaldiz-gizaldi eta gauza guztien gaiñetik,

Jaungoikoaren Borondate guztiz maitagarri ta zuzena!

—Amén. —Amén».

Bene-benetan dirautsut: bakea lortuko dozu.

692 Ames labur bat dan emengo bizitza onetan atsekabeak daroazuz.

—Poztu zaitetz: zure Aita Jaungoikoak maite-maite zaitu,
eta, zuk eragozpenik jarten ez ba' dozu,
ames gaizto onen ostean,
iratzartze zorientzua emongo dautsu.

693 Min artu dozu, mesede a eskertu ez dautsuelako.

—Erantzun egiezu itaun bi onei:

«¿Orren eskerroneko zara zu Jesus' i buruz?...

¿Ez ete-dozu egin mesede ori, lurreko eskerrona irabazi nairik?»

694 Ez dakit zegaitik ikaratzen zarean.

—Kristo'ren arerioak naikoa zentzunbagako izan ziran beti.

Lazaro berbiztuta, Jesus'en Jaungoikotasuna autortu bear eben
buru-makur.

—Baiña, ez: «il dagigun bizitza emoten dauana!», esan eben (cfr. Jn 11, 53).

Eta gaur, atzo lez.

695 Burruka ta erasoaldietan, "onak" be, urrean,

zure bidea eragozpenez bete dagienean,

jaso egizu zure apostolu-biotza:

entzun Jesus'ek diñoana moztaza-azi ta legamiñari buruz.

—Eta esan egiozu:

«Azaldu egidazu, Jauná, ipuin ori» (cfr. Mt 13, 36; cfr. 32-33).

Eta geroko garaipenaren poza somatuko dozu:

zeruko egaziak zeure apostolutza jaiobarriaren babespean;
eta ora guztia jagita.

696 Samiña biotz kikilduz artzen ba' dozu,

poza ta bakea galtzen dozuz,

eta larrialdi orretatik gogo-irabazirik ez atarateko zorian jarten zara.

697 Munduko jazopenak zeure borondatezko giltzapera sartu zaitue;
bere inguru-mariz, urrean, espetxe bateko isiltasuna baiño okerrago dan
giltzapera.

—Zeure nortasunaren illunaldi batek jo zaitu.

Ez dozu girorik aurkitzen:

norberekeriak, jakinaiak, ezin-ikusiak eta susmurrak.

—Bai; ¿eta zer? ¿Aaztu egín yatzuz zure naimenaren askatasuna
eta zure "ume"-aalmena?

Orri ta lorarik (kanpotiko jardunik) agiri ezarren,

zustarrak (barru-bizikerea) ekiñean eta ugaritzen asi daitekez.

Ekin lanari: aldatuko da gauzen ibilbidea,

eta gero leen baiño frutu ugari ta gozoagoak emongo dozuz.

698 ¿Agiraka egiten dautsue? —Ez zaitetz asarratu,
zure arrokeriak aretara bultzatzen zaituanarren be.

—Burura ekarri egizu: «Ni bai maite nabela! Isillean gorde daben guztia!»

699 Gurutzeak, lanak, samiñaldiak:

bizi zaitetzan artean izango dozuz.

—Bide orretatik ibili zan Kristo,

eta «ikaslea ez da bere Irakaslea baiño geiago» (Mt 10, 24)..

700 Bai; ondo diñozu: burruka asko dago kanpotik,

eta onek, zelanbait, zuritu egiten zaitu.

—Baiña zure barrutik be ba-dago laguntzailerik

—aztertu astiro—

eta orretan ez dot atxakirik ikusten.

701 ¿Ez dozú entzun Irakaslearen ezpanetatik,

maatsondoaren eta maatsaienen ipuiña?

Poztu zaitetz: maatsaien zarean ezkerro, geiago eskatzen dautsu...

Eta iñausi egiten zaitu, «garau geiago ekarri dagizun» (cfr. Jn 15, 1-8).

Jakiña!: min emoten dau iñauaste ta atarate orrek.

Baiña gero, a bai mardultasuna frutuetañ!

a bai eldutasuna egintzetan!

702 Artega zagoz.

—Begira: zure barru-bizikeran edo inguruko munduan jazoa jazo,

ez egizu aaztu, jazoeren naiz personen garrantzia

"nondik begiratzen yakon" dala aundi edo txiki.

—Zagoz geldi: itzi aldiari joaten,

eta gero, urrundik eta otz-otz,

jazopenak eta laguntaldeak ikustean,

ikuspegi osoagoa lortuko dozu,

eta gauza bakotxa bere leku ta egiazko negurrian jarriko dozu.

Onela jokatzen ba' dozu, zintzoagoa izango zara

eta buruauste gutxiago izango dozu.

703 Gau txar bat ostatu sastar baten.

—Jesus'en Teresa Amak onelaxe azaldu ei' eban mundu onetako bizitza au.

—¿Ez al-dago benetan ederto esanda?

704 Ikustaldi bat prailletxe ospatsura.

—Emakume atzerritar ari erraiak errukitu yakozan,

etxe aretako txirotasuna ikustean:

«Oso bizikera gogorra eroaten dozue emen, ¿eztá?»

Eta prailleak, pozez beterik, auxe bakarrik erantzun eban:

«Geuk nai izandako bizikeran, geuk "nai dogunez" bizi gara gu».


705 ¿Artegatu? —Iñoiz be ez: ori bakea galtzea da.

706 Gorputz-makalaldia. -Lurjota zagoz...

-Atsedendu zaitez. Itzi egiteko ori.

-Joan osagilleagana. Esaneko izan zaitez, eta ez arduratu.

Laster biurtuko zara leengo zure bizikerara,
eta, zintzoa ba'zara,
obeagotu be egingo dozuz zure apostolu-lanak.



BARRU-BURRUKEA

707 Grazi-bizikerearen arrigarriak ausnartzean,

“gizon zaarraren” beste berbotsa

—berbots barrukoia, sarkorra—

entzuten ba'dozu, ez zaitez ikaratu.

Bere eskubide galduak deadarka eskatzen dauzan “eriotz-gorputza” da...

Naikoa dozu Jaunaren grazia:

zintzoa izan zaitez, eta irabazi egingo dozu (cfr. Ko 2^a, 12, 9).

708 Mundua, deabrua ta aragia, zori-zale guzurti batzuk dira.

Eta, barruan daroazun basatiaren makaltasuna erabilirik,

ezer balio ez dauan atsegin-ispillu sastar baten truke,

zeure Jaungoikoaren Odol birrerosle ta bizitan bustita dagozan urregorri,

txirlarri, dirdilari eta pitxigorriak eskatzen dautsuez,

zeure betikotasunaren ordain eta aberastasun diranak, ain zuzen be.

709 ¿Entzuten dozu?

—Beste bizibide, beste leku, beste mailla ta beste lanbide baten askozaz be onik geiago egingo zeuke.

—Egiten dozuna egiteko, ez dago adimen apartekoren bearrik!...

Baiña nik auxe dirautsut:

jarri zaituen tokian atsegin emoten dautsazu Jaungoikoari...

eta ausnartzen zenduan ori burutasun inperukoia da, argiro be argiro.

710 Zure Jaunartzeak otzak eta legorak diralako,
larritu eta biotzillundu egiten zara.

—Esan egidazu: Jaunartzera zoazanean,

¿zeure billa ala Jesus'en billa zoaz?

—Zeure billa ba'zoaz, ba-daukazu itun jarteko errazoirik naikoa.

—Baiña, Kristo'ren billa ba'zoaz —joan bear dozunez—,

¿Gurutzea baiño ezaugarri ziurragorik nai dozu,

Kristo aurkitu dozula jakiteko?

711 Beste jausialdi bat... eta, zelako jausialdia!...

¿Etsita geratuko zara? Ez: beeratu zure burua,

eta, zure Ama Maria'ren bitartez,

jo egizu Jesus'en Maitasun Errukitsura.

—«Miserere» bat: «Erruki izan zakidaz, Jauná!» (cfr. Sal 51, 1),

eta, gora biotz ori! —Ekin barrero.

712 Oso sakona da zure jausialdia!

—Jarri egizuz oiñarriak beekalde sakon orretan.

—Apala izan zaitez.

—«Biotz apala ta damutua ez dau baztarten Jaungoikoak» (cfr. Sal 51, 19).

713 Zu ez zoaz Jaungoikoaren aurka.
 —Zure jausialdiak makaltasunezkoak dira.
 —Bai; baiña makaltasun orreik sarritan izaten dozuz!
 —ez dakizuz galerazoten—,
 eta, nik zu gaiztotzat artzerik nai ez ba' dozu,
 gaizto ta tenteltzat artu bear izango zaitut.

714 Borondate bagariko "nai izatea" da zure nai izate ori,
 arriskutik iges egin ez dagizun arte.
 —Ez ibili zure buruari iruzur egin nairik, niri makala zareala esanaz.
 —Bildurtia, bai... orixe zara, eta ez da bardin.

715 Zure espirituaren dardara ori
 —inguratzen zaituan tentaldi ori—
 begi-estalki bat lez da zure arimearen begietarako.
 Illunpetan zagoz. —Ez zaitez bakarrik ibiltzen aalegindu,
 bakarrik jausi egingo zara-ta.
 —Zoaz zure Zuzendariagana —zure Nagusiagana—,
 eta berak entzunerazoko dautsuz Errapael Goiaingeruak
 Tobias' i zuzendutako berbok:
 «Izan adorea!, Jaungoikoak osatuko zaitu laster» (Tb 5, 13).
 —Izan zaitez esaneko, eta jausiko yatzuz begietatik ezkamak,
 jausiko da zure begietako estalkia,
 eta Jaungoikoak graziz eta bakez beteko zaitu.

716 «Ez dakit nire buruari uko egiten!»
 —idazten daustazu kikilduta—.
 —Eta nire erantzuna:
 «Baiña, ¿aalegindu ete-zara orretarako bideak jarten?»

717 Zorionekoak lurreko zoritxarrak!
 —Txirotasun, negar-malko, gorroto, bidebagekeri, irain...
 Guztia aal daikezu bizkortzen zaituanaren indarrak (cfr. Flp 4, 13).

718 Miñez zagoz... eta ez zeuke erosta josten asi nai.
 —Ez dautso ardura, erosta joteagaitik
 —gure aragi gaisoaren berezko erantzuna da—,
 zure naimenak, orain eta beti,
 Jaungoikoak nai dagiana nai dauan artean.

719 Ez zaitez iñoiz be etsita geratu.
 Ilda ta ustelduta egoan Lazaro:
 «Onezkero atsa dario, ba-dira lau egun il zala-ta» (Jn 11, 39).
 Jaungoikoaren goi-deia entzuten ba' dozu
 eta dei orri jarraitzen ba' dautsazu
 —«Lazaro, urten kanpora!»— (Jn 11, 43),
 Bizitzara biurtuko zara.

720 ¿Ori neketsua dala? Ba-dakit.
 Baiña, aurrera!: ez dago saririk —eta a bai saria!—
 burrukan adoretzu egiten dauanarentzat baiño.

721 Zure arimearen etxea koloka ba' dabil,
 guztia aidean dagoala ba' deritxazu...,
 artu laguntzat Jesus eta Maria' ganako uste osoa;
 asieratik bertatik arri ziur eta sendo orren gaiñean
 asi bear zenduan zure etxegintza.

722 Oraingo erasoaldia, erasoaldi luzea da.
 —Bearbada —baita ziur be—, ez zenduan ondo eroan oraiñartekoa...;
 beti be giza-pozgarri-billa ibili izan zintzazan.
 —Eta zure Aita Jaungoikoak zuzarretik atara ebazan giza-pozgarri guztiak,
 Bera baiño beste euskarririk izan ez dagizun.

723 ¿Guztia bardin yatzula?
 —Ez jardun zure buruari iruzur egiten.
 Jaungoikoagaitik sartu zenduan zure biotza ainbat egikizunetan,
 ainbat personakaz;
 baiña oraintxe berton arazo ta persona orrei buruz
 itaunen bat egingo ba' neuskizu,
 zeure gaiak buruz lez, gartsu erantzungo zeuskit.
 Ez; ez yatzu guztia bardin...;
 izan be, ez zara aspergatxa...;
 eta zure astirik geiena zeuretzat bear dozu;
 eta, zeuretzat lez, zeure egitekoetarako;
 azkenean be zeuk egin bear izango dozuz-ta..

724 Biotzean sua ta ura, otza ta beroa, griñatxoak eta Jaungoikoa...
 daukazuzala esaten daustazu;
 itxuraz, argizari bat Mikel Deunari iziotuta daukazu,
 eta beste bat deabruari.

Nasai egon zaitez: burrukan egin nai dagizun artean,
 ez dagoz zure biotzean argi bi iziotuta,
 bat bakarrik baiño: Goiaingeruarena.

725 Arerioak onelaxe jokatzen dau geienetan,
 berari gogor egingo dautsoen arimai buruz:
 on-itxuraz, bigun-bigun; errazoiak be... Jaungoikozkoak!,
 zaratarik atara bagarik...
 —Eta gero, zuzenbiderik ez dagoala konturatzen danean (ba-dagoanarren),
 lotsabakiro...,
 ea Judas' en antzeko etsipen damu bagariko bat lortzen ete-dauan.

726 Giza-pozaldi areik galtzean,
bakartasunezko biotz-ikara batek jo zaitu,
eta leza-zulo illunean ari mee batetik dingilizka lez geratu zara.

—Eta zure deadarrak eta zure laguntza-eske estuak,
iñok ez dauzala entzuten dirudi.

Ondo merezia dozu babes-baga ori.

—Apala izan zaitez, ez jardun zeure buruaren billa,
ezta zeure nasaitasunaren billa be;
maite egizu Gurutzea —ez da naikoa Gurutzea eroatea—
eta Jaunak entzun egingo dau zure otoitza.

—Eta zure zentzunak baretu egingo dira.

—Eta zure biotza barrero itxiko da.

—Eta bakea izango dozu.

727 Aragi bizitan. —Orrelaxe zagoz.

Edozek emoten dautsu min zentzunetan eta aalmenetan.

Eta guztia tentaldi yatzu...

Apala izan zaitez —dirautsut barrero be—;

egokera orretatik laster be laster ataraten zaituela ikusiko dozu;

eta samia ezti biurtuko yatzu,

eta zirikaldua sendotasun ziur...

Baiña, bitartean, biztu zure sinismena;

bete zaitez itxaropenez;

eta egin etenbagarik Maitasun-autortzak,

miiñez bakarrik egindakoak dirala uste dagizunarren be.

728 Gure sendotasun guztia iñok aurretiaz emondakoa da.

729 Oi, ene Jaungoikoa!: egunetik egunera gutxiago uste dot nigan,
eta geiago Zugan!

730 Zuk Jauna alde batera izten ez ba' dozu,

Berak ez zaitu zu alde batera itziko.

731 Itxaron egizu guztia Jesus' egandik;

zuk ez daukazu ezer, ez dozu ezer balio,

ezertxo be ezin egin daikezu.

—Zure burua Beragan izten ba' dozu,

Berak egingo dau guztia.

732 Oi, Jesús! —Zeugan artzen dot atsedena.

733 Izan egizu beti zure ustea Jaungoikoagan.

—Jaunak ez dau burrukarik galtzen.

A Z K E N A K

734 «Auxe da zuen ordua.

Auxe da illunpeen aal-izatearen ordua!» (Lk 22, 53).

—Beraz, ¿gizon gaiztoak bere ordua dau?

—Bai..., eta Jaungoikoak bere betikotasuna!

735 Apostolu ba'zara, bidea erraztuko dautsun adiskide on bat
izango dozu eriotza.

736 ¿Ikusi dozú, udagueneko arratsalde goibel baten,
orri igarrak lurrera jausten?

Arelaxe jausten dira arimak egunoro betikotasunera:

egunen baten, orri jausia zeu izango zara.

737 ¿Ez dozú entzun munduzaleen erosta baltza,
«igaroten dan egun bakotxa ilten joatea» dala diñoenean?

Nik, barriz, auxe dirautsut:

«Poztu zaitez, apostolu-biotz,

igaroten dan egun bakotxak

Biziagana urreratzen zaitu-ta».

738 “Beste” orreik, geldierazo ta ikaratu egiten dauz eriotzak.

—Gu, eriotzak —Bizitzak— adoretu ta aidatu egiten gaitu.

Areintzat azkena da; guretzat, asiera.

739 Ez izan eriotzari bildurrik.

—Onartu egizu oraindik, oparo...,

Jaungoikoak nai dagianean...

Jaungoikoak nai dagian eran...,

Jaungoikoak nai dagian tokian.

—Ez izan ezbairik:

aldi, toki eta erarik egokienean etorriko yatzu...,

zure Aita Jaungoikoak bialduta.

—Ondo etorria izan bedi gure arreba eriotza!

740 ¿Munduko zein zati atarako da orpotik,

ni joan naitenean, ni il naitenean?

741 ¿Ikusten dozú zelan usteltzen dan zirin atsetan,

zuk maite zenduanaren gorpua?

—Orixe da, ba, gorputz eder bat!

—Begiratu egizu ondo eta atara ondorenak.

742 Valdés Leal'en laukiak ikaratu egiten zaitue;
eta, izan be, ainbeste arakaitz [aragi ustel] ospatsu
—gotzaiñak, zaldunak—
usteltasun bizitan...

naitaez, ezinbesteko dardarea sarrerazo bear edonori!

Baiña, ¿Gandia'ko Dukearen antzia:
«Ez geiago ni, il daiteken jaunaren zerbitzari?»

743 Gizaurenak lez aundikiro iltea aitatzen daustazu.

—¿Ez deritxazu aundiagoa,
iñor konturatu bagarik,
oge eder baten eta zaldun bat lez...,
baiña maitez ilteari?

744 Zu —apostolu ba'zara— ez zara ilgo.

—Etxez aldatu egingo zara, eta besterik ez.

745 «Biziak eta illak epaitzera etorriko da»,
esaten dogu Kredoan.

—Ez al-dot aaztuko iñoiz be auzi ori,
eta zuzentasun ori, eta... Epaille ori!

746 ¿Ez dozú somatzen zure biotzean,
zure Aita Jaungoikoari,
epaitu bear zagizanean,
poz emoteko gogorik?

747 Jaunaren Errukia gogora ekarteko jokera aundia dago
arima munduzaleen artean.

—Eta jokera orrek okerbidetik jarraitzeko adorea emoten dautse.

Egia da, Jainko gure Jauna errukia izaten neurribagea dana,
baiña baita zuzena izaten be, eta Bera de Epaillea!

748 Adoretu zaitiez.

—¿Ez dakízu Paulo Deunak Korinto'koai dirautsena?:

«Bere lanari dagokionez artuko dau bakotxak bere saria»? (Ko 1^a, 3, 8; cfr.
Erm 2, 6).

749 Ba-dago inpernu bat.

—Tentelkeri antzeko esakerea deritxazu orri.

—Barrero esango dautsut: ba-dago inpernu bat!

Zuk, nire durundia barriztu egizu, egokiro,
lagun aren... eta beste aren belarrietan.

750 Entzun egidazu, jakintzan bekaiñetaragiño sartuta zagozan
gizon orrek, nik dirautsudan au:

zure jakintzak ezin ukatu daikez deabruaren azpi-lanak munduan.

Nire Ama Eliza Deunak aginduta,
egunoro eskatzen dautsoe Abadeak Mikel Deunari altara-oíñean,
«deabruaren zitalkeri ta maltzurkerien aurka» (cfr. Ef 6, 11-12).

751 Zerua: «ez dau begik ikusi,

ez belarrik entzun,

ez gizonaren biotzek somatu,

Bera maite dabenentzat Jaungoikoak atonduta daukana» (Ko 1^a, 2, 9).

¿Ez zaitue burrukarako bizkortzen Apostoluaren agerpen orreik?

752 Beti. —Betiko!

—Giza-gogoak lartxo aitatutako berbak,


atsegingarri dana luzatu —betikotu— nairik.

Berba guzurtiak, guztia amaitzen dan lur onetan.

753 Emengo au, amaitze etenbage bat da;

asi baiño leen amaitzen yaku atsegiña.





JAUNGOIKOAREN NAIA

754 Auxe da, atea edegi ta Zeruko Erreiñuan sartzeko giltza:
«Zeruko nire Aitaren naia beteten dauana...,
orixe sartuko da zeruko erreñuan!» (cfr. Mt 7, 21).

755 Gauza aundi asko etorri daitekez
—ez egizu aaztu—
zuk eta nik Jaungoikoak nai dauanez jokatzetik.

756 Gu, arriak gara; ibiltzen garean, sentitzen dogun eta naimen guztiz
askatuaren jabe garean arlanduak.
Jaungoikoa bera da ertzak bardintzen dauskuzan argiña;
Berak nai dauanez, maillu ta arpiko-zartadaz konpontzen eta eratzen gaitu.
Ez gaitez an aldendu, ez dagigun baztatu bere Naia;
edozela be, ezin galerazo daikeguz zartadak.
—Geiago minduko gara eta alperrik;
eta etxegintzarako gertu dagoan arlanduaren ordez,
laguntaldeak destaiñez zapalduko dauan
arrikaskar-pillo erabagea izango gara.

757 ¿Etsipena?... ¿Bateratasuna?...
Jaungoikoaren Borondatea nai izan!

758 Jaungoikoaren Naiari oneritxi apalak
bakea ta poza dakaz naitaez: Gurutzean zoriona.
—Orduantxe ikusten da ondo, Kristo´ren buztarria leuna dana,
eta Beraren sorta, astuna ez dana (cfr. Mt 11, 30).

759 «Bakea, bakea!», diraustazu.
—Bakea... borondate “onekoentzat” da.

760 Bakea daroan errazoi-bide bat,
eta Espiritu Santuak Jaungoikoaren Naia bete nai dabenai eginda
eskintzen dautsen errazoi-bidea, auxe da:
«Jaungoikoa da nire artzain, ez dot ezerean bearrik» (Sal 23, 1).
¿Zek artegatu daike, berba oneik benetan esaten dauzan arimeak?

761 Gizon askatu ori: lotu zakioz zure borondatezko morroitzari,
Jesus´ek beste arei buruz Ama Teresa´ri esan ei´eutsana,
zeuri buruz esan-bearrik izan ez dagian:
«Teresa: nai neban nik..., baiña gizonak ez dabe nai izan».

762 Emen Jaungoikoaren Naiagaz bat biurtzeko otoitza:
«¿Zeuk nai dózu, Jauná?... Neuk be nai dot!»

763 Ez ibili ezbaika: itzi egizu opariaren azkengarri izango dan
«egin bedi!» bat biotzetik ezpanetara urteten.

764 Apostolu danak, Jaungoikoagandik urrago dagoanean,
orokorragoa dala somatzen dau bere burua:
azi egiten yako biotza,
lurbira osoa Jesus'en oiñetara eroateko gurariaren barruan
guztiok eta dana sartu daitezán.

765 Naiago dot, ene Jaungoikoa!, zeure Borondatea,
ori bete bagarik —zentzunbagekeri ori jazo ba ledi—
Borondate ori bete bagarik izan daikedan aintza bera baiño

766 Zure naia Jaungoikoaren Borondatean itzi egizu:
orretantxe dago lurreko zorionaren izaerea.
—Esan egizu, ba:
«Nire janaria, Aren Naia betetea da» (cfr. Jn 4, 34).

767 Orixe da, izan be, aurrerantzean zure bakea ez galtzeko
jarraitu bear dozun bidea:
zure naia Jaungoikoaren naian iztea.

768 «Poza bakeaz batera», Jaunaren naipean jartearen frutu ziur
eta gozoa da.

769 Ardurabagetasuna ez da biotza legortuta eukitea...
Jesus'ek be ez eban euki-ta.

770 Urri-urri bizi zarealako,
ez zara oparo bizi izanda baiño zoribagekoagoa.

771 Beeratzen ebazan aretantxe goratzen dauz Jaungoikoak,
Beraren Naia beteten dabenak.

772 Itandu zure buruari egunean sarritan:
«¿Une onetan, egin bear dodana egiten ete-dot?»

773 Jesús, zeuk “nai” dagizuna... orixe maite dot.

774 Mailladiak:
Jaungoikoaren Naia eroan;
Jaungoikoaren Naiagaz bat etorri;
Jaungoikoaren Borondatea nai izan;
Jaungoikoaren Naia maite izan.

775 Jauná, zeure Naia ba da,
egin nire aragi gaisoaz Gurutzatu bat.

776 Ez zaitetz jira-bira azkenbagean asi:

«au onela edo orrela konpondu daitenean
—pentsatzen dozu zuk—,
oso eskuzabal izango nakio nire Jaungoikoari».


Baiña, ¿ez ete-dago Jesus be zeure eskuzabaltasun garbiari itxaroten,
gaiak zuk uste dozun baiño obeto Berak konpontzeko?

Erabagi sendoa, zuzena, bidezkoa:
“Egun baktzeko une baktxean,
Jaungoikoaren Borondatea eskuzabaltasunez beteten aaleginduko naz”.

777 Zeure borondatea, zeure erizpidea:
orixe da artetatzen zaituana.

778 Une laburtxo bat naikoa dozu...
Edozein egikizun asi aurretik, auxe ekarri burura:
“¿Zer eskatzen daust Jaungoikoak arazo onetan?”
Eta, orixe egizu!, Jaungoikoaren laguntzaz.





JAUNGOIKOAREN AINTZA

779 Egoki da Jaungoikoa aintzatzea,
betiko Bizitzan Beragaz osoro poz-artuko dogun aintza orren aurrerapenik
artu bagarik (emazte, seme, ospe...)

Gaiñera, Jaungoikoa eskuzabala da...

Bateko eun emoten dau, eta au, seme-alabetan be, egia utsa da.

–Seme-alaba bagarik geratzen dira asko Jaungoikoaren aintzagaitik,
eta gero millaka gogozko ume dabez.

–Umeak, bai, geu be zeruan dagoan gure Aitaren ume gareanez.

780 Jaungoikoarentzat aintza guztia.

–Gure ezerezaren autorpen biribilla da.

Bera, Jesus, dana da.

Guk, Bera bagarik, ez dogu ezer balio, ezer be ez.

Gure arrokeria orixe izango litzake: uste utsa;

Jaungoikoari egindako lapurretea.

“Ni” orrek ez dau iñon be agertu bear.

781 «Nigandik bananduta,

ezin ezer egin daikezue», esan dau Jaunak (Jn 15, 5)..

–Berenak soillik diran garaipenen jabe zu eta ni
egin ez gaitez an esan dau ori.

«Nigandik bananduta, ezer be ez!...»

782 ¿Zelan azartzen zara adimen-txinpart zerutar ori

—errazoimen ori—,

zure Jaunari aintza emon bearrean,

beste gauza batzuetarako erabilten?

783 Bizitzaren elburua Jaungoikoari aintza emotea ez ba litz,

iguingarri izango litzake bizitza;

geiago oraindiño: gorrotagarri.

784 Emon egiozu aintza “osoa” Jaungoikoari.

–“Estutu” naimen-tolarean, graziaren laguntzaz, zure egitada bakotxa,
egitada orreitan arrokeri-aztarrenik

eta “ni” orren atsegin-lorrazik geratu ez daiten.

785 «Zeu zara nire Jaungoikoa,

eskerrak emoten dautsudaz, ene Jaungoikoa,

goratu egiten zaitut» (Sal 118, 28).

–Egitarau bikaiña... zure maillako apostolu batentzat.


786 Ez zagizala munduari lotu iñongo zaletasunek,
Kristo'ri eta —Beronen bitartez, Onekin eta Onegan—
Aitari ta Espiritu Santuari aintza emoteko zaletasun Jaungoikozkoak baiño.

787 Zuzendu egizu zure asmoa, zuzendu, bai.
—Tentelkeri aundia izango litzake gero,
giza-asmoz jokatu dozulako,
zure laztasun ori agor geratzea!

788 Asmo garbia.
—Laster ezagutzen dozuz arrokeriaren lillurakeriak eta aragiaren erasoak...
eta gogor egiten dautsezu,
eta, graziaren laguntzaz, garaitzaille urtengo zara.
Baiña, lanera bultzatzen zaituen errazoiak,
ez deritxezu zearo garbiak, egitadarik santuenetan be...
eta giza-errazoiak ikuserazoten dautsun argi bat somatzen dozu or barruan...;
bear dozunez —Maitasun utsez, bere aintza osoa Jaungoikoari emoteko
asmoz soil-soillik—
lanean ez ete-diarduzun kezka artegatsua zure arima-gunetaragiño
sartzen dautsun argi bizia.

Erantzun egiozu bereala beti, eta esan egizu:
«Jauná, ez dot niretzat ezer nai.
—Guztia zeure aintzarako ta Maitasunagaitik».

789 Bai ondo garbitu dozula, benetan, zure asmoa,
«oraindik uko egiten dautsat giza-eskerron eta ordaiñari», esan dozunean!



LAGUN-BILLAKETA

790 ¿Ez zeuskioe gogo onez deadar egingo,
zuen inguruan zarataka diarduan gaztediari:
«Zorook olakook!, itzi egizuez alde batera biotza kaskartzen daben
eta sarritan doillortu be egiten daben gauza mundukoioek...;
itzi egizuez, bai, eta zatoze geugaz batera Maitasunaren atzetik?»

791 Ez daukazu “giza-dardararik”.
—Orrexegaitik erakarten dozuz orren gutxi zure aldera.
—Ez dozu, antza, larregi sinisten, zelakoak diran,
lurreko gauzak Kristo gaitik iztean datorkizuzan irabaziak.
Begira: bateko eun eta betiko bizitza!
—¿Txantxetako “irabazpidea” deritxazu orri?

792 «Eroan egizu txalupea itsaso zabalera» (Lk 5, 4).
—Bazartu, bildurti biurtzen zaituan illunkeria.
«Eta jaurti an sareak arrantzarako» (Lk 5, 4).
¿Ez dozú ikusten, Pedro'k lez esan daitezuna zeuk be:
«Zeuk diñozun ezkerro, botako dodaz, ba, sareak» (Lk 5, 5):
Jesus, zure izenean, arima-billa noa?

793 Lagun-billaketa.
—Egiatzko arima-zaletasunaren benetako ezaugarria da.

794 Erein. —«Ereille bat urten zan...» (cfr. Lk 8, 5).
Apostolu-arima: erein egizu parrastaka.
—Grazi-aizeak aldatuko dau zure azia beste solo batera,
jausi zan solo aretarako duin ez ba'da.
—Erein zuk, eta ziur egon:
aziak zustarra artu eta bere frutua ekarriko dau.

795 Eredu onak azi ona ereiten dau;
eta alkar-maitasunak ereitera beartzen gaitu guztiok.

796 Maitasun kaskarra da zure maitasun ori,
arima guztiak zeruratzeko zaletasunik ez ba'dozu.
—Maitasun argala da zurea,
beste apostoluai zure zortasuna ezarteko egarririk ez ba'dozu.

797 Ba-dakizu ez dana argia zure bidea.
—Eta ez dala argia, Jesus'i ur-urretik ez jarraitzean,
illunpean geratzen zarealako.
—¿Zeri diarduzu itxaroten erabagia artzeko?

798 ¿Errazoiak?...

¿Zelako errazoiak emon ete-etsazan Iñigo gizagaisoak Xabier jakintsuari?

799 Zu arritzen zaituanari, nik bidezkoa deritxat.

—¿Jaungoikoa zeure lanbidera urten yatzula?

Orrelaxe billatu ebazan leenengoak: Pedro, Ander, Jon, sare-artean: Mateo, zerga-batzailleen maian jesarrita egoala...

Eta, arritu zaitetz!, Paulo, kristauen azia galtzera gogo bizi az joan zanean.

800 «Soloaria ugaritsua da, baiña langilleak gutxi dira.

Eskatu egiozue, ba, soloariaren Jabeari, bere solora langilleak bialdu dagizala» (Mt 9, 37-38).

Otoitza da lagunak egiteko biderik eragilleena..

801 Oraindiño be entzuten da munduan deadar Jaungoikozko au:

«Lurrean sua iziotzera etorri naz, eta nik bai nai neukela su ori onezkero iziotuta egotea!» (Lk 12, 49).

—Eta ikusten dozu: ia lur guztia atzamatuta dago...

¿Zuk ez daukazu sua zabaltzeko adorerik?

802 Gizon jakintsu a, eta aundiki a, eta onbide ta zuurtasunez jantzitako beste a... erakarri egin nai zeukez zure apostolutzara.

Otoitz egizu, buru-ukatzeak egizuz, eta landu egizuz zure irakasbide ta berbaz.

—¿Ez datozala? —Ez estutu: ez da arein bearrik.

¿Pedro'ren sasoiari, leenengo amabi apostoluak baiño beste jakintsu ta aundikirik, zuur eta onbidetsurik ez egoala uste dozu?

803 Arimak zeure bidera erakarteko "grazia", "kako", daukazula esan dauste.

Eskertu egiozu Jaungoikoari doai ori: izan lankai, lankaiak billatzeko!

804 Lagun egidazu deadar egiten:

«Jesús, arimak!... Apostolu-arimak!: Zeuretzat dira, zeure aintzarako».

Ikusiko dozu zelan entzuten dauskun.

805 Entzun: or... ¿ez ete-dago geugaz batera etorri daiteken bat... edo bi?

806 Esan egiozu... orri, Jesukristo gauza guztien gaiñetik maite dagien berrogei ta amarren bat bear dodazala.

807 Zure adiskide ori, sakramentuetara sarritan doala, bizitza garbikoa eta ikasle ona dala diraustazu.

—Baiña ez da "egokitzen": buru-ukatze ta apostolutza aitatu ezkerro, itun jarri eta joan egiten da.

Ez zaitetz estutu. —Ez da ori zure aalegiñen "porrot" bat: Ebanjelariak dirauskun jazopena da zeatz-meatz:

«Bikaiña izan nai ba' dozu, daukazun guztia saldu eta obaria beartsuen artean banatu egizu» (buru-ukatzea)...

«Gero, zatoz barriro ona eta jarraitu egidazu» (apostolutza) (Mt 19, 21).

Gaztea be, «biotz-minduta joan zan» (Mt 19, 22): ez eutsan graziari erantzun nai izan.

808 «Beste albista bat: zoro bat geiago... zoroetxerako».

—Poz aundia dario "arrantzalearen" eskutizari.

Jaungoikoak eraginkortasunez bete dagizala zure sareak!

809 Lagun-billaketa.

—¿Nok ez dau bere apostolutza betikotu nai?

810 Erraiak jaten dautsuzan apostolutza-lagunak billatu-nai orrek, zure burua zearo "emonda" zagozala adierazoten dau.

811 ¿Gomutatzen zara?

—Zuk eta nik geure otoitza egiten giarduan, illunabarrean.

Ur-urrean, uraren zurrumurrua entzuten zan.

Eta Gaztela 'ko erri baketsuan, eun izkeratan eun berbots ezbardin entzun genduzan

«oraindiño ez dabela Kristo ezagutzen» ito-bearrez guri deadarka.

Lotsatu bagarik, Gurutzea laztandu zenduan zuk, eta apostoluen-apostolu izatea eskatu zeutsan.

812 Zure Aberri ta senideai buruzko maite-lokarriak


orren estuak izanarren,

ederto ulertzen dot zegaitik zagozan orren artega,

lurralde ta itsasoetan zear igaroteko egunari itxaroten

—urrun joan nai!—.

Soloariak loa galerezoten dautsu...



GAUZA TXIKIAK

813 Egizue guztia Maitasunez.

–Orrela ez dago gauza txikirik: dana aundi.

–Maitasunez gauza txikietan irautea, aundikiro jokatzea da.

814 Maitasunez burututako egitada txiki batek balio dauana!

815 ¿Santu izan nai dozu benetan?

–Bete egizu une bakotxeko eginbear txikia:

egizu egin bear dozuna, eta lotu zakioz sendo, egiten diarduzunari.

816 Gauza txikiak baztartzan ba´dozuz, bide okerretik zoaz.

817 Santutasun “aundia”, une bakotxeko “eginbear txikiak” betetea da.

818 Arima aundiak ardura aundiz begiratzen dabez gauza txikiak.

819 «Gutxian zintzoa» izan zintzazan ezkerro,
eskuartu egizu zure Jaunaren pozetan» (cfr. Mt 25, 21).

Kristo´ren berbak dira.

–«Gutxian zintzoa!...»

–¿Baztartuko ete-dozuz oraindiño be egikizun txikiak,
eurok beteten dabezana betiko aintza agintzen yakenarren be?

820 Ez egizuz gauzak asieraren txikiagaitik epaitu:
urteko bedarraren aziak eta eun urteko zugatzarenak
ez daukela aundi-txikian alderik, adierazo eusten bein.

821 Ez egizu aaztu, gaur aundi dan guztia,
lurrean txiki izanik asi dala.

–Aundi jaioten dana, itxurabagea da, eta il egiten da.

822 «Aundi dan zerbait egiteko aukerea eldu daitenean...
ordu bai!», diraustazu.

–¿Orduan? ¿Grazi-bizikerako Olinpiada orretan,
egunoroko gertuera ta saioaldi bagarik,
txapeldun urten zaitekezala sinisterazo nai daustazu,
edo-ta zeuk be orrelakorik sinisten dozu?

823 ¿Ikusi dozú zelan egin eben etxe aundi-arrigarri a?

–Adrillu bat eta beste bat. Millaka adrillu. Baiña bana-banaka.

–Eta zementu-zakuak, bana-banaka.

Eta arlanduak, etxegintza osoaren ondoan ezer gutxi diran arlanduak.

–Eta burdiña-zatiak.

–Eta egunoro-egunoro, ordu bardiñetan, lanean diarduen langilleak...

¿Ikusi zenduan zelan eregi eben etxe aundi-arrigarri a?...

—Gauza txikien bidez!

824 ¿Ez dozú ikusi zelako “txikikeritxoetan” dagoan giza-maitasuna?
—Jainko-Maitasuna be “txikikeritxoetan” dago, ba.

825 Jarraitu egizu oraingo eginbearra zintzo beteten.
—Lan apal, “beti bat”, kaskar ori,
egíñez-egíñez gatzatutako otoitza da;
amesetan egiten dozun beste egikizun aundi, zabal eta sakon orretarako
gertutzen zaituan otoitza.

826 Gizon errukarrion eskuarteko guztia
—santutasuna be bai—
uskeri utsez eiotako oial bat da;
zelako asmoz egiten dan, garaitasunezko edo zatarkerizko,
onbidezko edo pekatuzko oiala...
Edestiak [istoriak] egintza aundiak azaltzen dauz beti,
baiña gizaundiaren zeatzasun txikiz naastuta.
—Aintzat artuko al-dozuz —beti zuzen!— gauza txikiak!

827 ¿Iñoiz gelditu zara, “gutxi ugariak” zelako pillo arrigarria
egin daikeen ausnartzen?

828 Gogorra izan da bizi-ikasía: ez aaztu ikasbidea.
—Oraingo zure koldarkeria aundiak
—argi dago—
egunoroko zure koldarkeri koskorren besotik doaz.
Gauza txikietan irabazle urten “nai izan ez zendualako”,
“ezin izan dozu” aundietan irabazle urten.

829 Alargun beartsuak bere limosnatxoa Elizan iztean,
¿ez dozú argi-erraiñurik ikusi Jesus´en begietan?
—Emon egiozu zeuk be emon aal dagizuna:
merezimendua ez dago askoan edo gutxian,
emoterakoan dozun borondatean baiño.

830 Ez zakidaz... tentela izan.
Egia da tornillo koskor batena egiten dozuna —geienez—
Kristo´ren egikizun arrigarri orretan.
Baiña, ¿ba-dakízu tornillo ori nasaitzeak
edo bere lekutik urteteak dakarrena?:
beste zati aundiagoak be nasaitu egingo dira,
edo txirrinkak askatuta jausi...
Lana baldartu egingo da. —Makiña guztia be ondatu, bearbada...
Tornillo koskor bat izatearen aundia!

E G I K E R A

831 Osíñean jausitako arria zara —apostolu-biotz—
zuretaren artean.
—Sortu egizu zure inguruan, eredu ta berbearen bidez, leenengo obo bat...
eta onek beste bat... eta beste bat, eta beste bat... Geroago ta zabalagoa.
¿Ulertzen dózu orain zure egikizunaren aundia?

832 Orreik bai dirala aalegiñak munduan,
bakotxa bere bidetik urtetarren!
—¿Zer jazoko litzake giza-gorputzeko azur bakotxak,
berari ez dagokion lekua artuko ba´leu?
Orra munduko ondezaren iturria.
—Iraun zeure lekuan, ene seme:
zuk bai egin daikezula ortik gure Jaunaren erregetzaren alde!

833 Buruzagiok!...
—Sendotu zure naimena, Jaungoikoak buruzagi egin zagizan.
¿Ez dozú ikusten zelan jokatzten daben illunpeko alkarte madarikatuak?
—Ez dabe iñoiz be laguntalde aundirik irabazi.
—Euren sator-zuloetan, erriak zorabioz naasten dabezan gizon-deabru
artegatsu batzuk eratzen dabez,
euren atzetik laguntaldea gaiztakeri guztien amildegira...
eta inpernura... eroan dagien.
—Azi madarikatua daroe orreik.
Zeuk nai ba´dozu, utseziña dan Jaungoikoaren berba milla ta milla bidar
bedeinkatua eroango dozu.
Eskuzabala ba´zara... graziari erantzuten ba´dautsazu,
zure santutasunaz enparaduen santutasuna be lortuko dozu:
Kristo´ren erregetza:
«guztiak Pedro´gaz eta Maria´ren bitartez Jesus´egana».

834 ¿Ba-dagó, gero, gari eldua, usteldu daiten,
parra-parra lurrera jaurtitea baiño zorakeri aundiagorik?
—Zorakeri eskuzabal ori bagarik, ez litzake soloaririk egongo.
Seme: ¿zelan gabiz eskuzabaltasunez?

835 ¿Izarrak lez dirdira egin...,
goialde-gurariz zeruko su bizi izan?
Obeto: zuzi iziotua lez, ikutzen dozun guztia, oni su emonik,
ixillean erretea.
—Orixe da zure apostolutza; orretarakoxe zagoz lurrean.

836 Arerioaren ots-aunditzaille izatea zorakeri nabarmena izango litzake; eta, arerioa Jaungoikoaren arerio ba'da, pekatu astuna be astuna.

—Orregaitik, ez dot ifioiz be goratuko nire lan-arloan, bere jakitea Elizea erasoteko erabilten dauanaren jakintza.

837 Arrapaladan, arrapaladan!... Egin, egin!... Urdurikeria, ibilnai zoroa... Arrizko etxe arrigarriak... Barrutik: kutxatxo-ol meeak, perkalinak, kartoi bir-margoztuak... Arrapaladan!, egin!

—Eta laguntaldea arifñeketan: joan eta etorri.

Gaurkoari begira jarduten dabe orrelakoak: "orain"-ean "dagoz" beti.

—Zuk... gauzak betikotasun-begiz ikusi bear dozuz, amaia ta joana "orain"-ean eukirik.

Baretasuna. —Bakea. —Bizi betea zure barruan. Arrapalada bagarik, tokiz aldatzeko egarri bagarik, bizitzan dagokizun tokitik, gogozko argi-indarra sortzen dauan makiña indartsu batek lez, zeinbati emongo dautsezun argia, zeinbati adorea!..., zeure adorea ta argia galdu bagarik.

838 Ez egizu areriorik izan. —Adiskideak soillik... eskumakoak —onik egin ba'dautsue edo egin nai izan ba'dautsue— eta... ezkerrekoak —gatxik egin ba'dautsue edo egin nai izan ba'dautsue—.

839 Ez aitatu "zure" apostolutzako jazoerarik lagun-urkoaren onerako ez ba'da.

840 Zuen bizibidea ezkutuan gorde daitela, Jesus'ena ogei ta amar urtean lez.

841 Arimatea'ko Jose'k eta Nikodemo'k ezkutuan ikusten dabe Jesus egun lauan eta garaipen-orduan.

Baiña adoretu jokatzen dabe koldarkeri-orduan, Kristo'ganako euren maitasuna agintarien aurrean "ausardiz" agerturik (cfr. Mk 15, 43; Jn 3, 1-15; 19, 38-42). —Ikasi egizu.

842 Ez izan ardurarik, zeuen egintzetatik "ezagutzen ba'zaitue" (cfr. Mt 7, 16 ta 20).

—Kristo'ren lurrin ona da ori.

—Gaiñera, beti Beragaitik soil-soillik jarduten ba'dozue, poztu zaitez Bibliako berba areik beteten diralako: «Zuen egintza onak ikusi dagiezan eta orrela zeruko zuen Aita goratu dagien» (Mt 5, 16)

843 «Agirian ez, ezkutuan baiño» (Jn 7, 10): orrelaxe doa Jesus [Jerusalen'era] Txabola-jaietara.

Orrelaxe joango da Emaus-aldera, Kleopas eta onen lagunagaz (cfr. Lk 24, 15-16).

—Orrelaxe ikusten dau Jesus, berbiztuta, Magdala'ko Mari'k (cfr. Jn 20, 14).

Eta orrela, «ikasleak ez eben Jesus ezagutu» (cfr. Jn 21, 4).

Orrelaxe joan zan Jesus, Joan Ebanjelari Deunak azaltzen dauskun arrantza miraritsu aretara (cfr. Jn 21, 1-14).

Ezkutuago dago oraindiño Ostia Santuan, gizonakanako Maitasunez.

844 ¿Etxe ikaragarriak egin?... ¿Jauregi baliotsuak eregi?... Egin dagiezala... Eregi dagiezala...

Arimak! —Etxe orreitarako... jauregi orreitarako... arimak arnas-barriztu! Ederrak, benetan, eratzen dauskuezan etxeak!

845 Barre eragin daustazu, benetan, baita pentsarazo be bai, zure kirtenkeri onek!: «Nik... muturretik sartzen dodaz beti untzeak».

846 Bat nago zugaz: enparantzan millaka ta millaka gizonen aurrean deadarka baiño lan ohea egiten dozu —ikuskitzuna, ikuskizuna!— senitarteko alkarrizketa orreaz edo isilleko jardun bakar orreaz.

847 Zuetariko bakotxaren aalegiña. gauza utsa da bera bakarrik. —Kristo'ren Maitasunak alkartzen ba'zaitue, zuen eraginkortasunaz arrituta geratuko zaree.

848 Martiri izan nai dozu. —Neuk irakatsiko dautsut martiri-bide eroso bat: apostolu izan eta zure buruari apostolu ez esan: misinolari izan —misiñodun—, eta izen ori ez erabili; Jaungoikoaren-gizon izan, eta mundutar irudi: ezkutuan bizi!


849 Gizon! Itzi egizu orrelako ori barregarri. —Esan egiozu moda zaarrean bizi dala. Guzuzra ba-dirudi be, ba-dira oraindiño "zaldi-burdia" ibilbide eroso dala sinistu nairik diarduenak... —Au, uleorde-aldiko "bolterkeriak", edo 19'garren mendeko zelan-alako liberalkeriak barritzen diarduenentzat.

850 Orreik berbetaldiak! Ori narraskeria ta ori... iguiña! —Eta eurakaz bizi bear langelan, unibertsitatean, kirofanoan..., munduan. Mesedez isiltzeko eskatzen ba'dautsezu, iseka egiten dautsue. —Bekoki illuna jarten ba'dozu, euren artean geiago diardue. —Arekandik alde egiten ba'dozu, areik eurenari ekingo dautsoe.

¿Zer egin? Leenen, Jaungoikoari otoitz egin euren alde, eta ordain-ildura; gero... lotsea alde batera itzi eta "izkuntza txarraren apostolutza" erabili.

–Urrengoan alkar ikusi dagigunean, berbaz esango dautsut zelan eta zelan.

851 Bideratu dagiguzan gaztediaren "zentzunbagekeri egokiak".



GOGOZKO UMEZARO-BIDEA

852 Aalegindu zaitetz "gogozko umezaro-bidea" esagutzen, zure burua bide orri jarraitzera "beartu" bagarik.
–Itzi lanean Espiritu Santuari.

853 Umezaro-bidea. –Itzitasuna. –Gogo-umezaroa.
–Guzti au ez da tentelkeria,
kristau-bizikera gogor eta sendoa baiño.

854 Gogozko umezaro-bizitzan umeak esaten eta egiten dabezanak, ez dira iñoiz be umekeriak eta uskeriak.

855 Gogozko umezaroa ez da gogozko txaldankeria, ezta "bigunkeria" be;
bere erraztasun gatxagaitik, arimeak Jaungoikoaren eskutik asi eta jarraitu bear dauan bide zuur eta sendoa baiño.


856 Naimen-menpetasuna baiño gatxagoa dan adimen-menpetasuna eskatzen dau gogozko umezaroak.
–Adimena menperatzeko, Jaungoikoaren graziaz gaiñera, naimenaren ekin etenbagea bear da;
aragiari lez, bein eta barrero eta beti adimenari uko egiten dautsan naimenaren ekiña.
Ortik ulergaitz bat: "Umezaro-bidetxoari" jarraitzen dautsanak, ume izateko, bere naimena indartu ta sendotu bearra dauko.

857 Txiki izan, ume izan:
ausarditasun aundiak beti be umeenak dira!
–¿Nok eskatzen dau... illargia?
–¿Nok ez dau arriskurik aintzat artzen, bere amesa lortzeko?
"Jarri egizue" onelako ume bategan Jaungoikoaren grazia ugari, bere Borondatea (Jaungoikoarena) beteteko guraria, Jesus´eganako maitasun aundia, umearen negurriak artu daiken giza-jakintza guztia... eta orra or oraingo apostoluen izakerea, Jaungoikoak apostoluak nai dauzan eraberean, aurki.

858 Ume izan zaitetz. –Geiago be bai.
–Baiña ez zaitetz bizi "indioillarraren aroan":
¿Ikusi dozú "gizon-usteko" umekondo bat baiño, edo gizon "umekondo" bat baiño tentelkeri nabarmenagorik?
Ume, Jaungoikoari buruz;
eta, orrexegaitik, gizon sendo beste gaiñerakoetan.
–A!, eta itzi egizuz txakur txoliñaren marrötxo orreik.

- 859** Umekeri txiki batzuk egiteko makurtuta egoten gara batzuetan.
 –Lan txiki arrigarriak dira Jaungoikoaren aurrean;
 eta, oiturakeria sartzen ez ba'yake,
 emonkorrak be izango dira,
 Maitasuna beti emonkorra danez.
- 860** Urte biko umea zure ondoan baiño umeagoa zara zu
 Betikoa dan Jaungoikoaren aurrean.
 Eta ume izanaz gaiñera, Jaungoikoaren seme zara.
 –Ez egizu ori aaztu.
- 861** Umé: kiskaldu zaitetz zure gizon-aroko neurribagekeriak ordaintzeko
 guraritan.
- 862** Ume tentel ori: zure Zuzendariari zure arimako zerbait ezkutatu
 dagiozun egunean,
 ume izatea alde batera itzi dozu,
 lautasuna galdu egingo dozu-ta.
- 863** Umé: benetan ume izan zaitezanean,
 guztiaaldun izango zara.
- 864** Ume izan zaitezen artean,
 ez dozue samiñik izango:
 umeak berealaxe aaztuten dabez naibageak
 egunoroko euren jolasetara biurtzeko.
 –Orregaitik, itzitasunaz, ez dozue buruausterik izango,
 [zeruko] Aitagan babestuko zaree-ta.
- 865** Umé: eskiñi egiozuz egunoro [zeruko] Aitari... zeure makalaldiak be.
- 866** Umé on: eskiñi egiozu Bera ezagutzen ez daben langille arein izerdia;
 eskiñi egiozu eskola gaiztoetara joaten diran umetxo errukarrien berezko
 poza...
- 867** Umeak ez dauke ezer eurenik,
 guztia gurasoena dabe...,
 eta [zeruko] zure Aitak ondotxo daki bere ondasunak zaintzen.
- 868** Izan zaitez txiki, oso txiki.
 –Ez izan urte bi baiño, iru geienez.
 –Ume azitxoak, itxurabagako guzurrez euren gurasoi iruzur egin nairik
 diarduen barraban batzuk dira-ta.
 Izan be, gaiztakeriaren eta pekatu-griñaren jabe dira;
 baiña, pekatu egiñaz, gero ikasiko daben guzurra
 egi-itxurapean gordeteko azerikeria palta yake.

- Lautasuna galdu dabe,
 eta, Jaungoikoaren aurrean ume izateko,
 lautasuna bear-bearrezkoa da.
- 869** Baiña, umé!, ¿zegaitik dozu txikimako izibiteko orrenbeste ardura?
- 870** Ez egizu aundi izan nai.
 –Ume, ume beti, zaarraren-zaarrez ilgo ba'zaitez be.
 –Ume bat, topo egiñik, jausten danean, iñor ez da arritzen...:
 bere aita berealaxe joaten yako jasotera.
 Estropuzu egiñik jausten dana aundia danean,
 ikusleen leenengo eragiña barregurea izaten da.
 –Batzuetan, leenengo eragin ori igarotean,
 leen barregarri zana errukarri biurtzen da.
 –Baiña aundia bera bakarrik jagi bear izango da.
 Egunoroko zure bizi-ikasi illuna
 estropuzu ta jausialdiz beterik dago.
 ¿Zer izango litzake zutzaz,
 geroago ta umeagoa ez ba'zintzaz?
 Ez egizu aundi izan nai.
 –Ume, eta, jausi zaitezanean, zure Aita Jaungoikoaren eskuak jaso zagizala.
- 871** Umé, itzitasunak esaneko izatea eskatzen dau.
- 872** Ez egizu aaztu, umeak eta umeen antzeko egiten diranak dauzala
 begikoen gure Jaunak.
- 873** Ume-arima baten gauza ulergatxak.
 –Jesus'ek, munduari onak deritxazan jazoerak bialdu dagitzuzanean,
 negar egizu zure biotzean,
 Aren ontasuna ta zure gaiztakeriak gogoraturik;
 laguntaldeari txarrak deritxazan jazoerak bialdu dagitzuzanean,
 poztu zaitez zure biotzean,
 beti zeuri dagokizuna emoten dautsu-ta.
 Orduantxe da Gurutzea maite izateko ordu ederra.
- 874** Ume ausarta, deadar egizu:
 «Ori bai maitasuna Teresa'rena!
 –Ori bai zaletasuna Xabier'ena!
 –Bai gizon arrigarria Paulo Deuna!
 –Oi, Jesús: nik, ba... Paulo'k, Xabier'ek eta Teresa'k baiño
 geiago maite zaitut!»



UMEZARO-BIZITZA

875 Ez egizu aaztu, ume tentel orrek,
Maitasunak guztiaaldun biurtu zaituala.

876 Umé: ez egizu galdu Sagrarioetan "bildur bagarik" sartzeko
oitura maitetsu ori.

877 «Ume on» dirautsudanean,
ez uste izan kikilduta eta geldotuta ikusten zaitudanik.
-Gizontsu ta... zentzundun ez ba'zara,
apostolu bat izan bearrean,
txingote barregarri bat izango zara.

878 Ume on: esan egiozu Jesus'í egunean sarritan:
«Maite zaitut, maite zaitut, maite zaitut...»

879 Zure ezeukiak larritu zagiezanean,
ez zaitetz itun jarri.
-Arrotu zaitetz, Paulo Deuna lez, zure geisoaldietan:
barregarriaren bildur bagarik, aundien zifruak egitea,
umeai laketu egiten yake-ta.

880 Zure erru ta utsegiteak eta zure jausialdi aundiak be,
ez zagiezala Jaungoikoagandik urrundu.
-Ume makala, zenzundun ba'da,
bere aitaren ondoan egoten aalegintzen da.

881 Ez zaitetz larritu, Berak eskatzen dautsuzan gauza txiki orreik egitean
asarratzen ba'zara.

-Egingo dozu, bai, irribarre...

¿Ez dozú ikusten zein borondate txarrez emoten dautsan ume lauak
bere aita zirikatzaillari, eskuetako mizkinkeria?

-Baiña, emon egiten dautso: maitasunak irabazi dau.

882 Gauzak ondo, oso ondo egin nai dozuzanean,
azkenean be txarrago egiten dozuz.

-Makurtu zaitetz Jesus'en aurrean, eta esan egiozu:

«¿Ikusi dozú zelan egiten dodan guztia txarto?»

-Laguntza aundia emoten ez ba'daustazu,
oraindiño be okerrago egingo dot!

Erruki izan zakioz zure ume oni;

begira: egunoro orrialde aundi bat idatzi nai dot nire bizitzako liburuan...

Baiña, baldar utsa naz!

Eskua Irakasleak eroaten ez ba'daust,
taket lerdenen orde,

iñori ezin erakutsi daikeodazan gauza biurtuak
eta zirriborroak urteten dira nire lumatik.

Oraindik, Jesús, bion artean idatziko dogu beti».

883 «Baldarra baiño baldarragoa naz, ene Maite;
eta, laztandu nai dodanean be, min emoten dot.

—Leundu egizuz nire arimearen ikutu-erak;

emon egidazu, emon egidazu, arren,

umezaro-bizitzaren sendotasunaz batera,

umeak euren gurasoai buruzko artuemon maitekorretan izaten daben
eratasun gozo-txeratsua».

884 Atsekabez beterik zagoz.

—Geroago ta argiago ikusten dozuz atsekabe orreik.

—Baiña ez zagiezala ikaratu.

—Ondo be ondo daki Berak beste fruturik ezin emon daikezuna.

Konturatu bagarik dozuzan jausialdiak

—ume-jausialdiak—

ardura geiago sortzen dabe zure Aita Jaungoikoagan.

Eta zure Ama Maria, zu beti bere esku maitekorretik eroatera beartzen dabe;

atara ortik irabazia,

eta, Jaunak zu egunoro lurretik jasotean,

besarkatu egizu Bera zure indar guztiaz,

eta jarri zure buru errukarria bere bular edegiaren gainean,

bere Biotz-taupada maitetsuak zoratuta itzi zagiezan.

885 Arantza bat. —Eta beste bat, eta beste bat.

—Ondo eroan egizuz, gizon!

¿Ez dozú ikusten ume txiki utsa zareana,

eta zure bizitzan —zure bidetxoan— gurutze kaskar orreik soillik eskiñi
daikezuzana?

886 Ume-biotz batek, bere parkamen-gurariak Jaunari agertzen
dautsazanean,

laster emongo dautsazan uste ziurrean egon bear dau;

leenagoko gaiztakeriakatik narraz daroan buztan zikin ori

Jesus'ek atara egingo dautso arimatik;

lurrari josita izten dauan pixu illa

—loikeri guztien ondakiña—

kendu egingo dautso;

umeagandik urrun jaurtiko dau onen biotzeko lurkoikeri guztia,

umea Jaungoikoaganagiño igo daiten,

Maitasun-sugar bizia dan Aregan erretera.

887 Zure gogo-urri, jausialdi ta atzerapen biotz-oztugarriak
—itxurazkoak bakarrik, urrean—

zerbait baliotsurik ausi dozun susmoa emoten dautsue sarritan
(zure santutasuna).

Ez zaitez larritu; grazi-bizikeran be eldu egiozu ume lauak
orrelako estualdietan erabilten daben jokabide zentzundunari.

Euren aitari oso begiko yakon gauzaren bat ausi dabe
—geienetan makalkeriz—.

—Damu dabe, negar egiten dabe bearbada;

baiña... euren argalkeriz ondatutako gauzearen jabeagana doaz
pozgarri-billa...,

eta aitak aaztu egiten dau alperrik galdutakoaren balioa

—aundia izanarren be—,

eta, samurkiro, ez dau parkatu bakarrik egiten,

baita poztu ta adoretu be egiten dau umetxoa.

—Ikasi egizu!

888 Zuen otoitza gizontsua izan daitela!

—Ume izatea ez da eme izatea.

889 Jesus maite dauanarentzat,

otoitza, otoitz legorra be bai,

beti samiañaldiak urratzen dauzan gozotasuna da;

orrelakoetan, umea, osakai garratza artuta gero,

azukara-billa doan gurariak, joan bear da otoitzera.

890 Oarkabetu egiten zara otoitzean.

—Aalegindu zaitez oarkabe-aldiak galerazoten;

baiña ez ardurarik izan, aalegiñak egiñarren be

zeure orretan jarraitzen ba' dozu.

¿Ez dozú ikusten egunoroko bizitzan,

zelan egiten daben jolasean ume zentzundunak be euren inguruko gauzakaz,

euren aitaren errazoibideak aintzat artu bagarik?

—Ori ez da maitasunik edo begirunerik-eza;

ori, umearen berarizko makaltasuna ta txikitasuna da.

Begira ba: Jaungoikoaren aurrean ume bat zara.

891 Otoitz egitean, uxatu egizuz gogapen ez-egokiak,
kalezain bat ba'zintzaz lez;

orretarakoxe daukazu zure ume-bizitzagaitik dagokizun

borondate adoretu ori.

—Batzuetan, geldierazo egizuz gogapen areik,

an naasten diran guztien alde otoitz bat egin dagizun.

Ekin!, aurrera... Orrelaxe, ordua jo arte.

—Era orretako otoitza alperrekoa dala deritxazunean,

poztu zaitez,

eta sinistu egizu atsegin emon dautsazula Jesus' i.

892 Ederra, benetan, ume izatea!
 –Gizon batek mesede bat eskatzen ba'dautsu,
 merezi dauan ala ez begiratzen dozu.

Eskatzen dauana umetxo bat danean
 —umetxoak ez dauke irabazirik—,
 naikoa dau auxe esatea: «Urliaren semea naz».

Oi, Jauná! —esan egiozu biotz-biotzez—,
 Ni... Jaungoikoaren seme naz!

893 Iraun.

–Ate bat jotén dauan umeak bein eta barrero jotén dau,
 eta sarritan..., eta gogor, eta luzaro eta lotsa bagarik.
 Eta umetxo ausartaren lautasunak
 beingo baten austen dau atea zabaltzera datorrenaren asarrea...
 –Orrelaxe zeu be Jaungoikoagaz.

894 ¿Ikusi dozú umetxoen eskerrona?

–Izan zaitez arein antzeko:
 eurak lez, onean naiz txarrean, beti Jesus'í esanez:
 «Bai ona zareala! Bai ona zareala!...»

Esaldi ori, biotzez esanda,
 bakera eroango zaituan umezaro-bidea dozu,
 barreak eta negarrak negurriz dozuzala,
 baiña Maitasuna pixu ta negurri bagarik.

895 Lanak lurjota izten dau zure gorputza,
 eta ezin egin daikezu otoitzik.

–Beti zeure Aitaren aurrean zagoz.
 –Berba egiten ez ba'dautsazu,
 noizean-bein begiratu bat eskiñi egiozu
 ume txiki baten antzera...
 eta Berak irribarre egingo dautsu.

896 ¿Jaunartze-osteko esker-emotean, beti, ezinbestean,
 zure ezpanetara leenengoz eltzen dana eskaria dala?...:
 «Jesús, auxe emon egidazu: Jesús, arima ori: egikizun ori?»

Ez zaitez larritu, ezta asarratu be:
 ¿ez dozú ikusten
 —aita ona eta semea ume laua ta ausarta izanik—
 umeak zelan sartzén dauzan eskutxoak mizkinkeri-billa aitaren sakelean,
 ondo-etorri-laztana emon aurretik?
 –Beraz...

897 Gure naimena guztiaalduna da graziagaz, Jaungoikoaren aurrean.

–Jaunaren aurkako ainbeste iraiñen aurrean,
 esate baterako trenean goazanean,
 Jesus'í egiazko borondatez esaten ba'dautsagu:
 «Ene Jaungoikoa, tren onen txirrinka bakotxak emoten dauzan
 jira-bira aiña irain-ordain eta maitasun-egintza egin nai neukez...»,
 ori esanda bereala, Jesus'en aurrean, benetan gure gogoaren negurriz
 iraingetu ta maitatu dogu Jaungoikoa.

“Zorakeri” onek be ba-dau gogozko umezaroaz ikustekorik:
 ume errubagearen, eta bere semeagaitik zoratuta dagoan aitaren arteko
 betiko alkarrizketa da:

–¿Zenbat maite nozu? Esan egizu!
 –Eta umetxoak, izkinka: Mi-llo-e-ka as-ko!

898 “Umezaro-bidetik” ba'zoaz,
 ume zarealako, mizkintzale be izango zara gogo-bizikeran.
 –Gogoratu egizuz, zure urtekoen antzera,
 zure Amak gordeta daukazan gauza gozoak.

Eta ori, egunean sarritan. Une bateko egitekoa da guztia:
 Maria... Jesus... Sagrarioa... Jaunartzea... Maitasuna... samiña...
 garbitokiko arima bedeinkatuak... [zerurako] burrukan diarduenak:
 Aita Santua, Abadeak... eliztarrak... zeure arimea... zeuretarren arimak...
 Aingeru Zaintzailleak... pekatariak...

899 Ildura txiki orrek bai emoten dautsuzala lanak!

–Burrukan diarduzu. «¿Zegaitik lotu orren zintzoro bizi-arauari, erlojuari?»,
 esaten dautsuela dirudi.
 –Begira: ¿ikusi dozú, umetxoai zein erraz egiten dautseen iruzur?
 –Ez dabe osakai garratza artu nai, baiña...
 «Tira! —esaten dautsee—, koillarakada au aitagaitik;
 beste au, zeure amamatxoagaitik...»
 Eta orrela, guztia artu arte.


Zeuk be bardin: ordu lauren bat geiago zurdatsa [zilizioa] jantzita,
 garbitokiko arimakaitik;
 bost miñutu geiago, zeure gurasoakaitik;
 beste bost, zeure apostolutzako anaiakaitik...
 Zeure ordu-banaketak agintzen dautsun arte.

Orrela jokatu ezkeru, bai dala baliotsua zure ildurea!

900 Ez zagoz bakarrik. –Eroan egizu pozik samiñaldia.

–Ume gaiso: ez dozu zure eskuan Amaren eskurik somatzen: egia da.
 –Baiña... ¿ikusi dozú lurreko amak,
 euren umetxoen ondolik beso-zabalik,
 txikitxoak iñoren laguntza bagarik
 leenengo oinkadak dardaratsu emoten asten diranean?
 –Ez zagoz bakarrik: Maria zeure ondoan dago.

901 Jesús: Maitasunez ilgo ba'nintz be,
ez neuskizu beingotxoan ordainduko,
ni "ume" biurtzeko isuri dozun grazia.



D E I A

902 ¿Zegaitik ez dautsazu Jaungoikoari zeure burua eskintzen,
bein betiko... benetan... oraintxe!?

903 Zure bidea argi ikusten ba' dozú, jarraitu egiozu.
-¿Zegaitik ez dozu alde batera izten zu lotzen zaituan koldarkeria?

904 «Zoaze, iragarri egizue Barri Ona [Ebanjelioa]...
Neu egongo naz zuekaz...» (cfr. Mt 28, 19-20; cfr. Mk 16, 15).
-Auxe esan dau Jesus'ek... eta zeuri esan dautsu.

905 Ainbat gizonen Aberri-zaletasunak
—goragarria da—
“zerbitzaritza” ta “gudaritza” biurtzen dau arein bizikerea.
-Ez egizu aaztu: Kristo'k be ba-daukaz bere “gudari-taldeak”,
baita laguntalde aukeratua be, bere “zerbitzurako”.

906 «Aren Erregetzak ez dau azkenik izango!» (Lk 1, 33).
-¿Ez dautsú pozik emoten orrelako erregetzaren alde lan egiteak?

907 «¿Ez dakizue, ba, neure Aitaren gaietan
jardun bear dodana?» (Lk 2, 49).
Jesus umearen erantzuna. Eta, galduta dagoalakotan,
iru egunez billa dabilkion bere Ama lako ama bati emondako erantzuna.
-Mateo Deunak dakazan Kristo'ren beste berba areik
osagarritzat daukazan erantzuna:
«Bere aita naiz ama, ni baiño geiago maite dauana,
ez da niretzako duin» (Mt, 10, 37).

908 Larregikoa da zure ergelkeri ori,
apostolutza-egikizunen balioa begiz ikusten danetik negurtzen dozunean.
-Erizpide orreaz, eskukada bat arri-bitxi baiño ikatz-kintal bat
geiago nai bear izango zeuke.

909 Zure burua bere eskuetan jarri dozun ezkerro,
eskatu egiozu bizikera barri bat, “bir-sillu” bat:
zure Jaungoikoaren-gizon izateari jatortasun geiago emon dagiozun.

910 Ori —zure deia, zure jarraibidea— zorakeri bat da.
—Eta besteak —zure adiskideak, zure anaiak— zoro utsak...
¿Ez dozú noizbait entzun deadar ori zure barru-barruan?
—Erantzun egizu adoretzu, baietz, Jaungoikoari eskerrak, eta pozik,
“zoroetxeko” bizikide zareala.

911 «“Au” ondo joaten eta zabaltzen ikusteko guztiok daukagun gurari bizia, artegatasun biurtu yakula dirudi —idazten daustazu—. Ea noiz lertzen dan, noiz urratzen dan..., ¿noiz izango da geurea mundu ori?»

Eta auxe diraustazu gaiñera:
«Guraria ez da alperrekoa izango otoitz biurtzen ba´yaku, Jaunari eskatzeko eta orretara beartzeko: orduan bai irabaziko dogula aldi eder bat!»

912 Ondo ulertzen dot, egiteko dagoan lana ikustean, zure geldi-egote naitaezkoak damotsun biotzerrea.
—Zure biotza ez da bere barruan mundua artzeko naikoa, eta... legezko lanbide txiki baten negurritan sartu bear...
Baiña, ¿noizko izten dogu «egin bedi» ori?... (cfr. Lk 1, 38).

913 Ez izan ezbairik: Jaunak egin aal izan dautsun mesederik beiñena da dei ori. —Eskertu egiozu.

914 Ori bai naibagea, jarraibide bagariko laguntalde orreik —aundiak, txikiak eta erdikoak— emoten dabena!
—Arimea daukenik be ez dakiela dirudi: talde, artalde..., txarritalde... dira.
Jesús: guk, taldea laguntalde eta artaldea gudarozte biurtuko dogu zure Maitasun Errukitsuaren laguntzaz, eta... zikin izan nai ez dabenak txarritaldetik garbituta atarako doguz.

915 Jaungoikoaren egintzak ez dira burdi-palanka, ezta arrimailla be.

916 Jauná, zoro biurtu gagizuz, beste asko zeure apostolutzara ekarri dagizan zorotasun likatsu orreaz.

917 «¿Ez genduan, ba, sugarretan biotza, bidean Aregaz berba egitean?» (Lk 24, 32).
Emaus´ko ikasleen berba oneik berez urten bear leukee —apostolu ba´zara—
zure lankideen ezpanetatik,
euren bizitza-bidean zeu aurkituta gero.

918 Zoaz apostolutzara guztia emotera, eta ez lurkoi dan zerbait billatzera.

919 Jaunak apostolu aukeratu zaituanean, “Jaungoikoaren seme” zareala gomutarazo dautsu, ori iñoiz be aaztu ez dagizun.

920 Zuetariko bakotxak apostoluen apostolu izaten aalegiñak egin bear dauz.

921 Gatza zara zu, apostolu-biotz.
—«Ona da gatza», irakurten dogu Ebanjelio Santuan (Lk 14, 34); «baiña gatza gazatzen ba´da» (Lk id.)..., ezetako be ez da, ez lurrerako, ez sastegirako; kanpora jaurtiten dabe alperrekoa lez.

Gatza zara zu, apostolu-biotz.
—Baiña, ondatzen ba´zara...

922 Ene seme: zure apostolutza maite ba´dozu, ziur egon: Jaungoikoa be maite dozu.

923 Apostolutza zeure arnasa biurtu dagizun egunean, apostolutza ori lurreko ta inpernuko arerioen maltzurkeri guztiai eutsiko dautsen bular-babesa izango yatzu.

924 Eskatu egizu egunoro zeure iraupena, baita zure apostolutzako lagunena iraupena be; izan be, gure arerioak —deabruak— ondo daki bere areriorik aundienak zeuek zareena...
Eta zuetariko batek zuen artetik alde egiteak, deabruari emoten dautsan atsegiña!

925 Erlejioso zintzoak aalegin aundiak egiten dabez ordenako edo anaidiko leenengo bizikerea ikasten, jokabide ari lotzeko asmotan.
Zeu be —zaldun kristau— aalegindu zaitez, Pedro, Paulo ta Joan´egaz artuemonak izan ebezan bizikerea, eta ia Irakaslearen Eriotza ta Biztueraren testigu izan ziran Jesus´en ikasleen bizikerea ezagutu ta jarraitzen.

926 Itandu egin daustazu... eta emen nire erantzuna: Jaungoikoak nagusien bidez jarten zaituan toki, eginbide ta maillan santukiro bizi izatea,
orixe da zure santutasuna.

927 Otoitz egizue alkarren alde.
—¿A koloka dagoala?... ¿Bestea?...
Ekin otoitzari, bakerik galdu bagarik.
—¿Ba-doazala? ¿Galdu egin dirala?...
Jaunak betidanik zenbatuta zaukez!

928 Errazoa dozu.


—Tontorretik ikusten dan ikuspegi guztian
—idazten daustazu—

eta kilometro askoren inguruan,
ez da zelai bat be agiri;
mendi bakotxaren atzean beste mendi bat.
Tokiren bate(ta)n bardin-uneren bat ba-dirudiarren,
bee-laiñoa ezereztuta batera,
ezkutuan egoan mendikate bat agertzen da.

Orrelakoxea da, orrelakoxea izan bear da
zure apostolutzaren agiri-ingurua:
mundu osoa zearkatu-bearra dago.

Baiña ez dago bide "egiñik" zuentzat...

Zeuek egingo dozue, zeuen oinkadaz, mendietan zear.



A P O S T O L U A

929 ¿Gurutzea zure bularrean?... —Ederto.

Baiña... Gurutzea zure sorbaldan,

Gurutzea zure aragian,

Gurutzea zure adimenean.

—Orrelaxe bizi izango naz Kristo'gaitik, Kristo'gaz eta Kristo'gan;
orrelaxe bakarrik izango zara apostolu.

930 Apostolu-arima!: leenen, zeu.

—Jaunak esan dau Mateo Deunaren bidez:

«Auzi-egunean askok auxe sango dauste:

'Jauná, Jauná!: zure izenaz Jaungoikoaren mandatua iragarri dogu,
eta zure izenaz mirari asko egin doguz'.

Alan be, nik auxe erantzungo dautset:

'Ez zaituet iñoiz be ezagutu.

Alde nigandik, bizitza guztia gaiztakeritan egin dozu enok!'» (Mt 7, 22-23).

«Besteai Barri Ona irakatsita gero

—diño Paulo Apostoluak—,

neure burua galtzea jazo ez dakidan» (Ko 1º, 9, 27).

931 Loiola'ko Iñazio Deunaren guda-jakitori trebeak,

inpernuko arerio-burua deabru-talde ugariari dei bat egiten lez aurkezten
dausku;

eta deabru-pillo ori estatu, errialde, uri ta errietan zabaltzen lez,

"berbaldi" baten aginduaz, iñortxori be parkatu bagarik,
burdiñak eta kateak eurrez jaurtiteko...

Buruzagi izan nai zenduala esan zeustan:

eta... ¿zetako da burdiñaz katigatutako buruzagi bat?

932 Begira: Jesus'en ikasleak, euren ergelkeri ukaezin

eta nabarmen artean...

tolesbageak, lauak... gardenak ziran.

Zeuk be ba-daukazuz beartasun garbi ta ukaeziñak.

—Ez al-dakizula lautasunik paltako!

933 Norbaitzuek diñoenez,

arima batek Jaunari bere otoitzean,

«Jesús, maite zaitut» esan eutsanean,

erantzun au entzun ei'eban zerutik:

«Egintzak dira maitasun-agiriak, eta ez errazoi onak».

Erabili egizu buruan, zeuk be erantzun maitekor ori
irabazita ez ete-daukazun.

934 Zuri opa dautsudan ardurea, maite-miña,
apostolu-zorotasun Jaungoikozkoa da,
eta ezaugarri oneik daukaz:
Irakasleagaz berba egiteko gosea,
arimen ardura etenbagea,
ezek austen ez dauan iraupena.

935 Ez zagizala loak artu garaipen-artean.
—Giza-legez be, egokera ori egokia ta lerdena ez dan ezkeru,
zer jazoko da, garaipenak —orain lez— zureak izan ez daitezanean,
Jaungoikoarenak baiño?

936 Apostolutzara, zeure burua makurtzera eta esaneko izatera zoaz,
eta ez zeure eritxia ezartera.

937 Ez zaiteze iñoiz be egintza luzeko ta otoitz laburreko gizonezko edo
andrazko izan.

938 Bizi zaitez, zeure borondatez,
Jaungoikoaren zerbitzari bategan patxadakeria ta gurinkeria txarto ikusiko
zeukezan eraz.

Begira ondo: Ebanjelioak aitatzen dauskun
“galgaraua” zara (cfr. Jn 12, 24).
—Lurperatzen eta ilten ez ba´zara, gero ez dago fruturik.

939 Izan zaiteze “munduko” gizon eta emakume,
baiña ez gizon eta emakume munduzale.

940 Ez egizu aaztu: batasuna bizi-ezaugarria da;
banantzea, barriz, usteltasuna, gorpuaren ezaugarri ziurra.

941 Esaneko izatea..., bide ziurra.
—Itsu-itsu, nagusiaren esaneko izatea..., santutasun-bidea.
—Zure apostolutzan esaneko izatea..., bide bakarria:
izan be, Jaungoikoaren egikizun baten,
guztien jokabidea esaneko izatea da, edo, bestela, aldentzea.

942 Gogoan izan, ene seme:
gauza bat egiteko, ez zara beste arimakaz alkartzen zarean arima bat bakarrik.
Ori asko da..., baiña gutxi da.
—Kristo´ren agindu estu bat beteten dauan Apostolu bat zara.

943 Zugaz dabizanak, ez dagiela esan aal izan,
beste arek naikoa errazoiz eta deadarka iñoana:
«Gizon zintzoz, onagiño nago...»
Eta eskuaz buru-gaiña jotzen eban.

944 Jainko-Maitasuna ta arimai buruzko zaletasuna
eskiñi bear dautsezuz besteai,
oneik be irugarren maillako beste askori su emon dagitsen,
eta oneitariko bakotxak be bere lanbide-lagunai.

Gogo-berotasun aundia be aundia bear dozu!
—Eta, ozten ba´zara, zure erantzukizuna bai aundia!;
eta —ez dot pentsatu nai— zure gaiztakeriaren ikaragarria,
ikasbide txarra emongo ba´zendu!

945 Jokabide okerra da Jaungoikoaren berbea kritika-gosez entzutea.

946 Zuen buruak munduan Jaungoikoari eskiñi ba´dautsazue,
jakintsu izan baiño leen
—emakumeak ez dabe jakintsu izan-bearrik: naikoa dabe zentzundun izatea—
gogozaleak izan bear dozue, otoitzaren bidez Jaunagaz guztiz alkartuta;
zuen zentzun eta aalmen guztiak eta bakotxa ondo estalduko dauzan
soingaiñeko ikusgaitz bat eroan bear zeukee;
otoitz, otoitz eta otoitz; oben-ordain, oben-ordain eta oben-ordain.

947 Arritu egiten zintzazan, zuk lan egiten dozun apostolutza orretako
“erabatasunik-eza” ontzat emoten nebalako.

Eta nik auxe esan neutsun:

«Batasuna eta ezbardintasuna.

—Zeruko santuak baizen ezbardinak izan bear dozue;
Santu bakotxa bere ezaugarri berezi ta berarizkoaren jabe da.
—Eta, baita zeruko santuak baizen alkarren kideko be izan bear dozue:
izan be, areitariko bakotxa Kristo´gaz bat eginda ez ba´lego,
ez litzake santu izango».

948 Zuk, Jaungoikoaren seme kutun orrek,
somatu ta bizi egizu anaitasuna,
baiña kutunkeria bagarik.

949 Apostolutza-gaietan aginte-aulkietara igo nairik ibiltea,
alperrekoa da bizitza onetan,
eta beste Bizitzarako arrisku utsa.

Jaungoikoak nai ba´dau, dei egingo dautsue.

—Eta orduan, onartu egin bear izango dozu.
—Baiña ez egizu aaztu: toki guztietan santutu zaitekez,
eta santu egin bear dozu zure burua,
orretarakoxe joan zara-ta.

950 Kristo´gaitik lan egitean,
agintaritzza zama latza ez dala uste ba´dozu,
amaikatxo mingostasun irunsi bear izango dozu!

- 951** Apostolutzan buru egitea,
goimaitasun neurribegez guztia ta guztiakandik
nekeak eroateko gertu egotea aña da.
- 952** Apostolutzan ez da parkatu bear esandakoa ez egiterik,
ez maltzurkeriarik.
—Gogoan izan: lautasuna ez da zentzunbagekeria, ezta arinkeria be.
- 953** Zure apostolutza-lanbidean,
“Buru egiten” dauanaren alde eta bere asmoen alde
Jaunari ildurak eta otoitzak eskintzera beartuta zagoz.
—Eginbear au beteten alperra ba´zara,
zure biderako zaletasunik ez daukazula pentsarazoten daustazu.
- 954** Nagusiak zeure eritxia eskatu dagitzunean
eta zuk bere eritxien aurka egin bear dagizunean,
nagusiari begirune aundia gorde egiozu.
—Eta ari ez egin aurka iñoiz be bere menpekoen aurrean,
berak errazoirik euki ezarren be.
- 955** Zure apostolutza-lanbidean,
ez egizu kanpoko arerioen bildurrik izan,
onein indarra aundia izanarren be.
—Ona emen zure areriorik nagusiena:
zeure “semetasunik-eza” eta zeure “anaitasun” urria.
- 956** Ondo dakit, egiten dautsuezan destañak jolasgarri dozuzana
—arerio indartsuakandik etorriarren be—,
biotzean Jaungoikoaganako ta apostolutza-anaiakanako batasuna
somatu dagizun artean.
—¿Zuri, zer?
- 957** Makiña baten pareko egiten dot sarritan apostolutza-lanbidea:
txirrinka ortzdunak, balbulak, tornilloak...
Eta goimaitasuna —zeure goimaitasuna— da orio leguntzaillea.
- 958** Itzi egizu alde batera “aundiuste-aize” ori:
zugana urreratzen diranak zugandik uxatzen dauzana da-ta.
—Entzun adi-adi. Eta lau-lau egin berba:
orrelaxe bakarrik aziko da zabal eta sakon zure apostolutza.
- 959** Destañia ta erasoia Jainko-Maitasunaren agiri bedeinkatuak dira.
Ez dago, alan be, “ixillean igarotea” baiño maitasun-agiri ta ezaugarri
ederragorik.

A P O S T O L U T Z A

- 960** Itsasoko burruna-orroa olatu bakotxaren zaratotsak osotzen dabe.
Zuen apostolutza-santutasuna be zuetariko bakotxaren onoinenez osotuta
dago.
- 961** “Jainko-gizon”: barru-bizikerearen aldeko,
otoitz eta ildura-zale izan bear dozu.
—Zure “barru-bizikereak” zure apostolutzan gaiñez egin bear dau.
- 962** Batasuna. —Batasuna ta menpetasuna.
¿Zetako nai dodaz nik erloju baten zati askatuak
—oso ederrak izanarren be—
ordurik jotzen ez ba´dauste?
- 963** Ez egidazue “talde txikitxorik” egin zuen lanbideen artean.
—Apostolutza txikiagotzea izango litzake ori:
izan be, “talde txikitxoa” —noizbait!— egikizun nagusi baten zuzentzaille
izatera eltzen ba´da be...
egikizun nagusia “talde txikitxo” eginda geratzen da laster be laster!
- 964** Bide asko dagoz! —esaten zeustan atsekabez—.
—Bai bear be: ezbardintasun arrigarri orretan,
arima bakotxak bere bidea aurkitu dagian.
¿Naaste-borraste? —Aukeratu egizu bein betiko:
eta naastea ziurtasun biurtuko da.
- 965** Poztu zaitez, beste batzuek apostolutza onean diarduela ikusten
ba´dozu.
—Eta eskatu, areintzat, Jaungoikoaren grazia ugari
eta grazi orretarako erantzupidea.
Gero, zu zeure bidera;
sinistu egizu: ez daukazu beste biderik.
- 966** Besteak zuri jaramon egin bagarik
Kristo´gaitik lanean diarduela min artzen ba´dozu,
espiritu txarra da zure espiritu ori.
—Gogoratu egizu Markos Deunak dakarren jazoera au:
«‘Irakasle, norbait deabruak zeure izenaz jaurtiten ikusi dogu
eta debekatu egin dautsagu, guretarikoa ez da-ta’.
Baiña Jesus´ek arei: ‘Ez egiezu debekatu;
izan be, ezin egin daike iñok miraririk nire izenean eta batera nitzaz txarto
berba egin.
Gure aurka ez dagoana, geure alde dago’» (Mk 9, 38-40).

967 Maitasunik ez ba' dozu,
alper-alperrik aalegintzen zara kanpotiko egikizun orreitan.
—Ari bagako jostorrazaz jostea lez da ori.

Tamalgarría izango litzake benetan,
“Aren” apostolutza egin bearrean,
“zeure” apostolutza egingo ba' zendu!

968 Poz-pozik bedeinkatzen zaitut, seme,
zure apostolu-eginbidean daukazun sinismenagaitik;
sinimen orrek onelako au idaztera beartu zenduzan:
«Ez dago ezbairik: etorkizuna —gu gora-beera, urrean— ziorra da.
Baíña Buruagaz bat egin bearrean gagoz
—‘guztiak bat eginda bizi daitezala’ (Jn 17, 21)—,
otoitzaren eta ilduraren bidez».

969 Egikizuna beste batzuentzat itzirik,
otoitzari ta nekeari eltzen dautsenak,
ez dabe emen dirdirarik egingo;
baíña... bai egingo dauala dirdira arein koroeak Bizitzaren Erreíñuan!
—Bedeinkatua “nekearen apostolutza”!

970 Egia da, zure apostolutza zentzundunari
“eginbide isil eta eraginkorra” esan dautsadana.
—Eta ez daukat ezer zuzendu-bearrik.

971 Oso ondo deritxat leenengo kristauakanako zure oneraspenari.
Eta aalegiñak egingo dodaz oneraspen ori zeugan indartzen,
areik lez egunetik-egunera zuurtasunezko
eta isil-kontuzko apostolutza eraginkorrean
adore gartsuagoz jardun dagizun.

972 “Zuurtasunezko ta isil-kontuzko apostolutzan” astean,
ez egidazu esan ez dakizula zer esan.
—Salmoak diñoana esango dautsut:
«Jaunak berba ezkutua diño,
millakak iragarten dabe albista pozgarri au» (Sal 68, 12).
Jaunak berba eraginkorrek jarten dauz bere apostoluen ezpanetan.

973 Ezbaian diarduan adiskidearen belarrira
une doi-doian ziri-ziri esan zenduzan berba areik;
egoki sortu zenduan alkarrizketa biderakusle a;
unibertsitateko aren ikaste-lana obeagotzen dauan burubidea;
eta leen ez ekizan apostolutza-bide barriak
lagunari berba erdiz irakastera beartzen zaituan “zentzunbagekeri zuurra”...
Guzti ori “isil-kontuzko apostolutza” da.

974 “Jatorduko apostolutza”:
antxiñako Patriarken arrotzakanako abegi ona
eta Betania'ko senideen bero gozoa.
—Orrelako apostolutzan Jesus ikusten dala dirudi,
Lazaro' ren etxean lez mai-buruan.

975 Erri-jai ta oiturak bir-kristautu bearrean gagoz.
—Erri-ikuskizunak ez dabe jo bear bide-gurutze onetara:
“edo-ta jentil, edo-ta minberakorrek”.
Oker ori zuzendu-bearra dago...

Eskatu egiozu Jaunari ain bearrezkoa dan “jolas-apostolutzako”
apostoluak be sortu daitezala.

976 «“Eskutitz-apostolutzari buruz” gorapen egoki bat egiten daustazu.
—Auxe idazten daustazu: “Ez dakit papera zelan zirriborrotu,
eskutitza artuko dauanarentzat onuragarri izan daitekezan gaiak esanik.
Idazten astean, zerbaitetarako on izan daiten idazten dodala esaten dausat
Aingeru Zaintzailleari.
Eta, lelokeriak bakarrrik esanarren,
niri ezin kendu daisket iñok be
—ezta eskutitzaren artzailleari be—
idazterakoan artzaillearen arimeak
—nik dakidanez—
bearren dauana eskatzen egin dodan astiunea”».

977 «Errazoibagako egun itungarrietan eldu yatan zure eskutitza,
eta, berau irakurtean, guztiz adoretuta geratu nintzan,
enparaduak egiten daben lana somaturik».
—Eta beste batek:
«Ondo laguntzen dauste zure eskutitzak eta nire anaien albistak:
ames gozo bat dirudie, guk bizi dogun guztiaren ondoan...»
—Eta beste batek:
«Au bai nire poza eskutitz orreik artzean
eta adiskide orrein adiskide nazala jakitean!»
—Eta beste millek:
«Jaso neban urliaren eskutitza, eta lotsa gorrian geratzen naz,
nire espirituaren urria areinaren aldean ikustean».
¿Ez al-da eraginkorra “eskutitz-apostolutza”?»


978 «Neugaz etorri zaitzeze,
eta nik gizon-arrantzale egingo zaituet» (Mk 1, 17).
—Jesus'ek berbok isilkeri bagarik darabiz:
gizonak — arraiñen antzera— burutik artu bear dira.
Sakona, benetan, “adimen-apostolutzak” Ebanjelioan daukan zustrarra!

979 Gizonen jokabidea da, gutxi kostatzen dana gutxitzat artzea.
—Orrexegaitik aolkatzen dautsut “ez emoteko-apostolutza”.
Zure langintza zeure apostolutza-bidea ba da,
ez egizu iñoiz be jaso bagarik itzi zure langintzari dagokion ordaiña.

980 «¿Ez ete-dogú gure joan-etorrietan arrebaren bat
bide-laguntzat eroateko eskubiderik,
beste Apostoluak eta Jaunaren senideak eta Pedro k lez?» (Ko 1ª, 9, 5).
Orixe diño San Paulo Apostoluak Korinto koai egindako leenengo
eskutitzean:
—Ezin bazartu daiteke apostolutzan “emakumeen laguntza”.

981 «Geroago —Lukas Deunaren 8 garren atalburuan irakurten danez—,
Jesus erri ta auzunetan ebillen,
toki guztietan Jaungoikoaren erregetza iragarten.
Amabi ikasleak yoiazan Jesus egaz,
baita espirtu gaiztoetatik eta beste geiso batzuetatik osatu izan ebazan
emakume batzuk be:
Madalen eritxon Mari, beronegandik Jesus ek zazpi deabru atarazo ebazana;
Joana, Erodes en etxezain zan Kusa ren emaztea;
Susana, eta beste asko.
Guztiak euren ondasunen bidez Jesus i ta beronen ikasleai
lagun egiten eutseen» (Lk 8, 1-3).
Ori, Ebanjeliotik artu dot.
Eta emakumeren batek irakurten ba daust,
ezin-ikusi santu ta eraginkorrez bete daitela,
eskatzen dausat Jaunari.

982 Emakumea gizona baiño sendoagoa da,
eta zintzoagoa saminaaldian.
—Magdala ko Mari eta Mari Kleopa eta Salome!
Orrein antzekoak, Ama Naibagetuagaz
zearo alkartutako emakume-talde adoretuak...,
bai egingo leukeela apostolutza munduan!



I R A U P E N A

983 Guztiena da astea; irautea, santuena.

Zure iraupena ez daitela izan leenengo berotasunaren ondoren itsu edo
boladaren bat-bateko bultzakadea:
iraupen bizia izan daitela.

984 Esan egiozu [Jaunari]:
«Emen nozu, dei egin daustazu-ta!» (cfr. S 1ª, 3, 6).

985 Bidea galdu zenduan,
eta, lotsaren-lotsaz, ez zintzazan biurtzen.
—Bidezkoago izan zeitekean, ez biurtzeagaitik lotsatu ba zintzaz.

986 «Egia esateko, ez dago gizon "aundi" izan-bearrik
—autortzen daustazu—,
barregarrikeri ta ergelkeri bagarik,
bear danean eta bear dan aiña norbere barruan batzeko...,
eta berton irauteko.
—Zuk agindutako arauak beteten dodazan artean
—diñozu gaiñera—,
ez yataz ardura bizi-giroaren naaspilla ta mordoillokeri guztiak;
txikikeri orrein bildur izateak, bai, ikaratuko nenduke».
—Ederto baiño ederto!

987 Gorde ta zaindu egizu, zugan jaio-barria dan ames bikain ori.
—Ugariak dira udabarrian erneten diran lorak,
eta gutxi dira lora orreitatik garau biurtzen diranak.

988 Biotz-kikilkeria da zure iraupenaren arerioa.
—Kikilkeriaren aurka burrukan egiten ez ba dozu,
ezkor egingo zara leenen eta gero epelkeriak joko zaitu.
—Izan zaitetz baikor!

989 Tira!: «Gurutzea, Jauná, Gurutzea!», ainbestetan eskatuta gero,
zeure begiko gurutze bat nai zenduan, urrean.

990 Iraupena; ez zagizala ezek ikaratu.
—Bearrezkoa yatzu iraupena.
Eskatu egiozu Jaunari, eta ori lortzeko aalegiñak egizuz:
izan be, artu dozun bide emonkorretik ez aldentzeko era ziurra da.

991 Ezin "igo" zaitkez. -Ez da arritzekoa: jausialdi a!...

Iraun egizu eta "igoko zara".

-Gogoratu gogo-idazle batek diñoana:

Oraindiño egoak lokaztuta daukazan txoria da zure arima gaisoa.

Zeruko eguzkia ta norberaren aalegin txiki ta iraunkorrak bear dira, makurkeri, irudipen eta makalkereri orreik zuzarretik atarateko, eta zure egoai ezarrirako lokatzea garbitzeko.

Eta askatuta geratuko zara.

-Irauten ba' dozu, "igoko zara".

992 Eskerrak emon egiozuz lagun egin dautsun Jaungoikoari,

eta poztu zaitetz zure garaipenaz.

-Ori bai pozaldi sakona zure arimearena, graziari erantzun ostean!

993 Ondo ausnartzen dozu... otzean:

zureak bai arazoa izteko errazoiak!

-Eta bakarren bat, itxuraz, errazoi nagusietariko.

Ba-dakit —ezbai bagarik jakin be— errazoiak daukazuzana.

-Baiña ez daukazu errazoirik.

994 «Igaro yat leengo nire berotasuna», idatzi daustazu.

-Ez zeuke lan egin bear berotasunagaitik, Maitasunagaitik baiño: zure eginbearra lana dala gogoraturik.

995 Ikaragaitz: orrelaxe izan bear dozu.

-Zure edo besteen makalaldiak zure iraupena koloka izten ba'dabe, kaskarra deritxat zure jomuga-ereduari.

Erabagi egizu bein betiko!

996 Begi lausotuz begiratzen dozu zure "bidea",

otzak biotza jotean bidea galdu dozula uste ba' dozu: tentaldia da.

Orrexegaitik kendu dautsuz Jaunak leengo pozgarri gozoak.

997 Urrunaldia, bakartasuna: iraupenerako azterbideak.

-Meza Santua, otowitz, Sakramentuak, ildurak:

Santuen Alkartasuna!:

burrukan irabazle urteteko iskilliak!

998 Bedeinkatua patin-astoaren iraupena!

-Beti oinkada bardiñak emoten. Beti jira-bira bardiñak.

-Egun bat eta bestea: guztiak bardiñak.

Ori bagarik, ez litzake fraturik egongo,


ez edertasunik ortuetan,

ez usain gozorik lorategietan.

Eroan egizu gogapen au zure barru-bizikerara.


999 ¿Non dagoan iraupenaren guna? Maitasunean!

-Maitemindu zaitetz Jaunaz, eta ez dozu Jauna alde batera itziko.



ALFABETOSKO AURKIBIDEA


- ABADEAK.— 66'tik 75'eragiño, 98, 526, 531, 532, 638.
ABERASTASUNA.— 481, 487, 632, 633, 634, 636, 677.
ADISKIDETASUNAK.— 88, 159, 160, 421, 422, 438.
ADOREA.— 1'etik 55'eragiño: 307, 311, 353, 364, 393, 401, 603, 665.
ANDRA MARI: ikusi AMA BIRJIÑA.
AGIRIKO EREA.— 2, 3, 47, 275, 351, 370, 626.
AINGERU ZAINZAILLEAK.— 562'tik 570'eragiño: 150, 976.
AITA SANTUA.— 520, 573.
AIZEKERIA.— 48, 352, 592, 600, 601, 602, 613, 648, 839.
ALKAR-EZ-ADITZEA.— 491, 643, 647, 650, 908.
ALPERKERIA.— 356, 357, 358, 934.
AMA BIRJIÑA.— 492'tik 516'ragiño, 144, 268, 269, 272, 276, 491, 558, 598, 653, 711, 721, 833, 884, 898, 900, 907, 982.
APALTASUNA.— 589'tik, 613'ragiño, 15, 45, 51, 118, 207, 211, 212, 252, 433, 446, 475, 507, 509, 625, 674, 712, 771, 780, 882.
APOSTOLUA.— 929'tik 959'ragiño, 365, 371, 372, 283, 411, 528, 744, 785, 877, 904, 909, 921, 946, 961.
APOSTOLUTZA.— 960'tik 982'ragiño, 1, 7, 89, 105, 108, 129, 137, 175, 199, 225, 315, 335, 336, 338, 340, 360, 488, 550, 812, 833, 837, 844, 846, 850, 915.
ARDURARIK-EZA.— 389, 391, 392, 415, 658, 688, 692, 769.
ARINKERIA.— 13, 17, 18, 41, 50, 375, 564, 939.
ARROKERIA.— 25, 119, 177, 200, 260, 351, 413, 569, 589, 599, 600, 601, 611, 620, 709, 781, 949.
ARROPUZKERIA.— 351, 390, 392, 618, 661, 847, 877, 879, 958.
ASARREA.— 8, 9, 10, 20, 25, 654, 656, 698.
ASMO ZUZENA.— 32, 109, 215, 280, 287, 331, 367, 442, 481, 490, 693, 787, 788, 789.
ASMOAK.— 247'tik 258'ragiño, 123, 167, 176, 289, 292, 298, 305, 776.
AUNDI-GRIÑAK.— 24, 112, 825, 874, 911, 949.
AUSARTASUNA: ikusi AZARTASUNA.
AUTORTZA.— 309, 310, 521.
AUZIA.— 745, 746, 747, 748, 930.
AZARTASUNA.— 387, 401, 402, 403, 405, 406, 479, 482, 841, 857.
AZTERKETA.— 235'tik 246'ragiño. 248. 700, 787.
BAIKORTASUNA.— 378, 404, 405, 406, 415, 473, 474, 476, 482, 483, 717, 719, 875.
BAKEA.— 152, 201, 258, 308, 445, 607, 620, 696, 702, 705, 715, 758, 759, 760, 767, 768, 777, 837.
BARDINTASUNIK-EZA.— 46, 672, 673.
BARETASUNA.— 8, 9, 10, 374, 702.
BARREGARRIKERIA.— 351, 390, 392, 618, 661, 847, 877, 879, 958.
BARRU-BURRUKA.— 713'tik 733'ragiño, 899, 991, 992, 993, 996.
BATASUNA.— 381, 480, 830, 847, 940, 947, 953, 954, 955, 960, 962, 963, 968.
BEARTSUTASUNA.— 630'etik 638'ragiño, 770.
BEREKOIKERIA.— 29, 30, 31, 36, 458, 643, 678, 683.
BESTERENTZAKOTASUNA.— 141, 218, 289, 293, 617, 684, 786, 810.
BETIKOTASUNA.— 734, 752.
BILDURTIKERIA.— 18, 33, 34, 35, 36, 38, 54, 65, 169, 251, 348, 603, 714, 828, 841, 903, 985.



BILLOIZTASUNA.— 149, 151, 152, 155, 189, 631, 632, 636, 722, 726, 770, 786, 807, 907, 918.
 BIOTZA.— 145'etik 171'eragiño, 188, 477, 917.
 BIOTZ-DAMUA.— 216, 242, 246, 436, 437, 439, 441, 503, 506, 508, 591, 861.
 BIR-JAUSKETAK.— 711, 712, 713, 716, 870, 880, 884, 991.
 BITARTEKOAK.— 470'etik 491'eragiño, 317, 324, 345, 346, 347, 350, 365, 433, 577, 585, 990.
 BORONDATEA.— 4, 5, 11, 12, 19, 21, 22, 25, 36, 42, 44, 293, 295, 316, 317, 318, 320, 324, 382, 615.
 BURUZAGIAK.— 16, 19, 24, 32, 107, 365, 371, 383, 411, 459, 473, 474, 475, 491, 493, 621, 833, 931, 951.
 EGITE-ARAUA.— 76, 77, 78, 80, 81, 304, 307, 334, 336, 362, 375, 377, 409, 815, 822, 986.
 ELIZEA.— 517'tik 527'ragiño, 685, 836.
 EPELKERIA.— 325'etik 331'eragiño, 16, 414, 492, 551, 616, 822, 921.
 ERATZEA.— 360'etik 386'ragiño, 305, 344, 756, 877, 921, 947, 965.
 ERIOZEA.— 735'etik 744'ragiño, 601, 678.
 ERIZPIDEA.— 339, 485, 565, 579, 584, 585, 589, 602, 608, 610, 642, 655, 658, 676, 702, 703, 717.
 ERIZPIDEKERIA.— 49, 52, 53, 442, 443, 445, 446, 448, 449, 451, 453, 456, 457, 675, 820, 945.
 ESAMESA.— 49, 52, 53, 343, 442, 443, 444, 445, 446, 448, 449, 451, 453, 455, 456, 457, 775, 820, 945.
 ESKU-TRESNA.— 381, 483, 484, 488, 491, 612, 617, 723, 803, 830.
 ESPIRITU SANTUA.— 57, 58, 130, 273, 852.
 ESTUEGIKERIA.— 387, 393, 394, 395, 396, 397, 398, 407, 850.
 EUKARISTIA.— 269, 270, 321, 322, 531, 533, 535, 554, 569, 876.
 EZBEARRAK.— 14, 165, 482, 485, 487, 495, 685, 687, 688, 694, 695, 697, 700, 717, 955, 956.
 EZIN ERABAGIA.— 1, 237, 300, 316, 515, 757, 797, 798, 895, 902, 909, 910, 964, 995.
 EZKONTZA.— 26, 27, 28, 120, 360.
 EZKORTASUNA.— 52, 660, 688, 694, 706, 723, 879, 887, 998..
 EZKUTUAN IGARO.— 347, 449, 509, 643, 647, 649, 651, 653, 655, 832, 840, 843, 848, 908, 917, 946, 959, 969, 970.
 EZTABAIDAK.— 25, 491, 798, 993.
 GARBITASUNA.— 118'tik 145'eragiño, 490, 504, 511, 707, 741, 850.
 GAUZA TXIKIAK.— 813'tik 830'eragiño, 19, 204, 205, 243, 272, 281, 302, 307, 362, 409, 410, 418, 557, 590, 614, 618, 755, 776, 911, 998.
 GIZA-LOTSAKIZUNAK: ikusi NOK-ZER-ESANGOAK.
 GOGO-IRAKURRALDIA.— 116, 117.
 GOGOZKO UMETASUNA.— 852'tik 901'eragiño, 55, 557, 697.
 GOIMAITASUNA.— 440'tik 469'ragiño, 361, 366, 369, 385, 399, 412, 675, 683, 795, 959.
 GRAZIA.— 12, 56, 298, 324, 434, 670.
 IKASBIDE ONA.— 342, 362, 376, 380, 383, 411, 491, 596, 640, 687, 795, 831, 842, 938, 943, 995.
 IKASIA.— 332, 345, 347, 602.
 IKASTALDIA.— 332'tik 359'ragiño.
 ILDURA.— 172'tik 207'ragiño, 20, 43, 299, 306, 368, 631, 677, 681, 683, 689, 775, 881, 885, 899, 929, 946.

INGURUA, INGURUMARIAK.— 375, 376, 379, 380, 566.
 INPERNUA.— 749, 750, 752.
 IRAUPENA.— 982'tik 99'ragiño, 300, 413, 482, 485, 502, 515, 519, 552, 581, 644, 695, 709, 711, 813, 822, 823, 882, 891, 893, 910, 924, 927, 934, 965.
 ISILTASUNA.— 281, 304, 447, 491, 627, 639, 645, 654, 656, 671, 672.
 ITXAROPENA.— 12, 130, 169, 182, 264, 582, 667, 668, 669, 695, 719, 720, 721, 727, 730, 731, 748.
 IZADIZ GAIÑETIKO BIZIKEREA.— 279'tik 300'eragiño, 278, 341, 389, 422, 578, 583, 638, 697, 942, 961.
 JANEDANKERIA.— 126, 679, 680, 681, 682.
 JATORTASUNA.— 379, 380, 440, 499, 641, 858, 877, 958, 986.
 JAUNAREN AURREAN.— 265'etik 278'ragiño, 103, 110, 288, 312, 319, 320, 416, 471, 551, 772, 894, 898.
 JAUNARTZEA.— 105, 534, 535, 536, 537, 538, 639, 710, 896.
 JAUNGOIKOAREN AINTZA.— 779'tik 789'ragiño, 842.
 JAUNGOIKOAREN DEIA.— 901'etik 927'ragiño, 6, 16, 299, 300, 360, 483, 484, 485, 602, 605, 670, 742, 799, 800, 801, 803, 807, 808, 811, 834, 978.
 JAUNGOIKOAREN DEIARI ENTZUNGOR EZ EGITEA.— 242, 308, 313, 318, 320, 362, 580, 670, 761, 784, 807, 829, 856, 897, 901, 913, 965, 985, 990, 992.
 JAUNGOIKOAREN NAIA.— 754'tik 778'ragiño: 691, 718, 731, 739, 864, 912.
 JAUNGOIKOAREN UME.— 265, 274, 860, 864, 870, 881, 887, 890, 892, 894, 919, 948.
 JAUSPIDEAK.— 714, 716.
 JESUS GURUTZETUA.— 178, 277, 288, 302, 470, 555, 556, 775, 811.
 JESUS EN BURUBIDEAK.— 28, 122, 323, 360, 770, 779, 807.
 JESUKRISTO'REN ANTZ-BIDEA.— 2, 212, 213, 271, 277, 310, 313, 356, 628, 671, 683, 687, 694, 699.
 JOKABIDEAK.— 831'etik 865'ragiño, 307, 400, 488, 499, 509, 563, 644, 649, 655, 917, 944, 979.
 JOSE SANTUA.— 559, 560, 561.
 KATOLIKUA.— 7, 517, 525.
 KEZKAK.— 258'tik 264'ragiño, 140, 349, 536, 539, 718, 724.
 LAGUN-BILLAKETA.— 790'etik 812'ragiño, 412, 483, 563, 629, 764, 831, 835, 916, 920, 972, 978.
 LANA.— 1, 13, 15, 21, 294, 306, 332, 340, 356, 357, 358, 359, 373, 440, 486, 545, 933.
 LEENENGO KRISTAUAK.— 570, 581, 799, 925, 966, 971.
 LIBURUAK.— 339, 467.
 LIMOSNEA.— 466, 467, 636.
 LITURJIA.— 522, 523, 527, 530, 541, 542, 543.
 MAITASUNA, MAITAKERIA.— 417'tik 439'ragiño, 303, 323, 401, 568, 667, 668, 727, 796, 813, 814, 824, 859, 875, 878, 881, 885, 901, 922, 944, 967, 994, 999.
 MARTIRITZA.— 182, 185, 199, 205, 206, 622, 647, 743, 848.
 MARMARRA: ikusi ESAMESA.
 MENPETASUNA.— 614'tik 629'ragiño, 190, 315, 377, 383, 706, 936, 941, 952.
 MEZEA.— 528'tik 543'ragiño.
 MIÑA.— 169, 194, 199, 208, 209, 213, 215, 217, 219, 224, 229, 234, 256, 419, 436, 439, 548, 690, 692, 717, 885, 969, 982.
 MIRARIAK.— 362, 376, 462, 583, 588, 629.
 MISIÑOLARIA.— 315, 764, 792, 801, 811, 812, 848, 968.
 NAASKERIA.— 384, 394, 400, 407, 603, 964.

NAGIKERIA.— 13, 15, 191, 206, 325, 356, 357, 358.
 NORBERE BURUA EZAGUTU.— 18, 591, 592, 593, 595, 596, 597, 599, 604, 605, 608, 609, 686, 690, 698, 729, 780, 882, 883, 932.
 NOK-ZER-ESANGOAK.— 195, 353, 390, 391, 392, 491, 541.
 OBEN-NEKEA.— 208'tik 234'ragiño, 202, 548, 929, 938, 946, 969, 989.
 ONERASPENAK.— 551'etik 574'ragiño, 312, 500, 501, 518, 520, 522, 526, 528, 542.
 OPARIA, UKAPENA.— 153, 175, 178, 185, 186, 218, 255, 277, 763.
 ORDUAK ALPERRIK EZ EMON.— 15, 251, 253, 354, 355, 356, 357, 358, 420, 530, 616.
 OTOITZA.— 81'tik 117'ragiño, 142, 145, 172, 266, 403, 502, 546, 547, 553, 574, 663, 800, 825, 888, 889, 890, 891, 894, 911, 924, 927, 937, 946, 968, 990.
 PANPARROIKERIA: ikusi ARROPUZKERIA.
 PARKABIDEA.— 216, 242, 246, 436, 437, 439, 441, 503.
 PEKATUAK.— 261, 262, 296, 309, 328, 329, 330, 331, 357, 386, 402, 865.
 POZA.— 657'tik 666'eragiño, 203, 237, 260, 298, 308, 548, 626, 672, 692, 758, 807, 878, 906, 965, 992.
 SAMIÑALDIA.— 685'etik 706'ragiño, 12, 302, 306, 308, 404, 482, 514, 706, 726, 879.
 SANTUEN ALKARTASUNA.— 544'tik 550'eragiño, 315, 464.
 SANTUSASUNEAN GOI-MAILLA.— 39, 107, 290, 291, 301, 327, 337, 408, 766, 791, 807, 815, 826, 887, 936, 960, 983.
 SENDOTASUNA.— 4, 5, 11, 19, 22, 23, 44, 48, 54, 325, 508, 519, 603, 604, 610, 615, 728, 853, 982.
 SENITARTEA.— 55, 365, 366, 385, 458, 460, 461, 462, 465, 469, 480, 544, 545, 549, 665, 924, 927, 948, 955, 966, 974, 977.
 SINISMENA.— 575'etik 588'ragiño, 142, 274, 489, 667, 727.
 TENTALDIAK.— 141, 142, 143, 149, 302, 307, 308, 357, 433, 483, 485, 493, 498, 504, 513, 567, 576, 704, 708, 725, 727, 923, 973, 991, 993, 997.
 TOLESBAGETASUNA.— 47, 64, 305, 379, 510, 581, 862, 868, 932, 952.
 UKAPENA: ikusi OPARIA.
 USTE OSOA.— 168, 273, 292, 309, 314, 475, 482, 721, 732, 733.
 ZALETASUNA.— 7, 32, 112, 306, 315, 346, 402, 412, 413, 764, 790, 793, 796, 805, 807, 809, 811, 833, 911, 914, 916, 920, 928, 934, 972, 973.
 ZIRIKALDIAK: ikusi TENDALDIAK.
 ZORIONA.— 217, 297, 692, 704, 754, 758, 766.
 ZUZENDARIA.— 56'tik 656'ragiño, 51, 55, 347, 839, 952, 970, 972.





I Z T E G I T X O A

abere: bestia, animal, ganado.
 abesti: canto, canción, cántico.
 abestu: cantar.
 aginlari: dentista.
 aize-orratz: veleta.
 aolkatu: aconsejar.
 aolku: ikusi "burubide".
 aolkulari: consejero, consultor, exhortador.
 arakaitz: carroña.
 argazki: fotografía.
 argi-txakur: fuego fatuo.
 arpiko: cincel de cantero.
 arrunt: ordinario, común, de inferior calidad.
 askatze: desasimiento.
 aundietsi: admirar.
 aurki: seguramente, sin duda, a buen seguro.
 ausarta: audaz.
 azarkeri(a): osadía.
 azartasun: audacia.
 baikor: optimista.
 bateratasun: conformidad.
 berbari: elocuente, hablista.
 berezitasun: característica, particularidad, especialidad.
 berezkotasun: naturalidad.
 buru-ukapen: sacrificio, abnegación.
 burubide: consejo.
 buruzagi: jefe, caudillo.
 dastatu: saborear, gustar, probar.
 destaiña: desprecio.
 ederretsi: estimar.
 elkor: árido.
 eregi: construir.
 ergelkeri: simpleza, simplicidad, miseria.
 ertilari: artista.
 esames: murmuración.
 etsipen: 1) desilusión, desengaño; 2) resignación.
 ezetsi: despreciar.
 ezkongetza: celibato.
 ezkor: pesimista.
 garaitzaille: vencedor, triunfador.
 garuntegi: cerebro.
 giza-lotsakizunak: respetos humanos.
 gizauren: hombre heroico.
 gogozale: espiritual.

gogo-zuzendari: director espiritual, padre espiritual.
 gudu: guerra.
 ildura: mortificación.
 ilduratu: mortificar-se.
 iraingetu: desagruar.
 iruzur egin: engañar.
 iseka: burla.
 iskillu: arma.
 itsaskor: pegajoso.
 izkinka: silabeando.
 jasan: sufrir, soportar.
 jazartzaille: perseguidor.
 kezka: escrúpulo, preocupación, inquietud.
 lagun-billaketa: proselitismo.
 lankai: instrumento de trabajo.
 lautasun: sencillez.
 laztasun: sacrificio corporal, austeridad.
 lelo: tonto, atontado, pasmado.
 likatsu: pegadizo.
 likin: viscoso.
 lakartuta: apocado, abatido.
 margolari: pintor.
 marro, (marrotxo): maña con astucia, engaño artificioso.
 naaskeri(a): confusionismo.
 nekabide, nekebide: penitencia.
 nok-zer-esango: el qué dirán, respetos humanos.
 oarkabetu: distraer-se.
 obo: círculo.
 onbide: virtud.
 oneraspen: devoción.
 onoimen: virtud.
 orokor: universal.
 oskol: caparazón.
 otoitz-biozkada: jaculatoria.
 patin-asto: burro de noria.
 pika: pez (sustancia resinosa).
 saioaldi: entrenamiento, prueba, ensayo.
 sama-bide: tubo digestivo.
 soillik: meramente.
 soloari: mies.
 taketa: palote.
 tentel: lelo, bobo, tonto.
 tolare: lagar.
 txakur txolin: perro faldero.
 txaldankeri(a): memez, insustancialidad.
 txantxa, txantxeta: broma, chanza.
 txepel: pusilánime.

txikimako: zanco.
 tximistargi: luz eléctrica.
 txingote: caricatura.
 txirotasun: pobreza.
 zabortegi: depósito de basura.
 zaletasun: 1) afición, apego, inclinación; 2) celo, fervor.
 zama: carga.
 zentzuntasun: gravedad, circunspección, cordura.
 zio: motivo.
 zuzu-muzu: susurración, mormojeo, murmuración secreta.





KEREXETA´REN IDAZLANAK

OBRAS DE KEREXETA

(A = Agortuta - Agotado.)

1. Orbelak (1959) (A).
2. Bitargi (1960) (A).
3. Jesukristo gure Jaunaren Barri Ona (lau Ebanjelioak alkartuta: 1960-61) (A).
4. Apostoluen Egiñak (1961) (A).
5. Eguneroko Meza (Missale Romanum: 1962-63) (A).
6. Gogarteak (Aita Basabe — Kerexeta: 1963) (A).
7. Didaje eta Apostoluen Siniskitza (1965) (A).
8. Apostoluen Egiñak eta Idazkiak (1965) (A).
9. Alkartasun Barriko Itzak eta Gaiak (1965) (A).
10. Argi-bide Txikia (Zugasti — Kerexeta: 1965) (A).
11. Jesukristo gure Jaunaren Barri Ona (lau Ebanjelioak alkartuta, gipuzkeraz: Kerexeta — Zugasti: 1966) (A).
12. Jesukristoren Barri Ona (lau Ebanjelioak: 1966) (A).
13. Itun Berria (Novum Testamentum, gipuzkeraz: Orixe — Kerexeta — Zugasti: 1967; 2ª edición: 1974) (A).
14. Salmutegia (1967) (A).
15. Salmudia (gipuzkeraz: Kerexeta — Zugasti: 1968) (A).
16. Umeen Biblia (1969; 2ª edición: 1974; 3ª edición: 1982) (A).
17. Umeen Biblia (gipuzkeraz: Kerexeta — Zugasti: 1969) (A).
- 18-22. Diccionario Onomástico y Heráldico Vasco (cinco volúmenes: 1970-74) (A).
23. Gure Salbaziño-egintza (Alkartasun Barria: Ascea-PPC´na: 1972) (A).
24. Alkartasuna Barria (Novum Testamentum, osorik; 2ª edición: 1972) (A).
25. Jesukristo´ren Barri Ona (2ª edición; bilingüe: 1973) (A).
26. Ebanjelio Alkartuak (1973) (A).
27. Kristau-Itxasbidea (4-garrena) (1974). (A).
28. Eliz-Guraso-Apostolikuak (Padres Apostólicos) (1975). (Premio "Agirre-Saria" en Baiona (Laburdi) en 1976). Ale dotorea: 1.420 pta.
29. Euskal-Biblia (Biblia completa) (1976; 2ª edición: 1993). 3.000 y 4.000 ptas. (3ª edición, de bolsillo: 1994). 2.000 ptas.
30. Mezako Irakurgaiak Euskal-Biblian (1976). 125 pta.
31. Astegunetako Meza-Otoitzak eta Jainko-Erriaren Otoitza (1977). 300 p.
32. Diccionario Euskérico (1977). 200 ptas.
33. Iparragirre´ren Bizitza (L. de Kastresana — Kerexeta: 1978). 920 pta.
34. Gernika´ko beste Arbola (L. de Kastresana — Kerexeta: 1979). 842 pta.
35. Orbelak, Bitargi (2ª edición), Udazken (1980) (bilingüe). 300 pta. (A).
36. Elizearen Otoitza (1982). 500 pta. (A).
37. Domeka eta Jaiegunetako Ospakizunak Abade bagarik (1982). 300 pta.
38. Bolibar (Bohórquez — Kerexeta; bilingüe: 1984). 800 ptas.
- 39-40. Vascos en Colombia (2 volúmenes) (Kerexeta — F. de Abrisketa) (1985). 8.500 ptas.
41. Casas Solariegas de Bizkaia (vol I: en orden alfabético) (1987). 1.500 ptas.
42. Linajes y Casas Solariegas de Elorrio (245 págs. de texto y 402 fotografías). (1988; 2ª edición: 1991). 1.000 ptas. .

43. Lau Ebanjelioak (de la "Biblia Interconfesional": 1988). 700 pta.
 44. Berrio-Otxoa (bilingüe; P. Carlos — Kerexeta) (texto y 34 fotografías) (1988).
 100 pts.
 45. Fededunen Otoitza (1988). 160 pta.
 46. Alkartasun Barria (1989). 1.500 pta.
 47. Kenpis (Jesukristoren Antz-bidea) (1989). 500 pta.
 48. Kunran (esku-idazkiak — manuscritos) (1989). 300 pta.
 49. Casas Solariegas de Bizkaia (vol. II: por pueblos; incluido en el vol. VIII
 del "Diccionario Onomástico y Heráldico Vasco") (1989).
 50. Ebanjelio Alkartuak (3ª edición; de la "Biblia Interconfesional") (1989).
 500 pta.
 51. Diccionario AMAIA de la Lengua Vasca (euskera-castellano) (1991).
 5.500 ptas.
 52. Fogueraciones de Bizkaia del siglo XVIII (años 1704, 1745 y 1796-98)
 (1992). 2.500 ptas.
 53. Linajes y Casas de Gipuzkoa (1993). 1.200 ptas.
 54. Kristau-Gaiak (1995). 1.000 pta.
 55. Bidea (Josemaría Escrivá de Balaguer — Kerexeta) (1995).

ERATUAK – ADAPTADOS:

Ipuñiak: Bustintza'tar Errose, "Mañariko" (1990). 1.000 pta.
 Eusko-Umeak Atzerrian: Goitia'tar Xabier (1991). 1.375 pta.

COEDITOR DE:

El Sínodo del País Vasco: José Mª San Sebastián, "Latxaga" (1990). 500 ptas.
 La representación del tiempo en el verbo vasco: José Mª San Sebastián,
 "Latxaga" (1994). 2.000 ptas.
 El Clero Vasco en la clandestinidad: Serafín Esnaola y Emiliano de Iturrarán
 (1994). 4.000 ptas

Jaime de Kerexeta.
 Elizburu, 24.
 48230 ELORRIO (Bizkaia).
 Tel.: 682 00 12.